

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-03-24
ASTELEHENA
446. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



OIHANA ELORTZA

"Baratzean zenbat eta laborantza gehiago, orduan eta arazo gutxiago"

Leire Ibarretxe
Biolurreko teknikaria | 8

Bertigorik gabe, eguaztenean abiatuko da VII. Huhezinema | 29



Ausardia eta erakustaldi bikaina skate txapelketan | 26



Zortea lagun, UDAk irabazi du Antzuolaren aurkako derbia (0-2) | 22



Errekorra hautsi du

Asteburuan iritsi da *8 apellidos vascos* filma Arrasatera, eta eromena eragin du. Zapatuan eta domekan hegan egin dute sarrerek, eta hiru emanaldi beharrea lau eskaini dituzte azkenean. Gaur izango da beste aukera bat, 20:30ean. Orain arte ikusitako gehienek diote gustatu egin zaiela. | 30

Jendetza eta ilara luzeak ohikoak izan dira asteburuan
Amaia antzokiko leihatilan.

JAGOBA DOMINGO

SINADURAK

	ANDONI GOMEZ 9
	9 INAZIO ARREGI
	MAITE BARREÑA 14
	16 MAIALEN MADARIAGA
	MARINA ETXEGOIEN 18
	19 MIKEL ARROIABERE
	IMANOL GALLEGO 37
	40 AINHOA LARRAÑAGA

Etzi irekiko da Lanbide Heziketa azoka

Euren eskaintzaren berri emango dute zentroek Arrasaten, Kulturaten, bi egunez

Lanbide Heziketako zikloetan matrikulatzeko epea hurbiltzen doan neurrian, zentroetara bisitak, deiak eta galderak ere ugarituz doaz. Bada, joan-etorri eta kontsulta horiek guztiak arintzeko aukera emango du azokak eguazten eta eguenean, goiz eta arratsalde. Zentroek euren eskaintzen berri emango dute; Interneten, beken, profil profesionalen... gaineko berbaldiak egongo dira; eta aurtien, baita hezkuntza orientatzailea ere. Interesa duen guztientzako egongo da zabalik. | 2

2. FASEA



www.garraioahobetzen.net



GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

Zoaz 4. orrialdera.



Langabe, ikasle eta gurasoendako, badator Lanbide Heziketa azoka

- ▶ Euren eskaintzaren berri emango dute zentroek Goiaz! azokan
- ▶ Bideo-CV lehiaketako sariak banatu eta tailerra ere egingo da
- ▶ Interneten, beken, profil profesionalen... gaineko berbaldiak daude

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Lanbide Heziketako zikloetarako matrikulatzeko epea hurbiltzen doan neurrian, zentroetara bisitak, deiak eta galderak ere ugarituz doaz: ze ikasketa emango dituzte aurten? Non ikasi ahal izango dut niri gustatzen zaidana? Orain arte daukadan ikasketa mailarekin, ze gradu egin ditzaket? Ikasketa hauek edo beste horiek ze enplegarritasun dute?

Bada, aste hauetan egin beharreko joan-etorriak eta kontsultak arintzeko eta informazio guztia egun berean lortu ahal izateko aukera dago datorren eguazten eta eguenean, egun horietan egingo da eta aurtengo Goiaz! Lanbide Heziketa azoka. Urtero bezala, Debagoieneko Lanbide Heziketa zentro guztiak bertan izango dira, Kulturaten -Oñati Gestio Eskola -Mondragon Unibertsitatea; Zuaola-Larraña Institutua; Mariaren Lagundia ikastola; Miguel Altuna institutua; Arizmendi ikastola; Goi Eskola Politeknikoa (MU); Aretxabaleta Lanbide Eskola; Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroa (EPA); eta Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa. Baita beste bi formazio zentro -Bastida akademia eta Ikasi prestakuntza zentroa- eta informazioa eta orientazioa emateko gertu dauden beste erakunde batzuk ere -Bizikasi, Alecop, Lanbide, Eures (Europako Enplegu Zerbitzuen Sarea-, Kutxa Zeharo; Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako Udalen

Sustapen eta Enplegu zerbitzuak; eta ekintzaileendako zerbitzuak -Garapen Agentzia eta Saiolan.

Bideo-CVak euskaraz

Aurten, nobedade batzuk izango ditu azokak.

Publiko orokorrari begira, aurten bideo-curriculumek espazio berezia izango dute. Batetik, lehenengo eguenean, eguaztenean, Aurkeztu zure burua modu original batean. Bideo curriculum egiten ikasteko tailerra emango dute (11:30); eta, borobiltzeko, 19:00etan, Garapen Agentziak antolatu duen I. NiNeu Bideo-CV Lehiaketaren sariak banatuko dituzte. Horrez gain, azokak dirauen artean, finalista izan diren bideoak emango dituzte.

Pozik daude antolatzaileak, Mankomunitateko Garapen Agentziako ordezkariak, bideo-curriculum lehiaketaren erantzunarekin: 18 lan jaso dituzte eta barietatea egon da: 11 ikasle, sei langabe eta langile bat aurkeztu dira, tartean etorkin batzuk ere, eta batek euskaraz egin du bideo-CVa.

Beste berritasun bat guraso eta orientatzaileei zuzendutako ekintza bat da: hitzaldi bat, eguenean, hilak 27. Azoka bukaeran izango da, 18:30ean, eta bertan, seme-alabei etorkizunaren gaineko erabakiak hartzen laguntzeko moduz hitz egingo du Itziar Perezek (adimen emozionalean aditua eta motibazio eta coaching dinamizatzailea MUren Goi Eskola Politeknikoan). Bere esanetan,

FITXA



GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

GOIAZ! LANBIDE HEZIKETA AZOKA

Noiz: eguaztenean, hilak 26, eta eguenean, 27; ordutegia: 19:30-13:30 eta 16:00-19:00.

Non: Arrasaten, Kulturaten.

Zer: Lanbide Heziketa zentroen eskaintza, hitzaldiak, tailerrak...

Zeinendako: langabe, ikasle, guraso eta interesa duten guztiendako.

ESANAK

"Langabeei esan nahi diegu euren azoka ere badela Goiaz!"

"Hezkuntza orientatzailea ere izango da aurten azokan"

AMAIA IRIZAR
GARAPEN AGENTZIAKOA

"helburua da beharrezkoak diren jokabide batzuen gaineko gogoeta irekitzea: sakon entzutea, asertibitatea, seme-alabak larregi ez babestea, beste ikuspuntu batzuetara zabaltzea... eta horiek seme-alabongan euren sinismen eta ametsetatik abiatuta gogoeta egitera bultzatuko dituzte, zer nahi duten eta bizitza eta garapen profesionala nola bideratu nahi duten pentsa dezaten".

Bestela, azken urteotako egitura bera izango du Goiaz! azokak: galerian, ikastetxe arautuak izango dira, eta patioan, enplegu zerbitzuak, beste formazio zentroak, orientatzaileak, Garapen Agentzia... Zentro bakoitzak askotariko materiala eroan ahal izango du: bideoak, ikasleek egindako proiektuak, tresnak...

Aurten, beste urteotan ez bezala, ikasleendako ohiko tailerrak, Garaionen eskutik, ikastetxeetan egin dituzte, azoka aurretik. Ekintza horretan sei zentrotako 300 ikaslek parte hartu dute.

Ikasleen adina, gora

Aurten izena ipini diote egun bati, eguaztenekoari: Langabeen Eguna da. Izendapen sinbolikoa da, izan ere, azoka guztia dago interesatu guztiei eskainia eta baita langabeei ere; baina helburuetako bat, urterik urte, bereziki langabeak erakartzea da: "Gura izan dugu langabeak ere identifikatuta senti daitezela azokarekin, gogora dezatela Goiaz! azoka ez dela bakarrik ikasleen



Eskaintza akademikoaren berri emateko, ikasleek...



Lanbide Heziketa zikloen gaineko informazioa ja...

dako, eurendako ere badela", azaltzen du Garapen Agentziako Amaia Irizarrek. Gaineratzen duenez, urteroko erronka da ahalik eta langabe gehien erakartzea.

Langabeak erakartzeko nahiarekin lotuta, beste berritasun bat eurendako bakarrik da: Garapen Agentziaren lanerako orientazio zerbitzua erabili duten langabeei bisita gidatua emango diete orientatzaileek, ikasleei irakasleek ematen dieten moduan.

Izan ere, lanik gabe geratu direnak edo denbora luzean lanposturik aurkitu ez dutenak dira, gero eta gehiago, Lanbide Heziketako zentroetako ikasgelak eta praktika-lekuak betetzen dituztenak. Horren adierazgarri garbia da azken urteotan handitu egin

DATUAK

%6

IKASLE GEHIAGO

2013/14 ikasturtean 1.259 ikasle daude Debagoieneko Lanbide Heziketa egiten, joan den ikasturtean baino %6 gehiago.

%72

GIZONEZKO

Bailarako zentroetan Lanbide Heziketa egiten dabilten ikasleen ia hiru laurdenak, %72,6, gizonezkoak dira, eta %28, emakumezkoak.

0

EMAKUME

Ikasle gehien dituen graduan, Mekatronika Industrialean, ez dago emakumezko ikasle bat ere aurtengo ikasturtean; 149 ikasleak gizezkoak dira.

33

ZIKLO

Denetara, Debagoieneko zazpi zentroen artean 33 ziklo ematen dituzte, 20 goi mailakoak eta beste 13ak, erdi mailakoak.

%60

IKASLE, LANEAN

2010/11 promozioiko ikasleen artean galdeketa eginda, %60 lanean hasiak zeudela esan zuten, eta beste %22 ikasten jarraitzen zutela.



n lanak eta proiektuak ere erakusten dituzte zentroek. | GOIENA



Ikasle batzuk, bisita gidatua. | GOIENA



Patioan, enplegu zerbitzuak, heziketa zentroak... izango dira. | GOIENA



sotzeko primerako aukera da azoka. | GOIENA

delan Lanbide Heziketako ikasleentzako beste adina.

Garapen Agentziak 2010/11 promozio ikasleentzako artean galdetuta egin zuen, eta ikasleentzako %60 lanean hasiak ziren, eta %22k lanean jarraitu zuten; kasu askotan, beste gradu bat egiten, bai bukatutako ikasketen familia bereko beste bat, osagarria, bai familia desberdin bateko gradu bat.

Zalantzak argitu nahian

Lanbide Heziketa azokara joaten direnen helburuak askotarikoak izaten dira, bisitariak eurak beazala, Amaia Irizarrek dioen moduan:

"Jende asko zalantzak argitzera etortzen da: ikasketa jakin batzuk egin nahi dituela eta ez dakiela non egin; edo ikasketa maila jakin bat duela eta ez dakiela non jarraitu ikasten..."

Informazio orokorra nahi izaten dutenak ere izaten dira. Kasu horietan, honakoa gomendatzen du Irizarrek: "Zalantzak dituztenedako, aurten, orientazio zerbitzua daukagu: lan-orientatzaileak eta hezkuntza-orientatzailea egongo dira, eta azken horri zalantza orokorrak galdetzeko aukera dago". Eguenean bi orduan (17:00etatik 19:00etara) egongo dira orientatzaile horiek jendearen galderei erantzuteko gertu.

Bisitari gehienak ikasleak izaten dira. DBHko ikasleak taldeka joaten dira, Lanbide Heziketa ezagutzera. "Gero, Batxilergotik datozen ikasle askok badakite Lanbide Heziketa egin nahi dutela, eta eskaintza zehatza ezagutzera dotoz. Gero, ikastetxearen arabera, hitzaldiren bat aukeratzeko dute".

Sare sozialak, lana bilatzeko

Aurten ere, zenbait hitzaldi izango dira azokak dirauen bitartean. Gai batzuk beste edizio batzuetan ere landu izan dituzte, baina, interesgarriak edo gaur egungo gaiak direlako edo beste urte batzuetan jendeak ondo baloratu izan dituelako, berriz lantzea

erabaki du Goiaz! foroak, gaiak aukeratzen dituenak.

Aurten, adibidez, Interneten norberaren erreputazioa zaintzeko gomendioak emango ditu Ane Bilbao MUko irakasleak (eguna, 09:00) eta iaz arrakastan handia izan zuen beste gai bat landuko du Miguel Fernandez Arrietak: sare sozialak lana bilatzeko tresna gisa (eguna, 17:00).

"Mutilena" edo "neskena"

Garapen Agentziaren esanetan, oraindik sexuak markatu egiten du zer ikasketa aukeratzeko diren. Hala, ziklo industrialetan ia ez dago emakumezko ikasle, eta batzuetan, ia barik: oraingo ikasturtean, Mekanika Industrialia 149 ikasle egin dute, eta denak gizonezkoak ziren; bestalde, osasun eta gizarte zerbitzuen arloan, emakumezkoak dira gehienak: mendeko pertsonen arretan, 25 emakume eta zortzi gizonezko izan dira ikasle.

'Zer egin dezaket?'

Enpresek aurrerantzean langileengandik eskatuko dutenaz mahai ingurua izango da. Hizlarietako bat izango da Elayko Marian Baleztina, eta honela laburtzen du enpresek behar izango dutena: bidaiatzeko prest egotea eta atzerriko hizkuntzaren bat jakitea; inizatiba eta hobetzeko zaletasuna; pertsonak kudeatzen jakitea, taldean lan eginda. "Eta dena borobiltzeko, malgutasuna. Ez galdetu Zer egin behar dut?; Zer egin dezaket? da galdera".

Lanbide Heziketa Integratuko Sistema aurkeztuko du Lanbideko teknikari Gloria Gonzalez Marcok (eguztina, 17:30).

Miguel Altunako arduradun eta ikasle banak eta enpresa batek Ikas-ekinezko Lanbide Heziketa Duala izeneko programaren berri emango dute (eguna, 10:30). Orain arte Hezibi deitu izan da, eta aurten, programa hori egiten duen 3. promozioa izango da.

Eguaztenean, 11:30ean, hiru ekintzailek euren esperientzia azalduko dute. Bestalde, egunean, 12:00etan, beken eta praktiken gaineko azalpenak emango dituzte bi lagunek.

Industria arloaren arrakasta

Debagoienean, 1.259 ikasle daude Lanbide Heziketan matrikulatuta, 914 gizon (%72,6) eta 345 emakume (%27,4). Joan den ikasturtean baino %6 ikasle gehiago dira 1.259 horiek.

Urtetik urtera, ikasketa berberak eskaintzen saiatzen dira ikastetxeak. Eskaintza zabala dago bailaran: 12 familiako zikloak eskaintzen dira, 20 goi mailako ziklo eta 13 erdi mailako ziklo. "Eskaintza hori eskualdeko enpresa-ehunari nahiko lotuta dago", dio Garapen Agentziak.

Ikasketa batzuk egokitu egin dira. Mekanika Industrialia da bailaran ikasle gehien dituen (150 bat) eta mekanika eta elektronikak edukiak ditu. Industria ikasgaiek dute matrikulazio gehien, baina beste familia batzuek ere arrakasta dute, hala nola osasun, kirol eta administrazio ikasketek.

Bestalde, gero eta gradu gehiago daude langileen beharretara moldatuta: eskaintza partziala dago horietan, hau da, arratsaldez ikastera joateko eta titulua epe luzeagoan ateratzeko aukera.



Passat Alltrack

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70




Das Auto.

2.
FASEA

www.garraioahobetzen.net



herritarrekin
martxan en marcha



Gipuzkoa
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

**PARTE HARTU
ETA IRABAZI**

Parte-hartzaile guztien artean
Mugi/Lurraldebus txartela
kargatzeko 20 euroko bonoak
zotz egingo ditugu.

Gipuzkoa
BERRIA

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu.

Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: www.garraioahobetzen.net

DEBAGOIENeko HERRIETAN EGINGO DIREN BILERAK

HERRIA	EGUNA	ORDUA	LEKUA
Oñati	Martxoak 24	18:30	Udalbatza aretoa
Bergara	Martxoak 25	18:30	Irizar Jauregia
Elgeta	Martxoak 26	18:30	Udalbatza aretoa
Arrasate	Martxoak 27	18:30	Kulturate
Leintz Gatzaga	Martxoak 28	18:30	Udalbatza aretoa
Aretxabaleta	Martxoak 31	18:30	Arkupe
Eskoriatza	Apirilak 1	18:30	Kultura etxea
Antzuola	Apirilak 2	18:30	Olaran



Cegasako langileek, zapatuan, Gasteizen egin zuten manifestazioa. | JOSE LUIS FERNANDEZ

Ehunka lagun irten ziren kalera Cegasa Taldeko lanpostuen defentsan, Gasteizen

Manifestazioa egin zuten hirian zapatuan; bigarren bat egingo dute zapatu honetan, hilak 29, Oñatiko kaleetan zehar, plazatik abiatuta 12:00etan

IRATI GOITIA | ARRASATE

Cegasako langileek manifestazioa egin zuten zapatuan, Gasteizen. Ehunka lagun batu ziren hiriko kaleetan Cegasa Taldeko lanpostuen defentsan. Bilbao plazatik abiatu zen kale-agerraldia eta kale nagusiak zeharkatu zituen. Amaieran, komunikatu bat irakurri zuten. Instituzioei eta bankuei eskatu zieten ez dezatela Taldea "erortzen" utzi, negozio "bideragarriak" daudelako. Hala, alde guztien inplikazioa eskatu zuten; eta Juan Zelaiari, itsason-

tziazen lema aldatzeko. Langileek adierazi zuten egungo zuzendaritzaren kudeaketak eraman dituztela egoera honetara.

Zapatu honetan, hilak 29, Oñatin egingo dute beste manifestazio bat. Manifestariak Herriko Plazatik abiatuko dira 12:00etan.

Batzarra, egubakoitzean

Bestalde, egubakoitzean, Cegasarako lan erregulazio espedientearen baldintzak negoziatzeko mahaia osatzeko batzarra egin zuten. Lan-

gileen ordezkariak bakarrik izan ziren bileran, ez zen zuzendaritzaren ordezkariarik izan. "Esan digute guk geuk osatzeko mahai hori, komeni zaigun moduan", adierazi zuten LAB sindikatutik. Eta halaxe egingo dute. Oñatitik hiru ordezkari parte hartuko dute: LAB-eko bik eta ESK-ko batek. Egubakoitz honetan dute lehen batzarra, Gasteizen. Oñatiko ordezkariekin batera, Gasteizkoek ere osatuko dute mahai hori. "Uste dugu orduantxe emango dizkigutela azalpenak".

lau oinarriekin: fiskalitatea, egitura politikoaren demokratizazioa, babes soziala eta lan munduaren arautzea. Gaineratu zuen, Bigarren Mundu Gerraren ostean, sobietar eredu Europa osora zabaltzeko mehatxuaren aurrean hartutako erabakia izan zela lau oinarri horiek finkatzea, baina aurrera begira desmontatzeko asmoz. Hala, egungo murrizketa eta erreformak horren baitan ulertu behar direla dio Juradok. Desmuntatzea hori faseka egin dela gaineratu zuen: 90eko hamarkadan ekin zioten, 2000-2010era bitarte egin zuten bigarrena eta orain hirugarren fasean egongo ginateke, haren esanetan. Instituzioek kapitalari aurre egiteko mugak dituztela ere esan zuen. Horrela, berak komunitatean aurre egitea proposatzen du. Hau da, eredu mikro-ekonomikoak sortzea. Horiek eratzeko klabeak ere eman zituen, esaterako, dirua denbora bonoeraz ordezkatzea.

Hurrengo zita apirilaren 4an izango da elikadura subirautearen inguruan, Oñatiko gaztetxean. Dokumental bat ikusteko eta bai-larako nekarazien esperientziak entzuteko aukera egongo da.



Nekane Jurado, hitzaldia eskaintzen, Arrasateko gaztetxean. | IMANOL SORIANO

Jurado: "eredu ekonomikoa, komunitatetik aldatu"

Hori proposatu zien Nekane Juradok Ernaikoei, Arrasateko gaztetxean eginiko hitzaldian

I.G. | ARRASATE

Debagoieneko Ernaik otsailaren 15ean abiatu zuen *Hazi, Hezi, Izan* dinamikaren baitan, hainbat hitzaldi eta ekintza antolatu dituzte. Bada, asteburu honetan izan dute horietako bat. Ekonomia

aditu Nekane Jurado izan zen Arrasateko gaztetxean berbaldia eskaintzen, egubakoitz iluntzean. 30 gazte batu ziren.

Egungo ongizate estatua Bigarren Mundu Gerraren ostean sortu zela adierazi zuen Juradok,

Erabakitzeko eskubidearen alde, Aramaion, Bergaran eta Arrasaten

I.G. | DEBAGOIENA

Euskal Herriko beste hainbat herritan egiten dabilzan bezala, erabakitzeko eskubidearen aldeko adierazpenak egin dituzte asteburu honetan gurean ere. Hala, Gure Esku Dagok antolatuta, ekitaldiak egin dituzte Arrasaten, Bergaran eta Aramaion. Guztietan ere jende asko batu da; ideologia eta pentsamolde ezberdinetako jendea.

Atxikimenduak, hiruretan

Aramaion egubakoitzean egin zuten ekitaldian Sastiñako Udaberriko Adierazpena irakurri zuten. Hala, adierazi zuten: "Sastiñan, udaberria urratu berri, batu garen aramaioarrok erabakitzeko eskubidearen aldeko lanean elkarrekin jardungo dugu". Sinadura bilketa eta talde argazkia ere egin zituzten.

Bergaran, zapatuan egin zuten ekitaldia udaletzeko oso bilkuren aretoan. Honako puntuetan bat egin zuten bertan batutakoek: "Herri bat gara; gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea dugu; eta euskal herritarro dagokigu erabaki hori". "150 atxikimendu inguru batu ditugu eta oso pozik gaude", adierazi zuten antolatzaileek.

Arrasaten ere jendetza batu zen atzo herriko plazan. Talde argazkia atera zuten bertan eta, horretaz gain, kamisetak eta metroak saltzeko postua ere jarri zuten.

Argazkiak ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Arrasateko herriko plazan atera zuten talde argazkia, atzo. | IMANOL SORIANO



Bergaran herritarrok adierazpena sinatzen, osoko bilkuren aretoan. | I.G.



Aramaion, jendea adi, Sastiñako Udaberriko Adierazpenari. | IMANOL SORIANO



Ordaindukoak Mondragón Taldearen egoitza nagusian, joan den egunean. | I.G.

EH Bildurekin batuko dira Ordaindukoak Gasteizen

Eusko Legebiltzarrera joango dira eguaztenean

IRATI GOITIA | OÑATI

Eguaztenean, hilak 26, Gasteizera joango dira Ordaindu plataformakoak. EH Bilduko ordezkariekin batuko dira Eusko Legebiltzarrean. "Gure egoerarekiko EH Bilduren jarrera zein den jakin nahi dugu", dio Mikel Olabe plataformako kideak.

Donostiara bi irteera

Apirilaren 3an Martin Garitano ahaldu nagusiarekin elkartzeko dira. "Gure arazo berri eman nahi diogu. Horretaz gain, galdetu nahi diogu ea prest egongo litzatekeen Mondragón Taldearen eta gure artean bitartekari lanak egitera", zehaztu du Olabek.

Bazkideak plataformakoen manifestua

Fagorreko langile kaltetuen Bazkideak plataformak manifestu "errebindikatzaila" kaleratu du. Bertan diote azken astean egoeraren analisi bat egin eta gero, euren egoera "oso larria" dela ondorioztatu dutela, eta hori gizartearen aurrean ikusarazteko eta hemendik aurrera jarraituko duten ildo definitzeko idatzi dutela manifestu "errebindikatzaila".

Testuan honakoa gaineratu dute: "Oso positibotzat jotzen dugu gizartea gure benetako egoeraren jakitun izatea. *Etokizuna denontzat* deitu dugu manifestua, azken finean hori da eta errebindikazioaren muina".

"Egoera larria da; guztion artean hobetu behar da"

Manifestuan lau eskaera egiten dituzte: pertsona guztien eskubide eta betebeharrak, erreferentzia integral baten sorrera, etengabeko prestakuntza

integrala eta kooperatibismoaren egungo deribaz hausnartzea.

Amaieran hau gaineratzen dute: "Okerreko estrategiak, gardentasun falta, kudeaketa txarrak, ezkutaturiko erantzukizunak... Sinesgarritasun falta eta indibidualismoa esperientzia kooperatibistako bidaian ekipaje txarrenak dira. Hobetu beharreko gauza asko daude, eta guztion artean egin behar dugu, gure erantzukizuna delako eta horretarako eskubidea dugulako".

Gaineratu du plataformako kideek Mondragoneko ordezkariarekin elkarrizketa eta komunikazioa izan nahi dutela bizi duten egoera konpontzeko: "Baina ez digute kasurik egiten". Hain zuzen, Olabek dio Mondragón Taldeko Batzorde Iraunkorreko kideekin batzeko egin zuten eskaeraren erantzunik ez dutela jaso oraindik.

Bestalde, apirilaren 5ean, Laboral Kultxak batzar nagusia du Donostiako Kurasaalean eta bertara ere joango dira. "Kanpoan

izango gara gure eskakizunak entzun ditzaten".

Ekintzak gogortu

Astero, eguenean egiten duten protestaldiari dagokionez, aste honetan manifestazioa egingo dute, 18:00etan irtenda. Iturriotz kaleko Laboral Kutxara joango dira. Ondoren, baita Mondragón Taldeko zuzendaritzako kide baten etxera ere. "Ez digute entzuten; beraz, gure ekintzak gogortzen joango gara. Ordaindu arte borrokan jarraituko dugu".

"Europa mailako First Tech Challenge irabazteko aukerak ditugula uste dut"

Lehian izango dira Mondragón Goi Eskola Politeknikoko Lanbide Heziketakoak

I.G. | ARRASATE

"Joan zen urtetik hona asko ikasi dugu eta nik uste dut Holandan irabazteko aukera izan dezakegula", dio Jabier Arkauzek, Mondragón Goi Eskola Politeknikoko Lanbide Heziketako informatikako irakasleak. Zapatu honetan, hilaren 29an, Holandan jokatu den First Tech Challenge Robotikako Europako lehiaketako finalaz dihardu. Izan ere, bertan izango da Mondragón Goi Esko-

la Politeknikoko Lanbide Heziketako ikasle eta irakasle talde bat: Robotek. Guztira 11 ikasle eta lau irakasle osatua.

Robota Holandara bidean

Ikasleek robot bat diseinatu, fabrikatu, muntatu eta programatu behar izan dute. "Hasieran ez genuen ideiarik ere, baina poliki-poliki hartu diogu esku", dio Gorka Egaña, ikasleak. Gaur bidali dute robota Holandara eta

egubakoitzean egin zizkieten azken ukituak. "Lehiatuko garen unera arte ezin izango diogu aldaketarik egin. Beraz, zerbait gaizki badago, berandu izango da", zehazten du. Bera izango da lehian robota gidatuko duena: "Ardura handiagoa izango da".

Iaz Europako txapeladun

Gainera, maila altu dute. Izan ere, Robotek taldea da egungo txapeladuna, aurreko urtean Europako txapelketa irabazi zuten-eta. Horri esker, Ameriketako Estatu Batuetan egin zen munduko finalean parte hartu zuen. "Iaz maila oso altu utzi zuten, eta zaila izango da berdintzea", dio Egañak. Eguenean robota aurkezteko egin zuten ekitaldian, baina, dena ondo irten zen.

"Lehiaketan parte hartzea bai, baina helburua robota egiteko prozesuan ikastea da: nola diseinatu horrelako robot bat, osagarri ezberdinak nola komunikatu elkarren artean, programazioa nola egin... Irabaztea baino, garritsuagoa da prozesu guztian ikasitakoa", zehaztu du Arkauz irakasleak. Egubakoitz honetan irtengo da irakasle eta ikasle taldea Holandarantz.



TXOMIN MADINA

Permach eta Urizar, Bergaran

EH Bilduk Debagoiengan antolatutako hitzaldi sortaren baitan, Joseba Permach eta Pello Urizar Bergaran izan ziren eguenean. Hitzaldian, koalizioak planteatzen duen alternatiba sozioekonomikoa azaldu zuten. Besteak beste, adierazi zuten azken urteotan EAJK eta UPNk bultzatutako eredu makroproiektuetan oinarritu dela eta horren aurrean "ekonomia erreala" bultzatzea proposatzen dute.

Paul Rios, Jesus Loza eta Iñaki Hernando hizlari bihar Arrasaten egingo den solasaldian, 19:00etan

Arrasate-Bergarako Artzapez Barrutiak antolatuta mahai-ingurua egingo dute bihar, martxoak 25, Arrasateko San Frantzisko elizan, 19:00etan. Mahai-inguruan hizlari izango dira: Lokarriko Paul Rios, F. Buesa Fundazioko kide Jesus Loza eta Egiari Zor Fundazioko Iñaki Hernando. Beraien testigantzetan oinarrituko da mahai-ingurua. Bakea eta Adiskidetzeta izenburupean antolatutako hitzaldi sortaren baitan kokatzen da ekitaldia. Lehena joan zen astean egin zuten Oñatin.



Mondragoneko Lanbide Heziketako ikasleak robota maneiatzen. | I.G.

Gaztenpresak 265 enpresa bultzatu ditu, 2012an baino %25,5 gehiago

laz sortzen lagundu zituen enpresek, denetara, 458 lanpostu dituzte

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Laboral Kutxaren Gaztenpresa Fundazioak 265 enpresa sortzen lagundu zuen 2013an. Enpresa horiek 458 lanpostu sortu zituzten guztira.

Gaztenpresa Fundazioaren 2013ko jardueraren eta fundazioaren memoriaren berri eman zuren Xabier Egibarrek, Gaztenpresa Fundazioko presidentek; Ricardo Barkalak, Enplegu eta Gizarte gaietako sailburuordeak; eta Inmaculada Ramosek, Gaztenpresa Fundazioko zuzendariak. Joan den martitzenean izan zen prentsaurrekoa, Laboral Kutxak Bilbon duen egoitzan.

Bi zati izan zituen prentsaurrekoak; lehenengoan, ekonomia testuingurua eta aurreikuspenak azaldu zituzten, eta segidan, Gaztenpresa Fundazioaren berri eman zuten, testuinguru horretan.

Datu deigarrien artean hauek eman zituzten: Gaztenpresak %25,5 enpresa gehiago finantzatu zituen iaz 2012an baino, eta inoiz baino diru gehiago eman zuen horretarako: 5.902 milioi euro baino gehiago. "Horrek Eus-

kadiko fundazio lider bihurtzen du Gaztenpresa enpresa-ekintza berriak babesten", esan dute arduradunek. Bere ibilbide osoan, Gaztenpresak 3.000 enpresa baino gehiago sortzen lagundu du, eta horiek 6.000 lanpostu baino gehiago sortu dituzte.

2012an, 211 enpresa bultzatu zituen Gaztenpresak, eta horiek, denetara, 389 lanpostu sortu zituzten.

38 urteko emakumea

Iazko ekintzaileen profila marraztu zuten gero. Erdiak baino gehiago (%53) emakumeak dira, eta %47, gizonezkoak. Batez beste, 38 urte dituzte ekintzaileak, eta %30ek unibertsitate mailako ikasketak dituzte. Enpresa berri gehienak (%59) zerbitzu sektorekoak dira; %35 komertzioak dira, eta %6, beste sektore batzuetakoak. Batez beste, ekintzaile bakoitzak 52.700 euro inbertitzen ditu, eta batez besteko mailegua 38.100 eurokoa da.

Enpresa gehienak Bizkaian sortu dira: 103, eta 180 lanpostu. Gero Gipuzkoa dago: 71 enpresa

eta 117 lanpostu. Oso alde txikia du Arabarekiko: 65 enpresa eta 116 lanpostu. Nafarroan 26 enpresa eta 45 lanpostu sortu ziren.

Enplegua sortzearen eta hura sendotzearen garrantzia ere azpimarratu zen prentsaurrekoan. Alde horretatik, Gaztenpresa Fundazioak sendotze-tailerrak, seminarioak, sare soziala eta Consulting Pro erremintak ere badituela nabarmendu zuten. Gaztenpresari esker sortu diren eta orain bere burua merkatuan sendotu gura duten enpresei dago zuzenduta. Bada, iaz, 46 tailer

eta mintegi eman zituen Gaztenpresak, 1.079 parte-hartzaile izan ziren, aholkularitza presentziala eman zuen 49 kasutan eta Consulting Pro erremintak 421 kontsulta atenditu zituen 2013. urtean, enpresen eta autonomoen premiei egokitutako irtenbideak emateko.

Etorkizun itzaropentsua

Datu horiek guztiak ekonomia testuinguru "itzaropentsu" baten kokatu zuten arduradunek: "Munduko ekonomia-gune nagusietako Barne Produktu Gordinak

zifra berdetan egongo dira 2014an. Munduak hazkundearen biderei eutsi dio berriz", esan zuten, gogoratuz, halere, mundu osoan 200 milioi langabe baino gehiago utzi dituela krisiak, eta "seguruenik handitu" egingo dela zifra datozen urteotan.

Edozein modutan, hazkundeari esker, krisitik irteera geratu dagoela aurreratu zuten.

Arrisku batzuk ere aipatu zituzten: AEBen *tapering*-a pixkana-pixkana bukatzea, hau da, hazten dabilzan ekonomiei azken urteotan ematen zizkien diru-injekzioak kentzen joatea; eta Txinaren ekonomia erritmo motelagoan haztea orain lehen baino.

Hala ere, "orekak jarraitu" egingo duela eta "hasitako prozesua arrakastaz bukatuko" dela uste dute arduradunek.

%0,8 haziko da ekonomia

Euskadin eta Espainian, "urte onetan pilatu diren arazoek krisitik beranduago irtetea ekarri" dutela esan dute, baina "zerga kontuetan egin diren ahaleginek eta hasi diren erreforma estrukturalak fruitu ematen hastea espero" dutela esan dute. Hori horrela izanda, "2015ean, enplegu garbia sortzen hasiko da" ekonomia, Gaztenpresa Fundazioaren esanetan.

Horrenbestez, 2014an Euskadiren ekonomia %0,8 eta Espainiarena %0,6 haztea espero dute, baina horrek "langabezia tasari oso gutxi" eragingo diola esan dute.

DATUAK

5,9

MILIOI EURO

laz, inoiz baino diru gehiago eman zuen Gaztenpresak ekintzaileei enpresa sortzen laguntzeko: 5.902 milioietako marka gainditu zuen.

6.000

LANPOSTU

Jaio zenetik, 1994an, Gaztenpresak 3.000 enpresa sortzen lagundu du, eta horiek, denetara, 6.000 lanpostu sortu dituzte.



Hezkuntzan, gastuari eutsi diote euskal familiek. | ZVDM

Krisi hasieran baino %13 gutxiago gastatzen dute familiek Euskadin

L.K. | ARRASATE

Euskadiko familiek, batez beste, 33.118 euro gastatu zituzten 2012an, 2006an baino %13 gutxiago. Gastuaren herena etxebizitza, ura, elektrindarra, gasa eta erregaia ordaintzeko erabili zituen. Horiek dira Eroski Consumerrek familien gastuaren gainean egin duen txostenaren emaitza batzuk. Euskadi eta beste 16 erkidego aztertu ditu.

Espainiako batez bestea baino %18 gehiago gastatzen dute euskal familiek; bakarrik Madrilen dago batez besteko handiagoa.

Krisi hasieran oraindik asko gastatzen zela erakusten du

ikerketak: 2008an jo zuen goia gastuak -34.200 euro familia bakoitzeko.

Etxebizitza eta gero, gastu handiena jatekoak, arropa eta zapatak eta osasun gastuak dira: 7.100 euro denetara. Hirugarren multzoa aisialdia dago: 5.880 euro, eta azkenik, hezkuntza, garraioa eta komunikazioak, 4.680 euro.

Krisian ere, etxebizitzako gastuak kontrolaezinekoak direla agerian geratzen da: 2006tik 2012ra bitartean, gastu hori %26 handitu da. Gastu gehien murriztu dute, berriz, garraioan (%24 gutxiago), arropan eta zapatatzen (%22 gutxiago) eta aisialdi eta kulturaren (%17 gutxiago).

2012an baino %12 enpresa gehiago izango dira biurtekoan, baita Debagoienekoak ere

Ekainean izango den arren, dagoeneko 940 enpresak eman dute izena

L.K. | ARRASATE

Ekainean 2tik 7ra egingo da Barakaldoko BECen Makina-Erremintaren Espainiako Biurtekoa, eta bistan da enpresen artean piztu duen interesa, dagoeneko 940 enpresak konfirmatu dute eta parte hartuko dutela. Aurten 28. aldiz egingo da makina-erremintaren biurteko hori, bere sektoreko garrantzitsuenetariko bat.

Han izango direla baieztatu duten enpresen artean, Debagoieneko ordezkari polita dago: hain zuzen, 11 enpresak eman dute izena. Hauek dira: Danobat S. Coop (Bergara), DanobatGroup S. Coop (Bergara), Fagor Arrasate (Arrasate), Fagor Automation (Arrasate), Soralue S. Coop. (Bergara), Num CNC Highland Applications, SA (Oñati), Oerlikon Balzers (Antzuola), Sisteco SL (Elgeta), Sitalu 2001 SL (Bergara), Talleres Filber SL (Bergara) eta Tecnología y Sistemas para EDM (Tecnosystem) (Bergara).

Iazko hazkundeari eutsi

Antolatzaileen esanetan, oraindik azoka egiteko hilabeteak falta badira ere, "partaidetza, aurreko edizioako aldi berari dagokionez, %12 inguru handitu da". Horre-



2012ko biurteko irudi bat; Soralucren postua ikusten da. | BIEMH

tan zerikusi handia izan du, adierazle handi gehien arabera, krisi teknikoa bukatu izanak: "Merkatua norabide onetik doan eta oneratzera forma hartzen dabilen neurrian, kontratazioa ere garatzen dabil eta aurreikuspenak onak dira".

Aztarnak oso onak dira. BEC-eko Marketin zuzendari Mario Goffard-en esanetan, euskal maki-

na-erremintak iazko erritmoan jarraituko du hazten. Iaz, 1.400 milioiko ekoizpena egin zen Espainian eta Euskal Herrian, 2012an baino %5 gehiago.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako makina-erremintaren renove plana arrakasta hutsa izaten dabil, eta laguntza horiek ere biurtekoarendako bultzada izan dira.

Leire Ibarretxe | Biolurreko teknikaria

"Baratzean zenbat eta laborantza gehiago landatu, orduan eta arazo gutxiago emango ditu"

- ▶ Biolur elkarteak Bergaran du Gipuzkoa osoari zerbitzua ematen dion bulegoa
- ▶ Ekoizpen ekologikoak egiten dituztenendako aholkularitza eta heziketa zerbitzuak ditu

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Gipuzkoan nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sustatzea helburu duen elkarte da Biolur. Bergaran du egoitza nagusia. Leire Ibarretxe da hango teknikarietako bat.

Udaberrian gaude. Lurra prestatu eta landatzeko garaia heldu da?

Eguraldiaren arabera. Baina bai, sasoi oraintxe da. Lurraren tenperaturak gora egin ahala, lurra girotzeko garaia da, bai. Bai nekazaritzan bai albertzaintzan, ongari lanak egiteko, adibidez.

Nola prestatu lurra? Zer egin behar da horretarako?

Jardueraren arabera, prestaketa modu batekoa edo bestekoa izango da. Dena dela, garrantzitsua da lurra girotua egotea. Horrek esan gura du lurteko bizitza mikrobianoa martxan hasi dela eta hori gertatzen da lurra ez hotza ez oso bustita dagoenean. Hori errespetatzea oso garrantzitsua da; bestela, lur hori ez dago girotuta. Askotan egiten den akatsa da hori, girotu gabeko lurra landatzea.

Lurra girotuta dagoenean aitzurto eta ongari mineralak behar balitu, horiek eman. Kareztatuz gero, baina, hilabete itxaron behar da konposta edo zimaurre botatzeko.

Eta sasoiaren sasoiak gero?

Bai, hori da. Orain patatak, tipulak eta tipulinak; martxo bukaeran letxugak, udaberriko espina-kak, kogolloak, azelgak edo erremolatxak, adibidez, eta maiatzean etorriko da landare zorrotzenak sartzeko garaia: piperrak, tomateak, kalabazak, kalabazinak, lekak eta babak, esaterako.

Nola mantendu baratza?

Landatu berri horretan, belarra zaindu. Garrantzitsua da belarrak ez itotea landarea, eta behin indarra hartuta, ez dago sekretu handirik.

Zertara joaten dira herritarrak Biolurren elkarte bulegora?

Bi bazkide mota ditugu: batetik, baserritarrak direnak, ekoizpen ekologikora dedikatzen diren profesionalak eta ez profesionalak. Eta bestetik, etxerako baratza duten herritarrak.

Lehen bazkide motari arreta gehiago eskaintzen diegu. Hau da, arazoren bat badute aholkularitza zerbitzua ematen diegu baina taldeko lana ere egiten da eta lan ildo nagusiak finkatzen laguntzen diegu. Bestalde, etxerako baratza dutenak ere etortzen dira eta horien kezka, normalean, telefonoz edo e-postaz lantzen ditugu.



Leire Ibarretxe, nekazaritza bulegoaren sarreran, Bergaran. | O.E.

Zeintzuk izaten dira lehen taldekoen kezka nagusiak?

Baratza dutenak ez ezik, abeltzainak, frutazainak eta okinak ere baditugu Biolurren, taldeka antolatuta. Ni neu baratza lantzen dutenekin egoten naiz batez ere, eta horien kezka nagusiak dira landare eta hazi ekologikoen horniketa lortzea, adibidez.

Ze zerbitzu eskaintzen die Biolurrek?

Aholkularitza gain, formazioa ere ematen diegu. Adibidez, negutegiak nola kudeatu ikasteko

"Lurra girotuta egotea ezinbestekoa da landaketa egiteko"

"Ekoizpen ekologikoa egitea ez da arraroa, oinarriak ondo jartzea da"

formazioa antolatu dezakegu edo baita etxean haziak nola lortu ikasteko ere. Bestalde, euren kezka orokorren gaineko pautak ere ematen dizkiegu eta gaitz konkreturen bat nola tratatu esan ere bai, tratamendu ekologikoarekin beti ere, noski.

Zer da tratamendu ekologikoa?

Saiatzen gara oinarria ondo egiten, baina arazo konkreturen baten aurrean eman beharreko tratamenduak ere lantzen ditugu; naturalak, hori bai, ez kimi-koak.

Debagoiengan, askok egiten dute ekoizpen ekologikoaren alde?

Batez ere baratze ekologikoaren alde egiten dutenak, inbertsio gutxiago eskatzen duelako.

Natura ahalik eta ondoen zaindu gura duten herritarrak dira ekoizle hauek, eta formazioari garrantzi handia ematen diotenak.

Ekoizpen ekologikoari errezeloak diotenak ere badaude.

Ekoizpen ekologikoa ez da arraroa den zerbait. Oinarriak ondo betetzea da, eta sistema biodibertsifikatuak erabiltzea. Modu horretara, arazo gutxi egoten dira. Urte guztian baratzean hiru laborantza jarri edo 30 jarri, ezberdina da. Manejatzen zailagoa izan daiteke, baina arazo gutxiago ere emango ditu.

Baserriaren sektorea ahula da, orokorrean, eta kutsaduraren inguruko arazoa globala da. Eta zer egin dezakegu, kutsatzen jarraitu edo norberak norbera netik apurtxo bat jarri?

Badago produktu ekologikoak kontsumitzeko ohiturarik gurean?

Baratzeko produktuetan batez ere, bai. Abeltzaintza jakiena ere bai, baina horien salmenta konplikatuagoa da. Orain sortu den Erein da Jan egitasmoa ere erakusleho ona da.

Nola ikusten dituzte administrazioek produktu ekologikoak?

Ez da euren erabateko apustua baina aurrerapenak egin dira.

Zer da Ekolapiko proiektua?

Ekolapiko, bertako eta sasoiak elikagai ekologikoak menu orekatu baten bitartez ikastetxeetako jangeletan txertatzeko egitasmoa da. Egun Gipuzkoako 9 ikastetxetan txertaturik dago eta ikastetxe hauek hornitzeko 12 ekoizle ekologiko arduratzen dira. Baratzezainak, abeltzainak eta okinak; guztiak Biolurreko kideak. Helburua da bertako produktu ekologikoa bertan kontsumitzea, ekologikoen kalitatea azpimarratzea eta elikadura ekologiko bat hemen bertan aurrera eramatea posible dela erakustea. Familiekin gainera sentsibilizazio jarduerak egiten ditugu, hitzaldi sukaldaritza tailer edo ekoizleen baserriak bisitatuz. 6-7 urtetako iberbide honetan, balorazio positiboa egiten dugu.

Zer egin behar du bailarako ikastetxe/lantegi batek zerbitzu hori emateko?

Ikastetxeetara bideratuta dago. Baldintza bat da sukalde propioa izatea eta honen kudeaketa ikastetxearen esku izatea. Gurekin berba egitea da egokiena.

ZABALIK

ANDONI GOMEZ
goiena.net/komunitatea/



Bitcoina

Ugariak dira gizakiak mugiarazten dituzten faktoreak. Esanguratsuenetako bat beldurra da, baina dirua ezin dugu ahaztu. Gizartean duen eragina inoiz baino nabarmenagoa da eta horrelako kasuetan mugimendu edo erreazio ezberdinak sortzen dira. Horietako bat bitcoina da.

Bitcoina 2009. urtean sorturiko txanpon birtuala da, eta, ordenagailuan programa bat instalatuz, diru-zorro birtual bat izango dugu, hauek gorde eta elkartrukatu ahal izateko.

Bitcoinak lortzeko bi modu ezberdin daude: erosiz edo sortuz. Txanpon asko sortu nahi izanez gero, Google edo Facebookek erabiltzen dituzten super ordenagailu guztiak martxan jarri beharko genituzke. Ohiko erabiltzaileok, asko jota ordenagailu pare bat dauzkagunez, erosketa edo trukearen bidez besterik ezin izango dugu lortu. Euroak bitcoinengatik aldatuz edo salmenta bitartez (adb: kamiseta bat 5 bitcoinen ordez).

Txanpon birtual hau enkriptaturik dago; segurtasun maila bat du. Hau da, bitcoina lapurtzea edota nahi adina sortzea ia ezinezkoa izango da. Gainera, dezentralizaturik dago; beraz, nork bere ordenagailuan gordetzen ditu eta ez dago bitartekorik trantsakzioetan, bankuen papera ezabatuz.

Esan genezake txanpon honen balioa ez dagoela inongo enpresa, banku edo estaturen menpe. Alde onak dituela antzematen da, baina txarrak ere badaude. Segurtasun maila bat dauka, baina ez dakigu zelakoa den edo noiz arte eutsiko duen.

Ez da moneta fisikoa, ezin da ukitu ezta lehen bezala koltxoi azpian gorde. Horregatik, eta orain arte, bitcoina sortzailea nor den ez dakigunez, nolabaiteko mesfidantza ere sortzen du.

Momentuz, indarrean dagoen arren, ez dauka presentzia handirik gure artean, baina nork daki etorkizunean ekonomia mundua aldatuko duen kontzeptua izango ote den.

Bada, bien bitartean, ez dago gaizki azken sorrera hauen berri izatea...

"Txanpon birtual hau enkriptaturik dago, segurtasun maila bat du"

USTEAK USTE

INAZIO ARREGI | iarregi@goiena.com

Orain Krimea; hurrengoa?

Krimearrek Errusiako federazioarekin bat egitea erabaki dute. Mendebaldeak ez du erabakia gustuko eta erreferenduma ez dela legezkoa dio. Legezkoa 1954an Sobiet Bata-suneko presidente Nikita Khrushchevek Krimea Ukrainan integratzeko hartutako erabakia izan zen. Orduan inork ez zien krimearrei galdetu, baina legearen babespean hartu zen erabakia. Orain, erreferenduma ez omen da legezkoa, baina, albisteen arabera, erabakia herritarrek demokratikoki eta gehiengo handiz hartutakoa izan da. Zerk behar luke indar gehiago, herritarrei bizkar emanda egindako legek ala herritarren erabaki demokratikoa legeen babesik ez izan arren? Erantzuna? Geopolitikak.

KALE INKESTA

Mungiako erailketaren ostean, zelan ikusten duzu egoera?



SANTOS
AIASTUI
OÑATI

"Oso albiste tristea da, noski. Horrelako gauzak ikusita, argi dago gizonak eta emakumeak oraindik ez garela berdintasunean bizi gaur egun".



LADY CLAUDIA
FRANCISCO DA SILVA
OÑATI

"Mutil askok oldarkor jokatzeko dute neskekin, eta, nire ustez, justiziak arreta handiagoarekin lan egin beharko luke gai honen inguruan".



MARILU
GURIDI
OÑATI

"Tamalgarria da, eta honelakoek erakusten digute asko dagoela egiteko gizonak eta emakumeak berdintasunean bizi izateko".



CARMEN
URTEAGA
OÑATI

"Gaizki dago norbait erailteza, eta norberaren lagunak erailtzen badu, okerrago. Emakume asko hil dira gizonen eskuetan. Ez dago eskubiderik".

HANDIK ETA HEMENDIK

Horroren museoa

Aritz Galarraga
berria.info/blogak/ekografiak/

Ez, lasai, ondo nago. Gogorra izan da, baina onik atera naiz. [...] Estreinakoa, nire perbertsioaren muga horraino iristen da. Eta soilik jakiteko parte hartzaileak nortzuk ziren, eta, batez ere, nolakoak. [...] Akaso aurreko aldietakoa, areagotuta. Labur: horroren museoa.

Test modura planteatuko dizuet *Supervivientes 2014*-ko lehiakideen aurkezpena. [...] 1.- Katia Aveiro, Cristiano Ronaldo futbolari maitagarriaren arreba. 2.- Anabel Pantoja, Elgoibarko gauak betetzen dituen Kiko Riveraren lehengusina. 3.- Leo Margets, poker jokalaria [...] 4.- Rafa Lomana, izan zitekeen Gloriarena, baina —Zorionez? Zoritzarrez?— Carmenen anaia. 5.- Aran Aznar, Paco Marhuendaren hitzetan Espainiak sekula izan duen presidente onenaren iloba [...]. 6.- Chiqui (sic). 7.- Abraham Garcia, *Gandia Shore*-ko partaide ohia —testosterona ibiltari bat, alegia—. 8.- La pelopony —en fin,

komentariarik gabe—. 9.- Diego Matamoros, Santiago ospetsu haren semea ez, baizik eta Kikorena [...]. 10.- A, baina gauza bat eskertu beharko diogu *Supervivientes 2014*-ri, eternamente: telebistarako berreskuratu izana Irungo txinatarrak. Santi Reyes ez, bestea, *Un principe para Corina*-koa —eta ETBk erreflexu gutxi erakutsi du oraingoan ere: tipoari merezi duen saioa oraindik eman ez, eta kompetenziaren eskuetan utzi du harribitxi hain baliotsua—. Ea: 8-10 partaide artean ezagutzen badituzu, bietako bat, edo Arrasateko Osasun Mentaleko zentroan ingresatzeko zaude, edo *Supervivientes 2015*-en parte hartzeko. 5-7 artean ezagutzen badituzu, mesedez, bidali mezu bat, eta psikologo on baten kontaktua pasako dizut. 3-4 izan badira ezagunak, errekuperagarria zara gizartearentzat. 1-2 artean izan badira, hiru Agur Maria errezatu; ez bada nahikoa, zigorkada gutxi batzuk bizkarrean, eta listo. Hamar horietako bat ere ez baduzu ezagutzen, zorionak, bihotz-bihotzez; zu zara benetako superbibiente.

Euskadi Gaztearen hasieran ni ere entzule nintzen

Marijo Deogracias
blogak.goiena.net/marijo/

Gazteak 24 urte bete ditu. Uf! Hori urte mordua pasa direna! 24 urte dira, Alannah Mylesen Black Velvet abestia lehenengoz entzun nuela.

Ze, Euskadi Gaztean entzun nuen. [...]

Biniloa ere erosi nuen, edo, etxekoek erosiko zidaten: Esango nuke, gehien entzun dudana biniloa dela, gainera. [...] Itzela da kanadiarraren lan hori! [...] (Atlantic Recording, 1989).

Alannah Myles eta Euskadi Gaztea lotzen dudana bezala, badira beste ure asko kanta zehatz bat entzun eta gogora etortzen zaizkidanak [...]

Mylesen abestiarekin daukadan oroimena da amaren etxeko balkoian, uda aldean, etxeko cassette zaharra topera jarrita, apunteak inguruan, abeslariarekin txundituta geratu nintzela. 17 urte nituen orduan. Uf! Hori urte mordua pasa direna!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Altor Izagire
Zuzendaria Iban Arantzabal
Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailetako arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Goiatz Arana
Maketzailea Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legedaria: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Debagoiena zuzenean

Gertuko kontuak, bertatik bertara
Txomin Madinak gidatuta eta aurkeztuta

► Egunero, 20:00, 21:00, 22:30 eta 23:50

debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean
debagoiena zuzenean



HERRIAK



Wi-fi gune librea den Elgetako plazan nabigatzen. | L.Z.

ELGETA

Wi-fi gune librea da Elgetako herriko plaza

'Guifi.net'-en bitartez jarri dute; helburua, orain, herrian Internet zerbitzu merkea eta librea zabaltzea da

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Urtebete pasatxo da Elgetako Udalaren ekimenez eta informazio batzar ireki batean GipuzkoaShare-ko Iker eta Asier Garaialdek *Guifi.net* egitasmoaren berri eman zutela. "Telekomunikazio sareak operadore handien esku daude. Ezin ditugu gure telekomunikazioak enpresa pribatuen esku utzi", esan zuten. Udalbatzak oniritzia eman zion 7.260 euroko aurrekontua zuen egitasmoari —Aldundiaren 4.966 euroko ekarpenarekin—, eta gaur egun wi-fi gune librea da Elgetako herriko plaza. Ideia da, oinarrian, Internet konexio bakarra kontratatzea, eta herritar guztiekin partekatzea. Nodo edo errepikatzaile bitartez zabaltzen da seinalea herrian.

Herriko plazan wi-fi librea jartzea lehenengo pausoa besterik ez da, izan ere, asmoa da sarea lehenengo eta behin herri osora zabaltzea, eta hortik aurrera, Gipuzkoa mailakoarekin zein Euskal Herri mailakoarekin konektatzea.

Abantailak

Herritarrek sumatu duten lehen abantaila plazako wi-fi librea da. "Kultura etxean dagoen adsl-tik dago hartua seinalea", azaldu du instalazioa egiten diharduen Asier Garaialdek. "Momentu honetan, abiadura ez da oso azkarra, baina lortzen badugu Elgeta Bergararekin lotzea, orduan, Euskaltelen konexioa ekarriko genuke herri-ira, eta horrek abiadura askoz ere azkarragoa esan nahi du".

Bigarren abantaila da Internet zerbitzua herri osora zabal daitekeela. "Aurretik ez zegoen lekutara eraman daiteke, eta erabiltzaileei prezio sozial batean eskaini". Hori bai, seinalea ondo hartzeko eraikin bakoitzak 350 euro inguruko kostua duten lanak egin behar ditu teiltuan.

'Guifi.net' sarea

Hirugarren abantaila da erabiltzaileen arteko *Guifi.net* sarea.

"Sare librea eta irekia da, eta Internet erabili gabe Internet bitartez egin daitezkeen gauza gehienak egin daitezke —streaming-ak, informazioa partekatu, fitxategiak trukatu, IP bidezko telefonia...—, beti ere, sarea osatzen duten erabiltzaile horien artean", azaltzen du Garaialdek. "Egon daiteke jendea Internet zerbitzua interesatzen ez zaiona, baina *Guifi.net* sarearen bitartez lor dezakeena bere ingurukoekin konektatuta egotea".

Hasiara batean Elgetara mugatuko da sare hori, baina "etorkizun oso labur baten" Bergararekin eta Debagoiena osoarekin egin gura dute konexioa, eta hortik Euskal Herri osoarekin. Garaialdek azaldu du lanean dihardutela Eskoriatzan, Oñatin, Bergaran... eta Goierrin lortu duten hedapen maila azpimarratu du. "Gaur egun, Abaltzisketako erabiltzaile batek lor dezake Tolosako beste batek duen abiadura, eta elkar konektatuta daude. Helburua da Elgeta ere lehenbailehen inguruko herriekin konektatzea".

Uhin elektromagnetikoak eta osasuna

Guifi.net sarearekin lotuta GipuzkoaShareko Garaialde anaiei behin baino gehiagotan egiten zaie galdera: zer gertatzen da wi-fi bidezko instalazioek sortzen dituzten uhin elektromagnetikoekin? Ze ondorio dute gure osasunean? "GipuzkoaShare elkarteak fibra optikoa lehenesten du, baina kostea, gaur egun, handiegia da proiektua bideragarri egiteko. Ezin gara hutsetik fibra optikora pasa", diote. Katalunian oso hedatuta dago sarea, eta behin hedatuta ari dira orain, bigarren fase batean, zuntz optikoa sartzan. Hori guztia operadore handietatik kanpo. "Hemen ere hori lortu behar dugu, baina horretarako sare horren beharraz kontzientziatu behar dugu lehenengo jendea".

ASIER GARAIALDE
GIPUZKOA SHARE

"Herri guztiko etxeetara zabaltzeko ipini dugu sarea"



Hondarribiarrak dihardu Elgetan *Guifi.net* instalazioa egiten. Sinistuta dago aukera handiak emango dituela.

Wi-fi librea Elgetako plazan.

Bai. *Guifi.net*-en bitartez jarri dugu. Ez dugu soilik plazan ipini, herri guztiko etxeetara zabaltzeko sarea ere ipini dugu. Hurrengo pausoa litzateke Debagoiena guztira zabaltzea. Lanean dihardugu.

Ze instalazio egin duzue?

Kultura etxean dagoen adsl-tik dago hartua seinalea, eta kalerrako bereziak diren wi-fi puntuak ipini ditugu. Horren bitartez kultura etxetik plaza guztira zabaltzen dugu seinalea. Gero, herriko beste puntu batzuetara ere zabal daiteke.

Ze abiadura lortzen du seinaleak?

Sareak eman dezake konexioak ematen duena, eta uneotan ez da oso azkarra. Euskalteleko 100 megako konexioa sartzea lortzen badugu abiadura hori ematera iritsi daiteke. Elgeta Bergararekin konektatutakoan Euskalteleko konexioa ekarriko genuke herri-ira. Orduan, askoz ere abiadura azkarragoa lortuko genuke.

Seinalea etxeetara sartzeko zer egin behar da?

Wi-fia zuzenean etxeetara sartzeko oso zaila da hormak-eta daudelako. Dugun aukera da telebistako antena komunitarioak dauden bezala, eraikinetako teiltuetan *guifi.net* antena komunitarioak ipintzea.

Nola funtzionatzen du erabiltzaileen arteko *Guifi.net* sareak? Bada araurik?

Erabiltzaileek ez dute arazorik izango emailak jaso eta bidali, webguneak bisitatu zein youtubeko bideoak ikusteko. Baina konexio partekatua da eta erabilpen arrazionala egin behar da. Ez da egokia erabiltzaile batek edo bik banda zabal gurtia hartzea. Horregatik, normalean moztu egiten dira eMuleak. Aholkatzen dugu P2P konexioak mugatzea.

"Partekatua da; erabilpen arrazionala egin behar da"

BERGARA

Bolari iaioak eta adarjotzaile hobeak Hiru Txirlo Txapelketan

Gipuzkoako txapelketako bigarren saioa jokatu da asteburuan, Bergarako San Joxepe elkartearen



Parte-hartzaile bat jaurtiketa egiten, jendearen begiradapean. | G.A.

GOIATZ ARANA | BERGARA

"Hori da hori jaurtiketa zelebrea!". "Oraingoan, berriz, aurrekoan baino okerrago!". Halako ugari entzun genuen zapatuan Bergarako San Joxepe elkartearen bolatokiak; hori bai, lagun eta umore on giroan. Baina lezioa ikasita bueltatu ginen: bolatokia joan behar da txirloak botatzeko prest eta handiak entzuteko gertu; bigarrenenerako, behar bada, gehiago. Gipuzkoako Hiru

Txirlo Txapelketako bigarren saioa jokatu zuten bertan; Elgeta, Bergara eta Arrasateko jendea ari da parte hartzen.

Ez da oso kirol herrikoia, baina 80-90 bat lagun mugitzen ditu saioa; jende heldua gehienbat, baina baita gazteak eta emakumeak ere. Bergaran zen, esaterako, Euskal Herriko Txapelketa hainbatetan irabazi duen emakumezkoa ere: Olaitz Rodriguez.



Antonio Ibarluzea irabazlea (ezkerrean), antolatzaile batekin. | G.A.

Hiru tiraldi dira, eta bakoitzeko hiru txirloak jotzea da helburua, baina bederatziz jotzea oso gutxitan gertatzen da. Trukorik ez dago, bolatoki guztiak ez dira berdinak, batean era batera bota behar da eta beste batean beste batera... asmatu egin behar da eta esperientziak laguntzen du horretan.

Inguruko jokoa da, ez da beste inon jokatzen, baina bada salbuespenik, atzerrira emigratutako euskal herritar askok eurekin eraman zutelako kirol hau praktikatzeko ohitura; halaxe egin zuten, esaterako, XVI. mendean Venezuelako Andeetara joandako talde batek, eta gaur tradizio handiko jokoa da bertan.

Zapatuan, Arrasatera

Fin ibili ziren zapatuan Elgetako bi taldeetako bolariak: Elgeta A taldeko Antonio Ibarluzea izan zen onena, eta Elgeta Bko Jose Luis Zabalak eta Sebas Arantzabalek hirugarren eta seigarren egin zuten. Datorren asteko saioa Arrasateko Meatzerrekan izango da eta txapelketako saio guztietan ezinbestean erabili beharreko material kutxa -txirlo eta boliduna- bertan da jada. Debagoienean jokatuko den hirugarren eta azken saioa Elgetan izango da, maiatzaren 17an.



ANTOLIN ARIZMENDIARRIETA
MARKINA-XEMEIN

"Euria da, baina gu babesean gustura gaude. Nik neuk ez dut asko asmatu gaur, baina beste batzuk ondo dabiliz. Dena den, itxaropena ez da inoiz galdu behar".



SEBAS ARANTZABAL
ANGIOZAR

"Sei txirlo jo ditut gaur, eta gustura, emaitza polita da. Bigarren saioa bukatuta, bederatziz ditugu orain aurretik; egun pasa joango gara batera eta bestera".



OLAITZ RODRIGUEZ
EIBAR

"Emakumeak berandu hasi gara boloetan, baina sei bat edo bargaude. Ni Eibarkoa naiz eta, elkartearen bolatokia dugunez, txikitatik ibili naiz boloetan".



IGOR LARRAÑAGA
BERGARA

"Niri gaur lan egitea egokitu zait, txirloak zutik jarri eta parte-hartzaileei boloak itzultzea, baina hemen gaude saltsan sartuta, giro onean".



JESUS MARI GOROSABEL
ARRASATE

"Bolaria izaten da normalean umoredun pertsona, adarjotzailea eta egindako hutsak ere ondo hartzen dituena. Bizkaitarrak eta elgoibartarrak bolari onak dira".

BERGARA

Gitarra munduan lehen urratsak ematen

G.A. | BERGARA

Gitarra ikasten eman zuten bergarar talde batek zapatu goiza; Jardun Euskara Elkartearen antolatutako ikastaroan parte hartzerat animatu dira eta zapatuan hirugarren saioa egin zuten. Euretako bat ibilita dago inoiz gitarra eskuetan, baina gehientzako instrumentua jotzen duten lehen aldia da. Gitarra jotzen dutela esatea ere gehiegi izan daiteke oraindik, baina horretan dihardute.

Akordeak ikasi eta oinarri erritmiko batekin kantuak jarraitzeko gai izatea da helburua, baina ez hori bakarrik, baita eskuineko eskuari gora eta behe-eragitetik haratago beste sensibilitate bat garatzea eta gitarrak beste era bateko kantuetarako ematen dituen aukerak ezagutzeko ere, punteatzeak tarteko.

Guztiak ez dira ari gauza berdinak ikasten, ordea. Izan ere, txikienek zail dute sei sokak zapaldu eta indarra egiteko; horregatik, eurekin eta ama batekin talde bat osatu dute, eta hiru sokarekin dabilizta. Nerabeak daude beste talde batean; lotsati antzean eman dituzte lehen bi saioak, baina hirugarrenarekin hasi dira lotsa eta beldurra galtzen. Horren erakusle da datorren asterako kantu bat eskatzeko pausoa eman izana: Lor musika taldearen *Zure doinua* aukeratu dute.

Datorren zapatuan izango da hori. Baina, bien bitartean ere, euskal kantuekin jardun dute, eta tartean baita abesti instrumentalen batekin ere. Haur, gazte eta heldu, gogotsu daude guztiak, eta hori da, gauza guztietan moduan, garrantzitsua.



Bi orduz, kontzentratuta jardun zuten ikasleek. | IMANOL SORIANO



Goizean garbiketa egin zuten auzolanean. | IMANOL SORIANO



Gazteek herriko tabernak girotu zituzten iluntze aldera. | I.S.



Giro ederrean egin zuten bertso afaria. | I.S.

ELGETA

Auzolanean eta festa giroan ospatu dute gaztetxearen urteurrena

Goiz eta arratsaldean auzolanean ibili ostean, triki-poteoa eta bertso afaria egin zituzten

M.B. | ELGETA

Auzolan eta festa giroan ospatu zuten zapatuan Elgetan gaztetxearen 18. urteurrena. Goizean, gaztetxea txukuntzen ibili ziren auzolanean, eta bazkal orduan indarrak hartu ostean, lanera itzuli ziren. Baina eguraldiak hasierako asmoak zapuztu zituen: neguko denboraleek teiltuan eragindako apurketak konpontzeko asmoa bazuten ere, euriak gogoz ziharduen.

Horren bueltan, gaztetxeko kide Janire Lazkanok honakoa azaldu zigun: "Normalean udan ibiltzen gara teiltua konpontzeko lanetan, baina aurten beharra dago ahalik eta bizkorren konpontzeko". Teiltua konpontzerik ez, baina zereginik

ez zen falta izan. Garbiketa lanekin jarraitu zuten, sistema elektrikoa berri eta baita gaueko afarirako guztia gertatu ere.

Lanaren ondotik, esan bezala, jaia iritsi zen. Iluntzean talde ederra irten zen triki-poteoan, eta egunari amaiera borobila emateko, 23:00ak aldera, bertso afaria egin zuten 25 bat lagunek gaztetxean. Jarraian, Julio Soto eta Unai Gaztelumendi bertsoari saio bikaina eskaini zuten mahaiaren bueltan.

18. urteurrenean, hausnarke-ta prozesua ere egingo dute gaztetxean. Apirilean hasiko dira estatutuak aldatzeko batzarrak egiten eta herritarren ekarpenak jasotzen, gaztetxeari bultzada emate aldera.



Bedoñaberen elkartutako umeak ludotekan egindako eskulanak erakusten. | MAIDER ARREGI

ARRASATE

Datorren urtera arte agurtu dute ludoteka ibiltaria Bedoñaben

Otsailean Musakolan eta martxoan San Andresen eskaini dute zerbitzu hori

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Zapatuan agurtu zuten Arrasateko San Andres auzoko Bedoñabe herri eskolan aurtengo ludoteka ibiltaria. Eguraldiak larregi laguntzen ez zuenez, barruko jolastokian ibili ziren lehenengo umeak, eta jarraian, sormena landuz eskulanak egin zituzten.

Urtero bezala, Musakolan eta San Andresen egin dute ludoteka ibiltaria. Azken auzo horretan martxoan izan da, eta besteak beste, Aratustek eta Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu dituzte han; adin diferentetako 15 bat umeak parte hartu dute horietan.

Musakolan sukaldetan

Musakolan, osteran, otsailean izan zen ludoteka ibiltaria, eta han 30 haur eta gazte inguru ibili ziren lau asteburuetan. Guraso edo



Txikitxoak jolasean. | AMAIA GARAI

arduradunak ere animatu ziren saio horietan parte hartzeri, eta oso giro politetan joan ziren. Aste-oro zerbait sukaldatzen zuten, gaztetxekoan bertan sukalde ederra dagoelako: hala nola, mada-

lenak, bizkotxoa, pizza eta guri- nezko pastak egin zituzten. Baina, sukaldari lanak egiteaz gain, kanpoan ere askotariko jolasak egin zituzten, baita eskulanak ere, bi hezitzaileen laguntzarekin.

OÑATI



Umeek soka saltoan egiteko jostailuak egin zituzten

Oñatin ere ludoteka ibiltaria dabilta egiten martxoan. Zapatuan Olakuako dorrean ibili ziren umeak askotariko jostailuak egiten; besteak beste, soka saltoan ibiltzeko jostailua eta *saski-fiaski* bezala ezagutzen dena sortu zituzten; azken hori komuneko paper-biribilkia erabilita. Pozik daude hezitzaileak orain arte egindako hiru saioekin. Asteon egingo dute azkena; eguraldiak laguntzen badu, herriko kiroletan arituko dira.

IMANOL SORIANO



Kulturateko Udal Bibliotekako Haurtxotekan egin dituzte lehen bi saioak; irudian, bigarren saioko une bat. | UDAL BIBLIOTEKA

'Azalerako ipuinak' tailerra, ipuin kontaketa eta masajea elkartzen

30 familiek eman dute izena, espero baino askoz gehiagok; etzi, azken saioa

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Hitzik gabe komunikatzea, 0 eta 3 urte arteko haurra hartzaile nagusi dela. Hori da Kulturateko Udal Bibliotekako Haurtxotekan etzi, hilak 26, amaituko den *Azalerako ipuinak* ikastaro bereziaren funtsa: "Masajea eta ipuin kontaketa uztartzen ditu tailerrak, ukimena eta ahozkotak dantza berean doaz", dio ikastaroa gidatzen ari den Saroa Bikaindi hezitzaile durangarrak.

Horren gazteak izan arren, ipuinek eragina dutela sinesten du Bikaindik: "Tailerretan ikusten da emaitza; azken saioan, adibidez, sei edo zazpi hilabete ko ume bat adi-adi egon da kontaktari. Askok gustatzen zaie. Ipuin laburrak direla, hitz-jokoak, errimak... Horiek haurrendako elikagai moduan hartzen ditut nik". Hilaren 12an egin zuten lehen tailerra.

Haurrak dira hartzaile nagusiak, baina ez bakarrik. Gura-

soendako "oso baliagarria" da ikastaroa: "Materiala eta baliabideak ezagutzeko oso saio egokiak dira. 45 minutu irauten dute eta beraz, haurrek euren beharrak izaten dituzte. Ez dut

espero denok adi-adi egotea, inondik inora". Parte hartu duten gurasoak "oso pozik" daudela ere gaineratu du Bikaindik: "Samurra da, oso atsegina. Adin tarte horretako haurren gurasoak oso gogotsu etorri ohi dira eta horrek asko errazten du dena".

ESANAK

"Ukimena eta ahozkotak dantza berean doaz tailerretan"

SAROA BIKAINDI | TAILERREAREN GIDARIA

"Gurasoek diote gozamina dela, dinamizatzailea zoragarria dela"

ASUN AGIRIANO | HAUR BIBLIOTEKARIA

Berriro antolatzea baloratzen
Bularretik Mintzora egitasmoaren barruan kokatzen da ikastaroa. Hasiera baten hamar familiarendako talde bakarra osatzea zen asmoa baina 30 familia inguru batu zirenez bi talde osatu dituzte: "Arrakasta ikusita baloratzen ari gara aurrerago berriro antolatzea", adierazi du Asun Agiriano haur bibliotekariak.

Gurasoen aldetik oso iritzi onak jaso dituzte: "Oraindik ikastaroa amaitu ez bada ere, gozamina dela esan digute, haurrekin harreman sendotzen dutela eta Saroa, dinamizatzailea, zoragarria dela", gaineratu du Agiriano.

Abaroako komun garbiketaz Udala arduratuko da aurrerantzean

Erretiratuek gain, herritarrek ere erabiltzen zituzten

J.B. | ARRASATE
Abaroa erretiratu etxeko komunaren garbiketaz Udala arduratuko da aurrerantzean. Hala adostu zuten martxoaren 19ko osoko bilkuran. Taberna ustiatzen duen Agurtzane Urizarren arduraren komuna garbitzea orain arte, baina erabaki hori hartu zuten Udalak komun horiek erretiratu etxeko erabiltzaileez aparte hainbat herritarrek ere erabiltzen dituztelako. Izan ere, beheko solairuko komunak eskuagarri daude edonorendako, ate ondoan eta tabernarien kontrolatik kanpo.

Auzo-lagun enpresari
Udalak Auzo-lagun enpresari esleitu dio zerbitzua, eraikin berdinean dagoen San Andresko auzo alkatetzako instalakuntzen garbiketaz arduratzen den enpresa berberari. Taberna irekita dagoenean garbituko dituzte komunak eta Udalak aurreikusitako 3.800 euro pasatxo gastatzea zerbitzu horretan.

Astelehenetik zapatara zerbitzuaren prezioa da 20,91 euro ordukoa eta domeka zein jai egunetan 23 euro ordukoa. Egunero ordu erdiko garbiketa aurreikusten dute.

'Gran Mision Venezuela' hizpide gaur Kulturaten

J.B. | ARRASATE
Askapenak, Circulo Bolivariano La Puebla elkarteak, Euskadi-Cuba eta Kaleratzeak Stop Desahucios Debagoiena taldeek antolatuta, hitzaldia eskainiko du Yolanda Rojas Urbinak gaur Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (19:00): "Euskal Herrian kaleratzeak egunerokoa diren bitartean, Venezuelako gobernuaren herriarrek duen zorra kitatzen ari da. Horren adibide da *Gran Mision Vivienda Venezuela*, non hiru urtetan 500.000 etxebizitza eraiki diren aterpe gabekoei emateko", diote.

NIRE USTEZ

MAITE BARREÑA



Eta biharamunean zer?

erro hauek idazten nabilen honetan, biolentzia sexistak erail duen Andinaren heriotza bolo-bolo dut buruan. Egunotan komunikabide guztietan erailketa horren berri izan dugu.

Dozenaka tertuliatan hitz egin da, prentsa idatzian ere era askotako iritzi eta artikulua irakurri ditugu, kale agerraldiak konbokatuta ditugu eta herritarrok berriro ere biolentzia matxistaren aurka azaldu gara. Lagun arteko elkarrizketetan ere, presente izan dugu Andinaren erailketa.

Baina ez naiz gustura geratu... Eta biharamunean zer? Aipatu iritzi artikuluetan, tertulietan eta abarretan bio-

lentzia sexistaren aurka denok kokatzen bagara ere, faltan botatzen dut biolentzia horren hausnarketa ideologikoa.

Hau da, patriarkatuaren baitako kokapena, *amor romantico* delakoaren inguruko analisia, egun ditugun zerbitzu publikoen kritika emankorra, autodefentsa feministaren aldeko apustu irmoa, eskoletan esparru hau lantzeko errekursoak ezartzearena, gazteekin behar beharrezkoa den lan-ta integral baten diseinua..., Finean, biolentzia sexistaren kontrako borroka lehenetsun bilakatzea!

Bestalde, Arrasateko Ernaik burutu berri duen prozesu feministaren berri izan dut. Hainbat saio antolatu dituzte praktika feministaren baitan -parte-hartze bikainarekin- eta ekintzak antolatzen hasi dira.

Martxoaren 8an abortatze-ko eskubidearen aldarrikapena egin zuten Debagoieneko ospitalearen aurrean, besteak beste. Aupa zuek!

Udazkenean hasiko dira Zarugalde kaleko mendi-hegala egonkortzeko lanak

J.B. | ARRASATE
Zarugalde kaleko 44 eta 46 zenbakien atzeko mendi-hegala egonkortzeko lanak udazkenean hastea aurreikusten du Udalak. Bost hilabetez luzatuko diren lanekin etxebizitza horietan bizi direnei konponbide bat eman gura diote. Izan ere, atzealdean dagoen terrenotik jausi izan diren haitz edo harri zatiei eusteko jarri zen sarea ez dago

egoera onean, urteen poderioz kaltetu delako. Sare berria jarriko du eta baita haitza egonkortzeko zenbait euskarri ere, beharrezkoa den gunetan. Aurrekontua da 469.678 eurokoa. Martxoaren 17ko Tokiko Gobernu Batzordean onartu zen, hasiera batean, lan horien proiektua eta 15 eguneko jenduraren egongo da herritarrek alegazioak egin ditzaten.



Zarugaldeko 44. eta 46. zenbakiak; ezkerrean, haitzaren zati bat. | J.B.

Baskoniako entrenatzaile Sergio Scariolok hitzaldia eskainiko du bihar Goi Eskola Politeknikoan (20:15)

MUko kirol zerbitzuak eta Ointxe saskibaloia taldeak elkarlanean, hitzaldi interesgarria antolatu dute biharko, hilak 25. Laboral Kutxa Baskoniako entrenatzaile Sergio Scariolo gonbidatu dute; Arrasate Goi Eskola Politeknikoan 7006 gelan, zazpigarren eraikuntzan, izango da saioa (20:15). *Saskibaloia eta teknologia berriak* izango da gaia: "Saskibaloia jarraitzen baduzu eta teknologia berriak gustuko badituzu ezin duzu aukera paregabe hau galdu", adierazi dute antolatzaileek.

Bost langile kontratatuko ditu Udalak

Enplegua sustatzeko programa barruan kokatzen da lan eskaintza

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiaren enplegua sustatzeko laguntza programaren barruan, Arrasateko Udalak hiru baso-langile eta lorezaintzako bi peoi kontratatuko ditu. Udalak oharrez jakinarazi duenez, bost hilabete kontratuak izango dira eta interesatuek eskabideak BAZEn entregatu beharko dituzte martxoak 29a baino lehen.

Hiru baso-langileen kasuan, basoko mantenu, baliabide naturalak garbitzeko eta zaintzeko lanak egingo dituzte. Kontratatuko diren peoiek berriz, herriko lorategien zaintzan, eta inguruko zelaietan dauden belar txarrak kentzen lagunduko dute.

Aldundiarekin batera

Bost kontratu hauek egiteko, 61.659 euroko aurrekontua izango du Udalak. Diruaren erdia

baino pixkat gehiago, 37.500 euro, Foru Aldundiak bideratuko du; eta Arrasateko Udalak 24.158-ko ekarpena egingo du.

Lanpostu hauetarako baldintzak lan gabe egotea, deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldatuta egotea, gida baimena izatea eta Lanbiden izena emanda egotea dira. Interesatuek jakin, eskaerak BAZEn aurkeztu behar direla martxoaren 29a baino lehen.

DATUA

5

LANGILE

Denera 61.659 euro bideratuko dira langile hauek kontratatzeko.



Hiru baso-langile postu aterako ditu Udalak. | GOIENA

Gaztetxokoek Askizura irteera antolatu dute datorren apirilaren 22tik 25erako

Irteeran, Zumaia eta Getaria arteko kostaldea ezagutzeko aukera izango dute bertara doazen gazteek. Lau egun hauetako egitaraua hezitzaile eta gazteen artean erabakiko dute. Izena emateko azkeneko eguna datorren apirilaren 5a izango da, eta Gaztetxokoetan, Gazte Bulegoan edo Txatxilipurdiko bulegoan egin beharko da. Irteeraren prezioa 50 eurokoa da, eta jakin plazak mugatuak izango direla. Behin epea itxita, antolatzaileek bilera egingo dute irteeran izena eman duten gazteen gurasoeekin.

Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua eskainiko dute bihar 18.00etan Kulturaten

Tronboi, bonbardino eta tuba ikasleek kontzertua eskainiko dute bihar Kulturaten. Mikel Markiegi eta Iker Olazabal irakasleen gidaritzapean, 25 musikariek hartuko dute parte emanaldian. Sei eta hamasei urte arteko gaztetxokoek hartuko dute parte. Musikari txikiak banaka joko duten bitartean, nagusienak taldeko igoko dira oholtza gainera. Kontzertua amaitzerakoan *Riders March* pieza interpretatuko dute 18 instrumentarien artean.

Sonido Vegetal andaluziarren musika martxoko azken Kooltur ostegunean

Gipsy-punk doinuak lantzen ditu estatuan zehar ezagun bihurtu den taldeak

M.A | ARRASATE

Euskal Herriak egin behar duen bira txikiaren barruan, Granadako Sonido Vegetal taldeak kontzertua eskainiko du aste honetako Kooltur ostegunean. Soinu mestizajea lantzen du talde honek, eta bere musika reggaetik hasi eta punkeraino doa, erritmo balkaniko eta ska doinuei muzin egin barik.

Ibilbide motzeko taldea izan arren, arrakasta lortu du *Sonido Vegetal* estatuko mestizaje eszenan. Besteak beste, Sonderos, A pie de Calle edo Undergrau moduko jaialdi ezagunetan hartu dute parte Sonido Vegetaleko lagunek, eta guztietan publikoaren erantzun ona jaso dute.

Granadako taldeak 2008an ekin zion bere ibilleari, eta handik urte betera, Sonido Vegetal izeneko diskoa kaleratu zuten 5000records zigilu britainiarrekin. 2012an *Prisa en la Cabeza* singela argitaratu zuten, eta abesti hau *The Trotsky* filmeko soinu bandan sartzea lortu zuten.

Euskal Herriak biran

Iaz iraupen luzeko bigarren lana kaleratu zuten, *Las Bases del Razonamiento*. U2 edo Paul McCartney bezalako artistekin



Sonido Vegetal taldeko kideak. | SONIDO VEGETAL

lan egindako, Martin Glover "Youth" teknikari ingelesarekin grabatu zuten diskoa. Beste batzuen artean, Amparanoiako Amparo Sánchezen laguntza jaso zuten diskoa grabatzeko.

Orain, lan hau Euskal Herrian

aurkeztuko dute. Asteazkenean Tolosako Bonberenean izango dira, eta Arrasaten kontzertua eman eta gero, Donostiako Kortxoenean izango dira egubakoitzean, eta Basauriko Txarraskan zapatuan.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

erreportaia

Heldu bezain pronto alde egin digute oporrek

Dageneko joan zailkigo Aste Santuko oporrek, jadanik itzuli gara gure eguneroko arituera eta ghibiak Abuztu arte itzaroan behar duzue berria oporretatik. Opor hauek, hurrek ez izan arren, jende askok aprobetxatzen dituzte norabait alde egiteko, egun hauek baliatzen dituzte lanbidean zuzen zuzen bidearen bati egin ahal izateko.

Arrasateko oporrek

Arrasateko oporrek, Oporren, alde egiteko daguen, oso arreta izan eta denbora gutxiagoan, lehen gutxi batzuen prebigio zena gaur egun lan egiteko dauden abuztuaren denbora denbora baliatzea daki.

Arrasateko oporrek, Oporren, alde egiteko daguen, oso arreta izan eta denbora gutxiagoan, lehen gutxi batzuen prebigio zena gaur egun lan egiteko dauden abuztuaren denbora denbora baliatzea daki.

Arrasateko oporrek, Oporren, alde egiteko daguen, oso arreta izan eta denbora gutxiagoan, lehen gutxi batzuen prebigio zena gaur egun lan egiteko dauden abuztuaren denbora denbora baliatzea daki.

Gero eta arrasatear gehiago alde egiten du herriak Aste Santuan hitzen denboran opor labur hauetan diruztatzeko asmoz

Arrasateko oporrek

Arrasateko oporrek, Oporren, alde egiteko daguen, oso arreta izan eta denbora gutxiagoan, lehen gutxi batzuen prebigio zena gaur egun lan egiteko dauden abuztuaren denbora denbora baliatzea daki.



Asturias, Benidorm, Marruekos, Paris, Salou... Aste Santuen

Aste Santuko oporrek buketu barri, *Press*-ek herritarren gustuen gaineko reportaje egin euen.

Batzuk inguruen ibilli zien, Naparuen eta Asturiasen, batez be; gazteiek kanpuren ibilli zien, Marruekosen —oso merkie zan— eta Parisen; eta 30 eta 40 urte artekoek, barriz, Salou eta Benidormen eguzkitan.

Bidaia agentzietakuek esan euen azkeneko urtietan jentiek guztiz organizaute hartzen zittuela bakaziñuek: transportie, ostatie...

5.000 lagun Reala-Osasuna ikusten Mikel Otxoari omenaldixe egin eutzien martxuen 19xen, eta, bestiek beste, Reala-Osasuna partidue jokatu zan Atxabalpen.

Egixe esatiarren, ez zan oso partidu ona izen, baiñe eguraldixe eta egon zan girue nehikue izen zien egune borobil-borobille izeteko. Gaiñera, jokalariek oso jarrera ona erakutsi euen.

Angiozarrek eta Uberak sortzen duten konpost guztia kudeatzen dute

Bi auzoetan aho batez onartu zen bertako organikoa auzoan bertan konpostatzeko aukera

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Herrian hondakinak kudeatzeko sistema berriak ekaitz lainoak sortzen zituen bitartean, Angiozarko eta Uberako auzotarrek beste bide bat hartu zuten. "Auzo-

tarrekin batu, sistemaren onura eta hutsuneak aztertu ostean, aho batez, organikoa auzoan kudeatzea erabaki genuen", azaldu du Jose Angel Mikeok, Angiozarko alkateak. Uberan ere antze-



Angiozarko auzotar bat autokonposta egiten. | IMANOL GALLEGO

ra gertatu zen. "Udaletik sistemaren nondik norakoak azaldu zizkiguten", aipatu du Gorka Buruagak, Uberako alkateak.

Bi auzoetan erabakia duela urtebete hartu bazen ere, auzo-

tarrek apurka-apurka bat egin dute eurentzat hain berria ez den sistemara. "Landa giroan beti erabili da organikoa ongarri edo sats gisa; orain, baina, konpost esaten zaio; izen berria izan ezik, sistemak ez du aldaketa nabarmenik ekarri", dio Mikeok. Hala ere, sistema berriak dituen berezitasunak hobeto ezagutu eta konposta era egokian egiteko, taldeka adituek eskaintako ikastaro bat ere izan zuten bi auzoetako bizilagunek.

Auto eta auzokonposta

Bi auzoetan konpostagailuak banatu eta sistema martxan zegoen arren, auzo bakoitzera moldatzeko sistema egokitu egin da. Angiozarko bizilagun batzuek autokonposta beharrean auzokonposta egingo dute. "Momentuz, ekarpen

-gunera errotan dute sortzen duten organikoa", esan du Mikeok. Herriguneko bost etxebeztza besterik ez da, baina laster hauek ere konposta egin ahal izateko auzokonpost gune bat izango dute.

Uberan, aldiz, ez da auzokonpost gunerik egongo, auzotar bakoitzak bere konpostagailua egingo du eta. Uberako elkarrekin sortzen duen organikoa konpostatzeko, baina, konpostagailu handiago bat jarriko dute. "Elkarrekin toki berezi bat da, eta bertan sortzen den organikoa behar bezala konpostatzeko egin da moldaketa", dio Buruagak.

Sistema berriak auzotarrek euren hondakin organikoa kudeatzeko orduan eragindako aldekeitez gain, poltsikoan ere igarriko dute. "Egia da organikoa guk kudeatzeagatik hobari bat izango dugula, baina hori ez da sistema jartzeko arrazoi nagusia izan", azaldu du Angiozarko alkateak. Uberan ere beste arrazoi batzuenatik hartu zuten erabakia: "Ingarumena oso gai garrantzitsua da, eta honekin, gure inguruak zaintzeko egin dezakegun pauso bat eman dugu".

Eta konpostarekin zer egin?

Auzotar bakoitzak kudeatuko du berak sortzen duen konposta. "Auzotarrek euren ortuetan erabiliko dute", aipatu du Buruagak. Uberako elkarrekin kasuan, baina, garbitzailea izango da konpostaren arduraduna, eta auzoko lorategietara bideratuko da bertan sortzen den ongarria. Hala ere, bi auzoetako alkateek argi utzi gura izan dute auzotarren batek konpost gehiagoren beharra izaten badu, auzokonpostetik sortzen dena hartzeko aukera izango duela.

Angiozarko auzokonpost gunea

Tramiteak asko luzatu diren arren, auzokonpost gunea eskolaren aurrean egongo da.

Bertan, Angiozarren bizi diren eta autokonposta egiteko aukerarik ez duten bizilagunek eroango dute etxean sortzen duten gai organiko guztia.



Angiozarren auzokonposta egingo den gunea. | I.G.

Ipuinak, kontakizunak eta fantasia ume jolas bat baino gehiago direnean

I.G. | BERGARA

Urte hasieran Udalak, Oihulari Klowneko kidea den Virginia Imazen laguntzarekin heldu nahiz gazteei zuzendutako ipuin kontakizunak berreskuratzeari ekin zioten, "duela urte batzuk Pol-Pol taberna egiten ziren", dio Maider Osa kultura teknikariak.

Orain helduen saioa osoko bilkuren aretoan egiten da eta haurrena aldiz kultura etxean, hurrenez hurren hileko azken martitzen eta egubakoitzean.

Arrakasta itzela

Espero ez zuten arrakasta izan dute ipuin kontaketeak, "haurrentzako ipuin kontakizuna adin tartearan arabera bi saiotan banatu behar izan dugu", azaldu du Osa. Helduen saiora ere jende dezente hurbiltzen da, "bi saioetako gaiak oso anitzak dira eta jendea pozik etortzen da".

Saioak uda arte mantenduko dira, eta opor garaiko etenaldien ostean, urrian bueltako dira fantasia istorioak herrira.



Haurrentzako kontakizunetara gazte asko gerturatzen dira. | IMANOL SORIANO

Apirilaren 5eko manifestaziora joateko autobus zerbitzua

I.G. | BERGARA

Rajoyren gobernuak aurrera atera nahi duen abortuaren legearen erreformaren kontra apirilaren 5ean, zapatua, manifestazio nazionala deitu du Euskal Herriko mugimendu feministak. *Gure gorputza, gure erabakia* lelopean, arratsaldeko zazpitan Iruñeko Golem zinema aretoetatik irtengo da manifestazioa.

Bergaratik irtengo den autobus zerbitzua erabili nahi dutenek Pol-Pol edo Arrano tabernara gerturatu besterik ez dute. Taberna horietan zerrenda bana jarri dute, eta horietan izena emateko azken eguna apirilaren lehen izango da. Autobusa 15:00etan irtengo da autobus geltokitik. Ikasle eta langabeek zortzi euro ordaindu beharko dituzte; gainontzekoek, aldiz, bi euro gehiago.

NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA



Gure esku(bideak)

an eta lan, emakumea Bergaran izeneko azterlanak gure amandreen sukaldeetaraino sartzeko aukera eman digu asteotan. Bertako berotik, leihoak zabaldu eta eskuzabalik kontatu dizkigute etxek kanpoko bizi-penak.

Hamar atzamarren laguntzaz batuketak egiten ikasi zuten garai berean sartu omen ziren asko ehungintzan lanean. Hariak zuzendu, tinkatu eta makinak gobernatzeko zuzuten esku horiek hautsez zurituta itzultzen ziren etxera. Hala ez bazen, jostun lanak eginez zultzen zituen atzamar puntak emakume bergarar askok eta askok.

Baziren zerbitzari edo inudela lanak egiten zituztenak ere,

amantalak janariz zikindutako eskuekin koloreztatzen adituak. Eta askok hala ez uste arren, emakume baseritarrek ere lur arrastoekin betetzen zituzten azkazal ertzak.

Beste behin ere ohartu naiz, ez gure amonak urtero San Blas egunez guretzako opilak egiteagatik, ezta amamak etengabe guretzako haragizko krocketak prestatzeagatik ere, horregatik bakarrik ez zituztela eskuak zimurtuak. Hautsez zuritutako, zulatutako, zikindutako eta lurrez betetako esku horietatik guztiengatik ditugula gaur dauzkagunak, lehen goenak baino zauri gutxiagoak. Azterlanari esker, orain arte ikusarazi digutenaz gain, gure amandreek gauza ikusgarri askoz gehiago egin dituztela bista-bistakoa da.

"Gure amandreek gauza ikusgarri askoz gehiago egin dutela bistakoa da"

Elizamendiko Amaren eguna ermitan ospatuko dute

L.K. | BERGARA

Bihar, martitzena, da egutegiaren arabera Elizamendiko Ama Birjinaren eguna, baina, aste barruan tokatzen denez, ospakizunak domekan egingo dituzte angiozartarrek. Hain zuzen, Angiozarko Marindao auzoan izango da, eta aurtengo berezitasuna da, parrokiaren egin beharrean, ermitan egingo dutela meza. Honela azaltzen du zergatia Angiozarko alkate Jose Anjel Mikeok: "Ermitan txukuntze-lan batzuk egin dituzte, eta jendeak ikusi ahal izango du zelan dagoen". Ermita oraindik konponketa beharrean dago, baina jairako gutxienez "itxuratu" egin dute, eta ermitaren nondik norakoak jakin ahal izango dituzte auzotarrek.

Elizamendiko Ama Birjinaren irudia Angiozarko parrokiara ekarrita dago, eta erreplika bat daukate ermita horretan.

Umeak eta haurdunak

Horrenbestez, domekan, meza entzuteko aukera izango dute auzotarrek 12:30ean. Elizamendiko Ama Birjina Jesus haurtxoari titia ematen dago irudikatuta; horregatik, umeen eta haurdunen jaia izaten da, eta umeak bedeinkatzera erosten dituzte auzotarrek.

Meza bukatutakoan, erroberia eta luntxa izango dituzte bertara joaten diren guztiak.



Ziklista bat Labegarietako bidegorrian; Elorregitik Labegarietaraino ailegatuko da bidegorria. | GOIENA

Udal bidegorri sarearen gaineko herri batzarra deituko dute

Herriko sarea eta beste herriekin konexioak bultzatu nahi ditu Udalak

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Oraingo agintaldian, bidegorri saretik ahal den zati handiena eginda utzi nahi du Udala Gobernuak, eta, asmo horrekin, batetik, Foru Aldundiari eskatu dio berari dagozkion bi tramu garrantzitsuak lehenbailehen has ditzan eta, bestetik, herrian falta diren tramuei ekiteko, parte-hartze prozesua hasiko du, herritarrek batzar batera deituta. Apirilaren 7an egin nahi du batzar hori Udalak.

"Daukagun aurrekontuarekin, ezin izango diegu Bergarako behar guztiei erantzun, baina handiena egingo daiteke", dio Udaleko Lurralde Antolamenduko batzordeburu Joseba Moñuxek.

Foru Aldundiko eta Udaleko ordezkariak joan den astean batzartu ziren. Bertan, Foru Aldundiak Udalariko asmoen berri eman zion eta Udalarekin kontrastatu zuen hori. Bi tramu daude egiteko. Batetik, Beasain

-Durango autobideko lanak aprobetxatu nahi ditu Bide Azpiegitura foru sailak Antzuola eta Bergara arteko tramua egiteko. Moñuxek dioenez, "Aseginolazaraino ailegatuko zen tramua hori, eta hortik aurrera zelan sartu lantzen dabilta". Aurtengo bukaran edo 2015 hasieran ekin nahi diete lan horiei.

Beste tramua Elorregitik Labegarieta artekoa da, eta Labegarietan, dagoeneko eginda dagoen

ESANAK

"Dena ezingo da, baina handiena egingo daiteke" Joseba Moñux | ZINEGOTZIA

zatiarekin lotuko da. Tramua hori ere oso garrantzitsua da, Moñuxen esanetan, izan ere, "horrela, Bergara, Arrasate eta Oñati bidegorri lotuta geratuko dira".

Batzordeburuaren esanetan, tramua horiek ez dute aparteko zailtasun teknikorik eta "nahiko definituta" ditu Foru Aldundiak. "Erabaki behar dute Tavesa aldeko zatitxoak nola egin, bi edo hiru aukera daudelako; bestalde, San Antonio aldean bidea estu samarra da eta hor ere bi aukera daude". Edozein modutan, tramua hori ere aurtengo bukaran edo datorren urte hasieran hasi nahi du Aldundiak.

Bi tramuak ere 4 kilometro eskasekoak dira.

Diru laguntzak eskatu dituzte

Herriko sarea Udalariko dagokio eta hori ere osatzen joan nahi du Udala Gobernuak: "Tramutxo batzuk konpontzeko gelditzen zaizkigu. Bat azoka pareko tramua da; diru laguntza batzuk eskatu dizkiogu Jaurilaritzari. Eta Lorentxoko aurretik jarraitzeko ideia batzuk badauzkagu, baina aurrekontuaren arabera ikusiko da zer egin daitekeen", dio Joseba Moñuxek.

Herriko tramuak nola osatu oraindik ez du erabaki Udalak, izan ere, herritarren ideiak eta proposamenak jaso nahi ditu. Horretarako deituko du bilera.

Ion Garmendia | Musikaria eta irakaslea

"Txalaparta ikastaro asko ematen ditugu, baita Madrilen ere"

Txalaparta ezagutzen hasteko aukera izango da Ion Garmendia eta Iñaki Plazarekin, ikastaroan

L.K. | BERGARA

Musika eskolak antolatu duen ikastaroa Ion Garmendia ibarrrak eta Iñaki Plaza orduñarrak emango dute. Biak bikote dira txalaparta jotzen, eta esperientzia handia dute eskolak ematen. Txalapartaz gain, beste musika-tresna asko jotzen dituzte. O+Hatz proiektu didaktikoa daukate, eta bikote gisa zein Kepa Junkerarekin diskoak egin dituzte.

Musikarizateaz gain, baduzu eskarmentua eskolak ematen, ezta?

Bai. Biok gara irakasleak lanbidez, eta ikastaroak betidanik

eman izan ditugu, Euskal Herriko leku askotan eta kanpoan. Adibidez, Madrilen 4-5 urte daroan ikastaroak ematen. Bestalde, kontzertu didaktikoak ere egingo ditugu. Txistua, alboka, panderoa... ere jotzen ditut, eta Iñakik, trikitia, perkusio piloak...

Bergaran lehen aldiz duzue, ezta?

Oker gogoratzen ez badut, bai, lehen ikastaroa izango da. Debagoienean kontzertu didaktikoak eman ditugu, baina Bergaran lehen aldiz izango da, bai.

Ze ikas daiteke egun bateko ikastaroan?



Ion Garmendia (lehen planoan) eta Iñaki Plaza, Kepa Calvorenkin. | ABARRUSO

Izen-emate epea zabalik da aste osoan

Hilaren 29an, zapatuan, bukatuko da Musika Eskolak antolatu duen txalaparta ikastaroaren izena emateko aukera. Hasiera mailakoa da, eta apirilaren 5ean izango da; egun bakarrekoa, hortaz, 10 eta 16 urte arteko taldea eta adin horretatik gorakoena izango dira. Musika eskolako bazkideendako, 6 euro da matrikula; besteendako, 7 euro.

Txalapartari buruzko azalpen orokorra emango dugu, eta jotzeko orduan kontuan hartu beharreko gauza batzuk, txalapartak badituelako berezitasun batzuk; nagusia da biren artean jotzen dela. Beraz, jendeak ulertu ahal izango du kontzertu orokor bat zer den, eta pixka bat praktikatu ahal izango du. Izena ematera animatu dadila jendea, eta ea etortzen direnei jarraitzeko gogoia pizten zaien!

Txalaparta batzuk ere erakutsiko dituzue, ezta?

Bai. Nagusiki, egurrezkoa erabiliko dugu, baina, bitxikeria gisa, harri batzuk ere erango ditugu, jendeak ikus dezan ze material mota erabiltzen den.

Madrilen, zelako jendea joaten zaituzue?

Denetarik dago: Madrilen bizi diren euskaldunak daude, baina gehienak Euskal Herriarekin inongo zerikusirik ez duten madrildarrak dira. Beste barik, txalaparta ezagutu dute eta ikasi egin nahi dute. Izan ere, azken urteetan dezente zabaldu da txalaparta, penintsulan eta mundu osoan, eta jende askok ezagutzen du, guk ezetz uste arren.



Santa Anan egin zuten herriko erretiratuek urteko batzar orokorra, egubakoitzean. | O.E.

Pake Lekuk 42.000 euroko aurrekontua du

Egubakoitzean egin zuten urteko batzar orokorrean onartu zuten

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Joan den egubakoitzean egin zuten Pake Leku erretiratuen elkarteko bazkideek urteko batzar orokorra. Hantxe onartu zituzten, besteak beste, aurtengo aurrekontua eta 80 urtetik gorako bazkideen egoera aldatzeko proposamena.

80 urtetik gorakoak

Puntu horixe izan zen, hain zuzen ere, aurtengo batzar orokorreko punturik berritzaileena. "Orain arte 80 urtetik gorako bazkideek ez zuten kuotarik ordaintzen, eta ondorioz ez zuten boto eskubiderik. Adin horretako kide batzuk, baina, boto eskubiderik izan ez arren lana besteak bezala egiten dutela kexatu dira. Hori kontuan izanda, proposamena hauxe izan da: adin horretako bazkideek eurek

aukeratu dezatela, borondatez, kuota ordaindu (10 euro urtean) eta botoa eman, edo kuota barik eta boto barik jarraitu. Proposamenak jasotzen du, dena dela, erabaki hori bakoitzarena izatea, hau da, ez zaie berdina aplikatuko adin tarte horretan dauden guztiei, bakoitzari bere erabakia baizik", adierazi du azken urte honetan Pake Lekuko presidentea izan den Jabier Galartzak. Egun, 1.500 bazkide ditu Pake Lekuk eta 1.023 dira 80 urtetik azpikoak.

Aurrekontua

2104rako 42.000 euroko aurrekontua ere onartu zuten egubakoitzeko batzarrean. "Bidaiak ez dira sartzen kopuru horretan. Egun-pasa joateko irteera bat egiten dugu hilean, eta iraupen luzeko

beste lau antolatu ditugu aurten: Tenerifera, Benidormera, Poloniara eta Algarvera. Izugarriko arrakasta izaten dute bidaiak; 150.000 euroko poltsa sortzen dute", zehaztu du Jabier Galartzak.

Bidaiak gain, aurten ere makina bat ikastaro, hitzaldi eta ekitaldi egingo dituzte.

Erabaki horiek hartzeaz gain, elkarteko zuzendaritzako kide berriak ere aukeratu zituzten. 14 lagun daude zuzendaritzan, eta erdia berriztu da. Presidente berria Jose M^a Igartua da.

Gipuzkoako erretiratuek Oñatin

Bestalde, Gipuzkoako erretiratuen jaia egitea gura dute Oñatin, duela 17 urte egin zen moduan. Urriko azken astean egingo dute eta 600 lagun elkartzera espero dute.

Hoditeria hornikuntza aldatzeko lanak azken fasera heldu dira

Lurzorua berritu egingo dute lanak bukatzean

O.E. | OÑATI

Lizaur kalean eta kale Zaharrean egiten ari diren lanak amaitzeaz daude. Uraren hoditeriaren hornikuntza aldatzeko lanak ari dira egiten herriko kale horietan, eta obra horiek azkenetan daude dagoeneko. Gero, lurzorua konponduko dute.

Saneamendua

Ur hoditeriaren hornikuntza aldatzeko eta saneamendua

hobetzeko lanak egin dituzte. "Arketaren bat edo beste ere aldatuko dituzte, baina laster bukatuko dute hoditeriaren eta saneamendua aldatzeko lan orokorrarekin. Kale Zaharreko 7 eta 17 atarien arteko hornikuntza eta saneamendua aldatzea faltako da gero bakarrik, eta lurzorua berritzea. Hori baina, Udalarekin adostu beharrekoa da", adierazi dute Gipuzkoako Urak kontsorzioetik.



Makina, Lizaur kaleak eta kale Zaharrak bat egiten duten puntuan. | O.E.

Autobus zerbitzua hobetzeko proposamena, gaur

Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzua hobetu gura du. Hasita dago lan hori egiten eta Oñatin ere hainbat inkesta eta galdera egin zituen herritarren iritzia, kezka eta ekarpenak jasotzeko. Gaur bileran egingo dute Aldundiaren proposamena ezagutzeko, 18:30ean udaletxean.

'Euskal Herriko altxorretan barrena' bideoa, euskaltegian

Arkaitz Astiazaranek egindako *Euskal Herriko altxorretan barrena* izeneko dokumentala emango dute bihar, martitzena, udal euskaltegian, 18:00etan. Euskal Herriko 800 herri eta 175 mendate igaro zituen egileak bizikletan, eta motxilan zeraman kamararekin egindako bideoa da.

NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEN



Jorge Mario

Duela justu urtebete, ezagutu nuenean, desberdina iruditu zitzaidan. Jorge Mariok itxura umila zuen, goitik behera zuriz jantzia eta zapata beltz zaharrak oinetan. Lasaia eta atsegina zirudien eta irribarre alai zuten aurpegian. Gizon ona iruditu zitzaidan lehenengo begiradan, baina, hala eta guztiz ere, errezeleok nituen.

Harrezkero hobeto ezagutu dut eta bere bizitzari buruz gauza gehiago jakin ditut. Diskoteka bateko atezaina izan zela jakin izan dut, besteak beste, eta futbol zale amorratua dela ere bai. Badakit, gainera, sexu aukera ezberdinak ez dituela epaitzen eta emaku-

mearen papera goraiatzeko duela. Pobreen artean egotea gustatzen zaiola dio eta ezker-tiarat du bere burua. Kapitalismoak hiltzen duela esaten ere entzun nion behin. Desberdina iruditu zitzaidan gizon hura, kaletik paseatzen den gutako edonor balitz bezala. Baina gizon hura ez da edonor, boterea duen gizona da, botere jainkotiarra, gainera.

Nik oraindik errezeleok ditut (urteetan zehar pilatutako mesfidantzak ezabatzea ez da horren erreza izaten), baina hala eta guztiz ere, poztan naiz Jorge Mariori entzuten diodan bakoitzean, poztan naiz eliza aldatu daitekeela sinesten dudana bakoitzean. Baina ezin dut ahaztu esaten duguna ez gaituela egiten, egiten dugunak berriz, bai. Ea ba!

"Gizon hura ez da edonor, boterea duen gizona da"

TXALOAK ETA TXISTUAK



OIHANA ELORTZA

Autobus geltokiko eserlekua, lotuta

Olakua auzoko autobus geltokiko eserlekua aldatu dutelako pozik dago herritar bat. "Lehen kexatu nintzen jarri zituzten eserlekuak apurtu edo kendu zituztelako, eta orain eskerrak eman gura ditut eserleku berria jarri dutelako", dio herritar batek.

ARETXABALETAKO



Atez ateko hondakin bilketa sistemari babesa emandako herritarrek. | M.A.

Atez ateko bilketaren alde egin du herritar taldeak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Udalak abian jarriko duen atez ateko hondakin bilketa sistemaren alde egin zuen aretxabaletar talde batek egunean, zero zaborrekin bat egiten dutenak, hain zuzen.

"Eskuarteak daukagun erronka ez da edozelakoa. Izan ere, hondakinen kudeaketa arazo bat bilakatu zaigu" diote. Hori horrela, zera adierazi dute: "Hondakinak gutxitu, berrerabili eta birziklatzeko apustua egiten dugu. Norabide horretan bat egiten dugu Udalak onartu berri duen hondakin bilketa sistemarekin. Gure ustez hondakinen arazoa konpontzeko zera egin behar da: hondakin

gutxiago sortu; ahalik eta gehien berrerabili; eta ahal den guztia birziklatu. Gaur arte bosgarren edukiontzia bere ekarpena egin du eta orain beste aurrerapauso bat emungo da, gaikako bilketa tasak igoteko asmoarekin".

Eta herritarrei dei egin die: "Naturarekin kezkatuta eta konprometituta dauden herritarrei deia luzaketan diegu, hondakinen arazoari planteatutako irtenbide honetan parte hartzea". Eta galdetu dute: "Aretxabaletarrok Udalak proposatutako sistema berriarekin arduraz jokatu dugulakoan, ahalegin bat egiteko prest gaude? Seguru baietz".

5. edukiontziarekin jarraitu gura dute

A. TXINTXURRETA | ARETXABALETAKO
Bosgarren edukiontzia aldeko plataformako kideek hondakin bilketa sistema horren alde egin dute egunotan, eta diote lau arrazoi dituztela atez ateko bilketa sistemaren kontra egoteko: "Sistema garestiagoa eta zikinagoa da. Horrez gain, intimitatearen aurkakoa ere bada iruditzen zaigu, eta azkenik, bilketa sistema bat besterik ez denez, ez du bermatzen birziklapena", adierazi du Nerea Etxabek. Hori horrela, diote bosgarren edukiontzien sistema, merkeagoa, erosoagoa eta garbiagoa dela. Horrez gain, uste dute bosgarren edukiontzia

herrian emandako emaitzak ez direla "onak" izan eta hori hobetzeko, diote edukiontzia marroi gehiago jarri beharko lirakeela, 23 bakarrik daudelako: "Informazio gehiago egongo balitz, edukiontzia gehiago eta Udalaren aldetik laguntza gehiago, gauzak hobeto irtengo lirake". Etxabek gaineratu du alkateari bosgarren edukiontzia sistemarekin jarraitzeko eskatu zirela, emaitzak "geroz eta hobek" baitira euren esanetan, baina "ezezko borbila" jaso zutela.

Eta gonbidapena egin diete herritar guztiei plataforman parte hartzeko.



Bosgarren edukiontzia aldeko Nerea Etxabe eta Aitor Azkunaga. | A.T.

OHARRAK

BRASILGO EMAKUMEEN GAINEKO BERBALDIA

Debora Nunes MST (Lurrik gabeko landa langileen mugimendua) elkarteak kideak Brasilgo emakume nekazarien egoera eta erronken gainean jardungo du gaur (19:00), Arkupen.

SOZIO-EKONOMIAREN GAINEKO BERBALDIA

EH Bilduk antolatuta *Balioen krisia eta politika sozialak Gipuzkoan*

berbaldia izango da eguaztenean, hilak 26, Arkupen (18:30). Arantxa Urkaregi eta Ander Rodriguez izango dira hizlariak.

OROIMENAREN TAILERRA BASOTXON

Oroimena lantzeko ikastaroa egiten dabilta Basotxoko erretiratuak egunetan, 17:00etan. Oraindik izena eman dezaket interesatuek Basotxoko bulegotik pasatuta (11:00-12:00).

GAZTE TOPAKETAK

Datorren aste bukaeran, martxoaren 28tik 30era bitartean Gazte Topaketak egingo dituzte Aretxabaletan. Gazteen arazoak identifikatu eta alternatiba komunak topatzea da helburua.

HONDAKINEN BULEGOAK TELEFONO BERRIA

Hondakinen informaziorako bulegoak telefono zenbakia aldatu du. Hona berria: 943 25 06 82.

Debagoieneko erretiratu mahai joko txapelketa gurean

Debagoieneko erretiratu mahai jokoen txapelketa egingo dute Basotxoko egoitzan egunean, hilak 27. Mus, tute, briska eta beste mahai joko batzuen finalak jokatu dituzte 10 elkartetako txapelketa. Sari bana-keta ekitaldi ostean afari-merienda izango dute parte-hartzaileek.

ESKORIATZAKO

Hitzaldi musikatu emango du Joseba Tapiak, gaur fakultatean

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZAKO

Joseba Tapia (Lasarte, 1964) musikari ezagunak *Belarriak soinu* izeneko hitzaldi musikatu eskainiko du gaur, astelehena, Humanitatea eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Kapera aretoan. 11:00etan hasiko da eta edonorendako izango dituzte zabalik ateak.

Instrumentuak lagun

Musikari lasartearrak azken urteotan musika irakaskuntzaren inguruan egindako hausnarketa bilduko du jendaurrean egingo duen saioan. Azalpenak emateko, gainera, hainbat ins-

trumentu izango ditu lagun: aho-soinua, ukelelea, baxua, soinu txikia... Beti ere, azpimarratzeko musikan belarriak duen garrantzia.

Joseba Tapia kezkatuta azaldu da musikak egin duen ibilbidearen gainean: herri musikaren egoera (trikitixa, folka, rocka...); ganbaratik akademiara egindako bidea; entsegu lokaletik musika eskolarako saltoa... Horien guztien gainean eta beste hainbat gairen inguruan jardungo du, beti modu praktikoan, gaur, Fakultateko Euskara Batzordeak antolatutako duen hitzaldi musikatu.

Atez ateko bilketarako beharrezko materiala banatzen jarraitzen dute

M.A. | ESKORIATZAKO

Atez ateko hondakin bilketa sistema martxan jartzeko beharrezkoa den materiala jasotzen dabilta eskoriatzarrak. Hala, gaur, astelehena, Dorleta eta Elorreta auzoetakoak, Aranburuzabala kalekoak, Antontxu bidekoak, Olaeta plazakoak, Aingeru Guardia pasealekuak eta Arbiñostekoak joan daitezke Ibarraundi museora ontziak eta dokumentazioa jasotzera. Hona ordutegia: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era.

Bihartik egunera bitartean (biak barne), oster, komertzio eta industrietako ordezkariak eta

elizateetako bizilagunek joan beharko dute material horren bila. Eta datorren astean, apirilaren 1ean, 2an eta 3an, San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetakoak eta Gaztañadui kaleko 27 eta 29 atarietakoak. Proba pilotuan edukiontzia marroirako erabilitako giltza eroan behar dute horiek, eta organikorako bigarren ontzia jasoko dute.

Apirilaren 6an martxan

Aurreikusitako moduan joan gero lan horiek guztiak, apirilaren 6an martxan izango da Eskoriatzan atez ateko hondakin bilketa sistema.

NIRE USTEZ

MIKEL ARROIBAE



Gure Euskal Telebista

Nahid, Karen, Cynthia, Jessica, Dennis, Mariem, Valeria, Abderraman, Jali-fa. Gasteizen dauzkadan 15 urteko ikasliak die. Gaur Natur Zientzien azterketia egin dotziet, euskeraz. Bai, euskeraz. Danak euskaldunak die. Ez dauke euskerazko aisialdirik, ordia, ez daue euskeraz musikarik entzuten eta euskerazko telebistan be ez dauke gustoko programarik. Murgilketa linguistikua hankamotz geratuko da.

Tribuaren berbak saian Bergaran egindako ikerketia azaldu zuten Kikek. Bertan, gazte hainbat esparrutan daukien euskerian erabilia aztertu zuten; etxian, kalia, sare sozialetan... Portzentai txikixena telebistaren atalian zuten.

Normala pentsetan jat. Zer ikusi behar daue ba euskeraz? *Doraemon? Goenkale?* Bai zera! Zer eskeintzen dotze orduan ETBk gazte, *Kontrako eztarria? Irrikitown?* Erreferente bihurtu gure dozkuen Tolosaldeko *Morancos* umore hori?

2008ko urrian ETB 3 kate barrira hola aurkeztu zuten: "Erabat euskaraz izango da eta edukiak gehienbat kulturalak eta musikalak izango dira, arratsaldeetan haurrentzako saioak eta gauz gazteei bideratutakoak". Ba programa mutuak (kamera izkutuak) ordezkatu ditte hasierako asmuak. Dirurik ez ei dau... dana trenak eruen dau.

Izaskun Mujikak ipuin kontaketa saioa egingo du egunean

Lau urtetik aurrerako neska-mutikoendako ipuin kontaketa saioa eskainiko du Izaskun Mujika kontalariak egunean, hilak 27, bibliotekan (18:00).

Autobus zerbitzuaren gainera batzarra dago apirilaren 1ean

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua jarri zuen abian Aldundiak iaz, eta orain, hirugarren faseari ekingo diote. Herritarrekin egingo dute batzarra apirilaren 1ean, kultur etxean (18:30).



Haur Hezkuntzako ikasle bat iaz, Ibarako bertako lorategi baten landatzen. | ARAMAIOKO UDALA

ARAMAIO

Udalaren eta San Martin eskolaren eskutik, Zuhaitz Eguna apirilean

Lehen Hezkuntzakoek apirilaren 3an egingo dituzte landaketak San Adrian basiliza inguruan; Haur Hezkuntzakoek, berriz, apirilaren 7an, Ibaran

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
San Martin eskolak eta Udaleko Tokiko Agenda 21 ekimenak elkarlanean antolatzen dute Zuhaitz Eguna. Aspalditik antolatzen den ekimena da –eskola-
tik adierazi dutenez, izango dira 20 urte gutxienez– eta ordutik urtero errepikatzen da: "Haurrak oso gustura ibiltzen dira, asko gozatzen dute. Urtero errepikatzearen arrazoi nagusia da ikasleek erakusten duten interesa", adierazi du Udaleko Tokiko Agenda 21eko teknikari Jon Toñak.

Ekimenaren helburua "argia" da, Toñaren arabera: "Haur eta gaztetxoei ingurumenarekin eta biodibertsitatearekin lotutako sentsibilizazioa lantzeko ekintza da, haurrendako oso polita eta atsegina dena".

Helduenek, pagoak eta haginak
Aurten ere bi egunetan ospatuko dute Zuhaitz Eguna, bi talde-tan banatuta. Zuhaitzak landatzen lehenak Lehen Hezkuntzako ikasleak izango dira. Apirilaren 3an joango dira Kurtzeta gaine-

ko zelaitxo batera eta bertan, bi txandatan banatuta, 75 pago eta 25 hagin landatuko dituzte. Autobusez igoko dira Kurtzeta alde-
ra eta antolatzaileek goiz osorako irteera izango dela aurreratu dute. Eguraldi txarra eginez gero egun bat atzeratuko dute landaketa, apirilaren 4ra.

Gazteenek, gladioloak

Haur Hezkuntzako ikasleek, bestealde, apirilaren 7an egingo dituzte landaketak. Ibaran bertan landatuko dute eta aurten, Udaletik jakinarazi dutenez,

beste leku baten egitea pentsatzen ari dira: "Iaz elizaren atzealdean landatu zuten baina ez zen lore-
rik irten. Ez dakigu zehazki zergatik, baina seguruenik eguzki faltagatik izango zen. Beste leku aproposago baten bila ari gara aurten, iazkoa gertatu ez dadin", dio Toñak. Eguraldi txarra egiten badu apirilaren 8an izango da landaketa.

Lehen Hezkuntzako ikasleek landaketak non egin Koldo Aju-
ria basozainak aukeratu du; aurten ere San Adrian basiliza-
ren inguruan egingo dira. Ikasleek eskolan zuhaitzen ezaugarriak modu berezian lantzen dituzte eta klasean ikasitakoa praktikara eramateko aukera izaten dute gero.

Mokadutxo Udalaren eskutik
Zuhaitzak landatu ostean, eta goiza amaitzeko, ikasle guztiek mokadutxo egingo dute; txokolatea eta fruta jateko aukera izango dute. Hamaitzeko Udalak jarriko du, urtero egiten duen moduan.

ESANAK

"Errepikatzearen arrazoi nagusia da ikasleek erakusten duten interesa"

JON TOÑA | TOKIKO AGENDA 21

ANTZUOLA

Erretiratuak Debagoieneko karta joko txapelketan izango dira

Maiatzean Internet ikastaroa egiteko aukera izango dute elkarteko bazkideek

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Martxoaren 27an, eguenean, Arrasateko Abaroa erretiratu elkarteak Debagoieneko karta txapelketa jokatu dute.

Landatxope Erretiratu Elkar-
teko txapelketan ere han izango dira. Puntuan, Juanita Zabalo eta Pilar Agirrezabal; briskan, Mari Cruz Lezeta eta Nieves Sara-

legi; tutean, Mariano Urrutxi eta Felix Alonso; eta musean, Manuel Garitano eta Miguel Jauregi biko-
teak arituko dira.

Eguaztenean, gainera, Bermeora egingo dute irteera. Hain zuzen ere, Bermeo bisitatuko dute goizean eta horren ondoren Gatikara joango dira Lur jatetxean bazkaltzera.

Autobusa Antigua auzotik irtengo da eta bigarren geltokia Torresoroan izango duela gogora ekarri nahi izan dute Landatxo-
peko kideek.

Internet ikastaroa

Landatxoeko bazkideentzako Internet ikastaroa jarriko dute abian. Maiatzean egingo dute eta arratsaldetan izango da. Hamar orduko ikastaroa da.

"Internet ikastaroa eskaini gura dugu, erretiratu askoren interesekoa delako", azaldu digute elkartetik.

Interesa dutenek erretiratuen tabernan eman beharko dute izena apirilaren 2a baino lehen.

ELGETA

Ekintzaz jositako hasiera emango diote apirilari Udal Liburutegian

Adin guztientzako ipuin saioak eta umeendako itzal-txotxongilo tailerra antolatu dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Apirilaren 2a Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna da, eta apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna. Data esanguratsua da urtero Udal Liburutegian, baina aurten egitarau bereziki aberatsa gertatu dute adin guztietako herritarrendako.

Apirilaren 4rako, barikua, ipuinen ordu berezia iragarri dute. 3 eta 8 urte arteko neska-mutikoendako izango da, liburutegian, 17:20tik 18:15era. Boluntarioekin egindako lehen ipuin saio sortaren azkena izango da, eta aurrekoak baino luzeagoa.

Helduendako ere egongo da ipuin kontalari saioa apirilean. Amaia Arriaran bergararra

gonbidatu dute apirilaren 11rako liburutegira, eta saioa egingo du, 22:00etan hasita, 14 urte-tik gorakoendako.

Itzal-txotxongilo tailerra

Eñaut Gorbearen eskutik, berriz, itzal-txotxongilo tailerra antolatu dute apirilaren 15erako, martitzena. 4-11 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendua, arratsaldean egingo da, eta gehienez 24 laguneko taldeak onartuko dituzte. Talde bakarra edo bi sortzearen arabera finkatuko da ordutegi zehatza. Izen-ematea zabalik dago liburutegian apirilaren 8ra arte.

Aurten ere plazara aterako ditu liburuak udal liburutegian; apirilaren 16an izango da.



Elgetako Udal Liburutegia. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Jendetsu joan zen egueneko herri ekimena

Martxoko azkena oraingo asteko egubakoitzean da, garraio publikoaren gainean berba egiteko

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Martxoaren 28an (barikua) egin du hitzordua Gipuzkoako Foru Aldundiak Leintz Gatzagan. 18:30ean, osoko bilkuren aretoan herritarrekin elkartzeko batzarra deitu du, autobus zerbitzu publikoa dela-eta. Besteak beste, Diputazioko ordezkariak jakinaraziko dute Gatzagako joan-etorria egiten duten autobusen maiztasuna handitzeko asmoa dutela 2015ean.

Halakoak eta beste azalduko dute; izan ere, garraio publikoarekin lotuta, Gipuzkoako Diputazioak landu duen aurreproiektu orokorra aurkeztuko dute barikuan Gatzagan.

Ekarpen bat baino gehiago

Bestalde, joan den egueneko (martxoaren 20) herri ekimenari dagokionez, "oso ondo" joan

zela azpimarratu dute antolatu-
zaileek. "Aurrekontuak direla-
eta, jendeak Gaztainuzketari buruz galdetu zuen, ea Gaztainuzketako aurrekontua zertarako den, zer egin behar dugun, ea ondoko lurra erosteko asmorik badaukagun. Komentatu genien diru hori turismoa bultzatzeko zela espezifikoki, eta ezin zela beste gauza baterako erabili", kontatu du Mikel Gonzalez Ogasun zinegotziak.

Asier Ugarte Hirigintza zinegotziak ere modu positiboan baloratu du batzarra, "aurrekoan baino jende gehiago" izan zela dio (25 bat lagunek parte hartu zuen), eta kontatu du, besteak beste, turismo kontuez gainera, eskola propioa izateko aukeraren gainean ere galdetu zutela herritarrek, eskola txikien bitartez-edo bideratutakoa.

Goiena Klubeko martxoko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra
HARREMAN DENDARI esker
bidezko merkataritzako produktuez
osaturiko otar bat zozketatuko dugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Harreman



argia

Jokoak
Bizi Birzi eta Badakit
umeentzako joko pack bat
Parte hartzeko sariaren izena:
Jokoak



Telebista

- 22 hazbeteko led telebista
- TDT eta Full HD
- USB HD Player eta HDMI

Parte hartzeko sariaren izena:
Telebista

ARRASATEKO
HIPERMERKATUA



zurekin

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA



Antzuolako Oinatz Agirre eta UDAko Aritz Igartua, nor baino nor, atzoko derbian. | JOSETXO ARANTZABAL

EMAITZA

ANTZUOLA

0-2

ARETXABALETA

FITXA TEKNIKOA

Antzuola: Iturbe, Asensio, Lete, Longares, Agirre, Arana, Godoy, Ibañe, Aranzabal, Agirre (Linazisoro, 73. min.) eta Aranbarri.

Aretxabaleta: Castellano, Sanchez, Amutxastegi, Arriaran, Etxabe, Igartua, Rodriguez (Mar, 55. min.), Orueta (Eraña, 60. min.), Zaitegi (Arroitajuregi, 89. min.), Sanchez (Arizmendiarieta, 76. min.), Lopez (Perez, 65. min.).

Beste: Antzuolako eta UDAko zale ugari batu zen Eztalan, derbia ikustera.

OHOREZKO ERREGIONALA

Zortea lagun, Aretxabaletak irabazi Antzuolaren etxean

- ▶ Neurketa gogorra izan zen bi taldeek atzo, Eztalan, jokatu zutena
- ▶ UDAk zorteko bi jokalditan egin zituen bi golak, partiduen amaieran

IRATI GOITIA | ANTZUOLA

Ez zen giro Eztalako futbol zelaian, atzo. Euria gogor ari zuen tarteka eta baita haizea ere. Hala ere, asko izan ziren Antzuola eta UDaren arteko derbia ikustera joan zirenak, baita Aretxabaletatik ere.

Ohiko derbia

Bi taldeen arteko lehia gogorra izan zen. Parekatua eta tratatua. Zelai erdian oso borrokatua eta baloi luze askokoa.

UDA ondo ari da azkenaldian, baina Antzulakoentzat etxeko zelaia gotorleku izan ohi da eta

atzoko ere zail egin zitzaizkan kanpotarrei zelai txikira ohitzea.

Horrenbestez, ez zen talde bat bestearen gainetik gailendu, baina biek izan zituzten gola egiteko aukerak. Esaterako, UDAko Iker Sanchezek aukera garbia izan zuen markagailuan aurrea

hartzeko, Antzuolako atezainaren aurrean bakarrik gelditu zenean. Ez zuen, baina, ondo aprobetxatu. Antzuolako Ander Aranek ere izan zuen berea, falta jaurtiketa baten ostean, baina UDAko atezaina fin ibili zen. Azkenean, atsedenaldira, 0-0 emaitzaz.

Bigarren zatian, golak

Bigarren zatia ere lehenaren jarraipena izan zen. Hala, partidua hutseko berdinetarekin amaitu behar zela uste genuenean, bi ezusteko eman ziren. Norgehiagoka amaitzeko hiru minutu falta zirenean, Julen Zaitegik area barruan baloi solte bat jo, Antzuolako jokalarik baten bizkarean eman, atezaina despistatu, eta barrura. Horrek zorarena ekarri zuen jokoan. Azken minutuak azkarrak izan ziren, tentsioz beteak. Antzuolako jokalariek golaren bila hasi ziren. Hain justu, Mikel Gomezek izan zuen lehia berdintzeko aukera hegaletik erdiratutako baloi bati buruz ematean, baina ez zuen lortu. Halako batean, Antzuolako atezaina larregi irten eta Josu Arizmendiarietak ondo aprobetxatu zuen urrutiko jaurtiketa batekin UDaren bigarren zatia egiteko.

ASIER CASTELLANO | UDAKO ATEZAINA

"Lortutako hiru puntuak oso garrantzitsuak dira sailkapenaren goialdean jarraitu ahal izateko"

Pozik zegoen partiduen amaieran Asier Castellano UDAko atezaina. Izan ere, zail egin zitzaizkan jokatzeko zelai txikian, eta lortutako emaitzarekin gustura zegoen.

Markagailua hutsean gelditu behar zela pentsatzen genuenean...

Bai, lehenengoa errebotte batean sartu dugu zorte pixka batekin. Horrelakoak ere tokatzen dira. Ostean, hiltzeraino etorri dira guregana eta euren hutsegite bat aprobetxatu dugu.



I.G.

Tolosa eta Aurrerarekin puntutara berdinduta zeunden. Gaurko garaipena garrantzitsua da.

Bai, oso garrantzitsua. Sailkapeneko aurreko postuetan gaude, eta ea hor jarraitzen dugun.

Hurrengo lehia ere hil ala bizikoa da, Aurreraren etxera zoazte.

Norgehiagoka zuzena da, finala. Ea irabazten dugun... Partiduz partidu joan behar gara ahal dugun guztia egiten, hor goian jarraitzeko.

JON ITURBE | ANTZUOLAKO ATEZAINA


"Gaurkoan ere ezin izan gara mailari eusteko lortu beharreko 40 puntuetara ailegatu"

Jon Iturbe pozik zen eginko lanarekin, baina emaitzarekin ez zegoen horren gustura.

Partidua nola amaitu den, pena...

Lehia nahiko ona egin dugu, baina amaieran nahiko zorte txarra izan dugu. Bage-nekien UDA oso ondo zebilela, baina zelai honetan talde guztiek sufritzen dute eta irabazteko esperantza genuen.

Gaurkoa mailari eusteko behar diren 40 puntuetara heltzeko aukera ona zen...



I.G.

Bai, baina ezin izan da izan. Ea hurrengo astean Zarautzen eskuratzen ditugun puntuak. Lortzeaz gaude, baina azken bi norgehiagokak galdu egin ditugu eta pixka bat kostatzen dabil. **Zarautz sailkapenean behean dabil. Hori izango al da zuen aukera...** Saiatuko gara, baina etxetik kanpora asko kostatzen zaigu irabaztea. Zarautzek ere behetik irte-teko garaipena behar du eta lehia gogorra izango da.



Baloia domeinua izan zuten bergarrek partidu osoan. | IMANOL SORIANO

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

Menderatu arren, Bergarak ezin izan zuten golik egin

Aloñako mutilak, aldiz, hiru punturekin itzuli ziren Anaitasunaren zelaitik

EMAITZA

BERGARA

0-0

HONDARRIBIA

MIRIAN BITERI | BERGARA

Bergarrendako gazi-gozoa izan zen zapatuan Hondarribiaren kontra etxean jokatuak norghegiagokaren emaitza. Bergarak partidu osoan baloia kontrola izan bazuen ere, ezin izan zuten golik egin, eta berdinketarekin

amaitu zen lehia. Lehen zatian, bosgarren minutuan izan zuten Aitor Arrateren mutilek gola sartzeko lehen aukera, baina baloia zutina jo zuten; eta atsedendaldira arte ez zuten aukera garbi gehiagorik izan. Bigarren zatian, ordea, bat baino gehiago izan zituzten, baina ez ziren gai izan aurkariaren atea zeharkatzeko, eta, esan bezala, 0-0 bukatu zen partidua.

Aloña Mendik lan asko

Bestalde, Aloña Mendi hiru punturekin itzuli zen egun berean

Azkoitiko Txerloia futbol zelaitik. Lan asko egin behar izan zuten Andoni Azkargortaren jokalariek, baina merezi izan zuten, 0-1 irabazi zioten-eta bigarren dagoen Anaitasunari.

Lehen zatian oso parekatuta ibili ziren bi taldeak, baina 43. minutuan oñatiarrak aurreratu zituen Unai Bikuñak. Bigarren zatian erasoari ekin zioten Anaitasunakoek, baina defentsan ondo ibili eta azken hamar minutuetan Aloña Mendi hamar jokalarirekin geratu bazen ere, etxeke ezin izan zuten berdinketa lortu.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Garaipenarekin itzuli ziren arrasatearrak Tolosatik

M.B. | ARRASATE

Mondrako jokalariek 1-2 nagusitu ziren Tolosako Berazubi zelaietan, eta hiru punturekin bueltatu ziren etxera. Partiduan sartzea kosta egin zitzaion, zelaia belar naturalarekin zelako eta ez daudelako ohituta baldintza horietan jokatzera. Hala, atsedendaldira 0-0 heldu ziren.

Bigarren zatian, jokaldi azkar batean heldu zen Gotzon Urtzelaiaren mutilen lehen gola; Tolosak bere atean sartuta iritsi zen gol hori. Handik ordu laurden batera, bigarren gola egin zuten arrasatearrek; hain justu, Aitor Azkarete sartu zuen. Eta partidua amaitzeko 20 bat minutu falta zirela, 1-2koa heldu zen. Hortik aurrera, tolosarrek berdinketa lortu ez zezaten lan egin zuten Mondrakoek. Saikapenean, seigarren badaude ere, Soraluze liderra sei puntura dute.

BIGARREN MAILA

Esku hutsik bueltatu ziren Mondrako neskek Bilbotik

M.B. | ARRASATE

Bazekiten ez zela samurra izango Abantori irabaztea, eta horrela izan zen: Mondrako neskek 7-0 galdu zuten atzo goizean Bilbon. Orain arte jokatuak ildo beretik joan zen lehia. Atsedendaldian 3-0 galtzen zuten arrasatearrek, eta bigarren zatian ere antzera ibili ziren. Gola sartzeko aukeraren bat edo beste izan zuten Andoni Ezkurrak entrenatzen dituen neskek, baina ez zuten zorterik izan.

Ezkurrak berak jakinarazi digu oso partidu gogorra izan zela atzokoa, eta ez bakarrik emaitzagatik, baita norghegiagoka osoan izandako eguraldi kaskarragatik ere.

Gaineratu digu esku hutsik baina Bilbon egindako esfortzuagatik pozik itzuli zirela Arrasatera.

IGOERA FASEA

Arizmendik 2-1 galdu zuten Zumaiakoren kontra

M.B. | ARRASATE

Emakumezkoen igoera fasean, Arizmendiko neskek 2-1 galdu zuten zapatuan etxetik kanpo Zumaiakoren kontra jokatuak partiduan. Norghegiagoka hasi eta lehenengo hogeita minutuetan ondo ibili ziren debagoiendarrak, baina atsedenera heldu aurretik, lehen gola sartu zuten zumaiarrek.

Bigarren zatian hasi bezain azkar sartu zuten aurkariak bigarren gola kórnerretik. Orduan erreakzionatu zuten Arizmendikoek, Zumaiakoren atera behin eta berriro gerturatu. Partiduaren azken ordu laurdenean, aukera asko sortu zituzten, baina aurkariaren atezaina fin ibili zen eta gol bakarra egin ahal izan zioten; Maite Arantzabalek sartu zuen, falta jaurtiketa on baten bidez.



1. ERREGIONALA KOPA

Arizmendi gainera pasa zen

Zapatu arratsaldean Aretxabaletako Ibarran jokatuak partiduko hiru puntuak etxean geratu ziren, Arizmendik 3-0 menderatu zuen-eta Soraluze. Saikapenean bigarren postuan daude aretxabaletarrak, 24 punturekin. Bergara liderra puntu batera baino ez dute orain, azken horrek berdinketa lortu zuen-eta etxetik kanpo. Asteon, Bergara eta Arizmendiren arteko lehia erabakigarria jokatu da.



1. MAILA IGOERA FASEA

Hiru puntu Bergararendako

Gaztetan, 1. mailako igoera fasean, Bergarak 3-1 irabazi zion Tolosari, zapatu arratsaldean Ipintzan izandako partiduan. Lortutako hiru puntuei esker, saikapenean zortzigarrena izatetik zazpigarrena izatera pasa da, eta seigarren dagoen Ostadar taldea puntu batera du. Asteon liderraren kontra jokatu dute bergarrek; hain justu, orain arteko partidu guztiak irabazi dituen Burumendiren kontra lehiatuko dira.



ARETO FUTBOLA

Allerruri irabazi zion Aretxabaletak

Areto futbolean, Gipuzkoako lehen mailan, Aretxabaleta eta Allerru taldeen arteko norghegiagoka jokatu zen joan den egubakoitzean, Ibarran. Lehia etxeke izan zen, 7-5 gailendu ziren Allerru taldekoen aurka. Saikapenean bigarren daude aretxabaletarrak, 28 punturekin. Asteon bosgarrenaren kontra lehiatuko dira; hain justu, Gamonen aurka izango da, lehia haren etxean.

LEHENENGO MAILA

Iturripen gotorleku bihurtuta, beste garaipen bat etxean

Hirugarren laurdenean erabaki zuten partidua Arrasateko mutilek

EMAITZA
MU
89-63
FUNDACION 5+11

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Hogeita bost minutuz, aurkari duina izan zen Gasteizko taldea; ostean, amore eman zuten eta norgehiagoka amaiera lasaia izan zuten Larreategiren mutilek. Hala ere, hirugarren laurdenera arte, hainbat momentutan bazterrak nahasi zituen Fundacion 5+11 taldeak, Arrasatekoen jokoa trabatuz eta erasoan huts egiteak eraginez.

Garaipena, ordea, Iturripen geratu zen, beste behin; denboraldi osoan ez dute punturik galdu bertan Arrasatekoek, eta hemendik eta amaierara EBA mailarako txartela lortzeko gotorleku izaten jarraitu beharko du Iturripeneko kantxak.

56 puntu saski azpian

Gasteizko taldea hanka motz etorri zen zapatuan Iturripena, izan ere, taldeko bi pibotak min hartuta zeuden eta ez zuten norgehiagokan parte hartu. Hori horrela, MUkoek min handia egin zioten Caja Laboral Baskonia taldeko filialari: 56 puntu egin zituzten saski azpian, 14 Paul Isasak.

Partidua gogor hasi zuten etxe-koek, eta defentsan lana eginez, zortzi puntuko aldeaz amaitu zuten lehenengo laurdena (17-9).



MUko jokalaria Barrena eta Atxa, erasoan. | IMANOL SORIANO

Bigarren laurdenean, Mikel Arejolaleibak estreinatu zuen markagailua, bi hiruko jarraian saskiratu; eta markagailuan alde polita lortu bazuten ere, hiru minutu txar egin ostean, Fundacion 5+11koak gerturatu egin zitzaizkien. Gasteizko jokalariek, barneraketekin, min handia egin zioten Arrasateko defentsari, eta etxe-koak erasoan hiruko marratik saiatu baziren ere, ez ziren fin ibili. Atsendaldira heltzeko bi minuturen faltan, Larreategik hutsartea eskatu zuen eta ostean beste talde bat kantxaratu zuela zirudien. Kantxa

osoan presioa egiten hasi ziren etxe-koak; eta taldea kontraerasoan fin eta baloiak saski azpira sartzen hasi zen, Isasaren altuera aprobetxatzeko. Aldageletarako bidea 40-32ko markagailuarekin egin zuten.

Laurden erabakigarria

Hirugarren laurdenean partidua erabaki zuten etxe-koek. Nahiko parekatuta hasi zen arren, kontraerasoan ondo jokatuz eta batez ere defentsan estutuz, hamabosteko alde lortu zuten laurdena amaitzeko lau minutu falta zire-

nean (57-42). Lau minutu horietan ere, bosgarren martxa sartu zuten arrasatearrek, Arejolaleiba eta Cegiagaren gidaritzapean, eta partidua guztiz erabakita utzi zuten. Izan ere, azken hamar minutuetan, Gasteizkoek amore eman zuten, eta falta asko egon ziren arren, bi puntuak Iturripen geratuko zirela argi zegoen.

EBA mailarako txartela lortzeko beste urrats bat eman zuten zapatuan Larreategiren mutilek, eta datorren asteko Tabirakoren aurkako neurketari begira amaitu zuten norgehiagoka.



MIKEL AREJOLALEIBA
MU-KO JOKALARIA

"Duela hiru urte partidua azken minutuetan galtzen genituen, orain oster, irabazi"

Aurten ez duzue partidurik galdu Iturripen, horrek konfiantza ematen dizue?

Bai, gure kantxa da; badakigu baloiak non egiten duen bote ondo, errebotek nora irteten diren... gustura sentitzen gara etxean jokatzen. Gainera, pixkanaka, jende gehiago etortzen da taldea animatzera eta hori eskertzekoa da. Denboraldia horrela amaitzea gustatuko litzaiguke, etxe-ko partidu guztiak irabazita.

Horrek suposatuko luke liderraren aurka ere irabaztea.

Bai, Tolosan bost puntuko aldeagatik galdu genuen, baina oraindik hemendik pasatu behar dira. Hala ere, argi daukaguna da partiduz partidu joan behar dugula. Beste guztiak irabazi ezean, partidu hori irabazteak ez luke askorik balioko.

Denboraldi borobila, gainera, etxe-ko gazteekin.

Polita da. Duela lau urte, beteranok alde egin zuten, txarto pasatu genuen, baina pixkanaka esperientzia hartu dugu. Aurten, gainera, Kintana etorri da bueltan eta partiduetako azken minutuak jokatzeo lasaitasuna eta konfiantza handia ematen dizkigu. Duela hiru urte, partidua azken minutuetan galdu egiten genituen; orain irabazi egiten ditugu.

EBArak igotzea da helburua?

Talde bezala, lehenengo postua lortzea da gure helburua, horretarako darabagu urte osoan lanean.



PROBINTZIALA

IMANOL SORIANO

Denboraldi amaiera zaila Oñatin

Zazpigarren porrota jarraian jaso zuten zapatuan Natra Oñatiko mutilek. Zarautzen aurka 59-90 galdu zuten Zubikoan, eta bolada txarrean dabilta oñatiarrak. Denboraldia amaitzeko lau norgehiagoka geratzen zaizkie Zuhaitz Gonzalezen mutilei, eta mailari eusteko partidu gogorak jokatu beharko dituzte, besteak beste, Arri-BKL liderraren aurka datorren astean bertan.

BIGARREN MAILA

Liderraren aurka galdu arren, partidu ona jokatu zuten Eskoriatzakoek

EMAITZA
TALDEA
42-46
TALDEA

J.D. | ESKORIATZA

Liderra hartu zuen etxean Eskoriatzak egubakoitzean, eta garaipena eskura izan bazuten ere, bi puntuak Donostiara alde egin zuten. Partidu oso borrokatua izan zen, eta norgehiagoka galtzearen gakoak azken laurdenean huts egindako jaurtiketa libreetan egon zen; bederatzi jaurtiketa huts egin zituzten etxe-koek.

Lehenengo laurdena markagailuan ginetik zeudela amaitu zuten, Fernando Raso entrenatzailearen arabera, defentsan sekulako lana eginez. Hurrengo laurdenean, Alde Zaharra talde-koek aurre hartu zuten markagailuan eta partidu osoan zehar lau eta bederatzi puntu arteko errentarekin jokatu zuten. Norgehiagokako azken minutura, hiru puntuko aldearekin heldu ziren Eskoriatzakoak, hala ere, ez zuten behar bezala jokatu eta partidua galdu zuten.

Galdu arren, harro

Rasoren esanetan, taldeak esfortzu ikaragarria egin zuen eta oso



Izar Bedia. | IMANOL SORIANO

harro amaitu zuten egindakoaz; duela bost aste, Alde Zaharra taldearen aurka 25eko aldeagatik galdu zuten, eta egubakoitzean galdu arren, taldeak pozik amaitu zuten egiten lanagatik.



Soraluce BKE taldeko mutilak gogor aritu ziren erasoan. | IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA

Haginak erakutsi dizkiote Soraluce BKE-koek liderrari

Partidu gogorra eginda, berdinketarekin puntu bat eskuratu dute bergarrek

EMAITZA

SORALUCE BKE

26-26

UCIN ALUMINIO

MAIDER ARREGI | BERGARA

Maila polita erakutsi zuten Jose-txo Muniategiren mutilek zapatuan jokaturako partiduan. Ez zuten nolanhiko aurkaria, gainera, baina liderraren kontrako partiduan puntu bat ateratzea lortu zuten Bergarako mutilek.

"Oso ondo ikusi dut taldea, partidu ona egin dugu, beldur gabe jokatu dugu. Defentsan lan ona egin dugu eta erasoan ere polito moldatu gara", azaldu zuen Josetxo Muniategik.

Partidua bere osotasunean ikusita, berdinketa merezitako emaitza dela gaineratu zuen. Bigarren zatian garaipena eskuratzeko aukera aparta izan zuten, ordea: "Bigarren zatian gehiago izan ginela uste dut. Guk, gainera, bat gehiago izanda zelaian, eskura izan genuen garaipena izateko aukera. Baina aurkariak,

une batean, aurretik jarri zitzaizkigun, nahiz eta bat gutxiagorekin jokatu. Hor egon zen partidua eta huts egin genuen", azaldu zuen entrenatzaileak.

Hurrengo partidua Donostian

Egiaren aurkako partidua ez da erraza izango. Jaitsiera postuetan dago talde donostiarra eta dena emango du puntuak lortzeko. "Gogorra izango da, azken postuan daude eta. Puntuak eskuratu nahiko dituzte. Hil ala biziko partidua izango da Egiarendako", zioen Muniategik.

ESKUBALOIA

Erasoan eta defentsan flojo aritu dira arrasatearrak

M.A. | ARRASATE

Trapagan jokatu zuten partidua Ford Mugarriko mutilek zapatuan. Partidu eskasa eginda, galdu egin zuten: 33 eta 25 geratu zen markagailua.

Lehen zatian partidua parekatua izan zen arren, bigarren zatian etorri zitzaizen beherakada. "Hamaika jokalaririk joan ginen bakarrik eta fisikoki behera etorri ginen bigarren zatian; hauts eginda bukatu genuen", azaldu digute jokalariek.

Erasoan eta defentsan flojo aritu zirela gaineratu digute Ford Mugarriko mutilek.

Datorren astean Pulporen aurkako partidua dute etxean. Pulpo sailkapen orokorrean azkenengo postuan dago eta partidua itxura batean ondo ikusten dutela esan digute Arrasatekoek.



DUATLOIA

@BENATARNAIZ

Beñat Arnaiz Altsasun garaile

Zapatuan egin zen Altsasuko bosgarren duatloia eta, eguraldia lagun izan ez zuten arren, podiumeko lehen bi postuak debagoiendarrentzako izan ziren. Lehen postua Beñat Arnaiz aretxabaletarrarendako izan zen; eta bigarrena, Ander Agirre bergararrarendako; biak dira Antxintxika taldeko atletak. Altsasuko proban, 185 kirolarik hartu zuten parte eta 29,5 kilometroko ibilbidea egin zuten eurpean.



TXIRRINDULARITZA

IMANOL SORIANO

Puntako txirrindulariak gurean

Sprint estua eginda, Onditz Urruzmendi izan da azkarrena aurtengo Labegarrietako Sarian. 178 txirrindularik hartu dute parte 82 kilometrotako lasterketan. Maila altua egon da, izan ere, Euskal Herriko taldeez gain, kanpotik etorritako hainbat puntako txirrindulari aritu dira —tartean Fundacion Alberto Contador taldekoak—. Bergarako lehen Mikel Mujika (Bolintxo Okindegia) izan da.



TXIRRINDULARITZA

DORLETAKO AMA TALDEA

Aranburu eta Estevez lehenak

Zapatuan, Dorletako Ama taldeak Oñatiko lasterketan parte hartu zuen. Txirrindulariak hiru kategoriatan lehiatu ziren: benjamin, alebin eta infantil mailatan, hain justu. Alebinetan, lehenengo neska Dorletako Ama eskolako Garazi Estevez izan zen. Iñigo Aranburu, aldiz, azkarrena izan zen infantiletan. Hilaren 29an Eskoriatzako Saria jokatu da, 16:30ean hasita.



PILOTA EGOKITUA

IMANOL SORIANO

Palaz maila altua erakutsi dute

Zapatuan, Bergarako Udal pilotalekuan eman zitzaion hasiera Euskal Pilota Egokituko IV. Gipuzkoako Txapelketari. Bertan, adimen urritasuna duten kirolariek parte hartu zuten. Pilotariak paletaz aritu ziren lehian. Hiru jardunaldiko ligaxka jokatu da, eta finala ekainaren 28an ospatuko da; pilotalekua zehazteke dago oraindik. Gainera, finalean, eskuko partidaren bat ikusteko aukera izango da.

SKATE-A

Natxo Aguado tolosarraren ausardia eta erakustaldi bikaina, garaile

- ▶ Mattin Rozas eta Dani Lopez debagoiendarrak podiumera igo ziren
- ▶ 9tik 18 urte bitarteko gaztetxoek maila ezin hobia erakutsi zuten zapatuko txapelketan

MAIDER ARREGI | BERGARA

"Lokatza!" oihu eginda, skaterrek akrobazia eta salto politak eskaini zituzten zapatuan Bergarako Lainon jokatuako Gipuzkoako Skate X Games txapelketan. "Esfortzu handiaren ondorioz lortutako emaitza da hau", kontatu zigun Natxo Aguado irabazleak, pozik. 16 urte ditu eta futbola alde batera utzi du skate-an buru-belarri zentratzeko.

Zalantza gabe, skate-aren aldeko apustua borobil irten zaio gazte tolosarrari, eta pixkanaka sekulako aurrerapausoak ematen ari dela azaldu zigun Hodei Elexpuru txapelketako epaileak: "Mutikoak diren arren, askok nagusien maila dute. Azkar eboluzionatzen dute hilabete gutxian eta maila altua da".

Finala, ordea, estu-estu izan zen. Izan ere, Mattin Rozas arrasatearrak maila paregabea erakutsi zuen. Buruz buruko polita eskaini zuten Rozasek eta Agudok. Erakustaldiaz gozatu egin zuten ikusleek. "Jendea oso ona da, eta zaila dago irabaztea", nabarmendu zuen Rozasek.

12-15 urte arteko kategorian, bigarren postua Lur Vazquez tolosarrarendako izan zen. Hirugarren postuan, aldiz, Dani Lopez arrasatearra geratu zen. Maila ezin hobia gure ibarrean dagoena, baina zer da epaimahaiak baloratzen duena? Hodei Elexpuru azaldu zigun: "Gorputz-bira egiteko modua. Gero eta erraza go eta suabeago, hobeto baloratzen dugu; erraz egiten badu, zantzerkia gabe, zaila den seinalea da. Truko baten eta beste baten artean lurra gutxi zapaltzea ere asko baloratzen dugu. Trukuak bata bestearen segidan erraz egitean datza gakoak". Zapatuan, modulatik modulura salto egitea eta skate parke osoan ibiltzea baloratu zioten epaileek irabazleari.

Finala, Donostian

Txapelketako hiru irabazleak maiatzaren 17an Donostian jokatu den finalerako sailkatu dira. 12 urtetik beherakoen artean, Unax Navarro; 12 eta 15 urte bitartekoen artean, Larrun Barretxea; eta 15-18 urtekoen mailan, Natxo Aguado.



Mattin Rozas arrasatearra, skate-aren gainean finaleko truko bat egiten. | IMANOL SORIANO



Finaleko sailkapen fasean, gazte bat saltoa egiten. | IMANOL SORIANO



Natxo Aguado, irabazlea. | MAIDER ARREGI



15-18 urte arteko txapeldunak, Navarro partaide txikienarekin. | IMANOL SORIANO




MATTIN ETA NATXO SKATERRAK

"Afizio handia dago. Azkar eboluzionatzen da eta denbora gutxian asko aurreratzen du jendeak, baina esfortzu eta dedikazio handia eskatzen du; entrenamendu saio handiak, egunero-egunero, gainera".



UNAX NAVARRO SKATERRA

"Parte-hartzaile txikiena naiz; 9 urte ditut. 4 urte nituenetik ari naiz kirol hau praktikatzen. Denbora gutxian asko ikasi dudala esan didate epaileek eta oso ausarta naizela [kar-kar]. Askok gustatzen zait skate-a".



ARTIO, AZZEDDINE ETA KARTA SKATERRAK

"Goierri Roller Skate Elkarteko patinatzaileak gara. 18 urtetik beherakoendako txapelketa da eta guk ezin dugu parte hartu. Gaur ikusle gisa etorri gara Beasain eta Zumarragatik Bergarara. Gaztetxoaren artean ikaragarriko maila dago eta asko txapelketa garrantzitsuetan ere izan dira. Guri kalean ibiltzea gehiago gustatzen zaigu: barandetan, aldapetan... baina gaurko txapelketa oso polita da ikusteko. Lagun bat, gainera, epaile lanak egitera etorri da Lainora".



BENI LAVER SKATERRA

"Hiruzpalau urte daramatzat patinatzen. Finalera iritsi naiz eta oso gustura nago. Hirugarren postua eskuratu dut. Askok praktikatzear gain, kontzentrazioa eta erlaxazioa oso garrantzitsuak dira kirol honetan".

Ixa Rodriguez | Espainiako boxeoko txapeldunorde

"Lehenengo rounda arerioa aztertzeke erabiltzen dut, bigarrena berriz, irabazteke"

- Madrilen egindako Espainiako txapelketetan zilarrezko domina eskuratu du Rodriguezek
- Borrokaldiak prestatzeko astean sei aldiz entrenatzen du Soraluzeko boxeolariak

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Duela bi aste Madrilen egin ziren Espainiako Boxeo Txapelketetan zilarrezko domina eskuratu zuen Ixa Rodriguez boxeolari soraluzearrak. Bilboko Lopabox taldearekin, 48 kiloko euli pisu arineko mailan dihardu duela bi urtetik. Ixak kirola du pasio eta ogibide. Soraluzen bizi, Bilbon entrenatu eta Arrasateko Irudi Sport gimnasioan lan egiten du. Han egin dugu berarekin hitzordua boxeolari buruzko hitz egiteko, eta hau da kontatu diguna.

Espainiako txapelketako finala jokatu zenuen. Nola joan zitzaizun Madril aldean?

Nik ez neukan zilarrezko domina eskuratzeko inongo esperantzarik. Oso jende ona zegoen txapelketan eta finalera iristea sorpresa izan zen niretzat egia esan. Kanporaketak irabazten joan nintzen finalera heltzea lortu nuen, eta aipatu beharra daukat oso borrokaldi ona egin nuela bertan.

Lehenengo rounda oso ondo egin nuen. Bigarreanean, bi kolpe jaso nituen baina oso ondo borrokatu nuen orohar. Arerioak, nik baino fisiko eskasagoa zuen, eta hori nire alde baliatzen saiatu nintzen. Ematen zidan kolpe bakoitzeko, hiru ematen nizkion. Ringetik jaitsi nintzen irabazi egin nuela uste nuen, esan bezala oso sentsazio onak izan nituelako borrokaldian zehar. Epailerek baina nire aurkariari eman zioten garaipena, eta aitortu behar dizut ez nuela beraien erabakia ondo ulertu.

Txapelketan baina oso ondo borrokatu zenuen, finalera iritsi arte...

Bai, oso borrokaldi onak egin nituen. Ostegunean lehenengo borrokaldia izan nuen, zapatuan bigarrena eta domekan azkena. Egunek aurrera egin ahala gora egin, eta boxeatzeko modua hobetzea lortu nuen.

Zure pisutik behera lehiatu zinen Espainiako txapelketan. Nola lortu zenuen 48 kilotan iristea?

Jaten dudana asko zaintzen dut. Gure entrenatzaileak, Josu Lopategik, oso estu hartzen gaitu eta jaten duguna egunera kontrolatzen digu. Oso zorrotza da gurekin. Pasta, arroza, atuna... Horrelakoak jaten ditut, jateko garbiak diren elikagaiak.

Soraluzen bizi, Arrasaten lan egin eta Bilbon entrenatu. Estresatuta bizi zarela dirudi...

Bai (barre). Kotxean musika entzuten nagoela laneko koreografiak prestatzen ditut. Gero, etxera bueltan lasaitzen saiatzen naiz, deskantsua bera ere entre-



Ixa Rodriguez, Arrasateko Irudi Sport gimnasioan. | MIKEL ARREGI

namenduaren parte delako.

Nolakoak izan ohi dira zuen entrenamendu saioak?

Entrenatzen borrokaldi gutxi egiten ditugu normalean. Josuk gure akatsak zuzentzen dizkigu eta taldean konponbideak aurkitzen saiatzen gara. Esan baita, entrenamenduen maiztasuna sasoika joaten dela. Orain adibidez, astean birritan entrenatzen gabilta, Espainiako txapelketa duela aste pare izan zelako.

Borrokaldi baten aurretik baina, astean bost edo sei aldiz

"Entrenatzaileak oso estu hartzen gaitu, oso zorrotza da gurekin"

"Zuk nahi duzuna argi badaukazu, ez dago geldituko zaituen inor"

entrenatzen dut, baita igandetan ere. Oso gogorra izaten da. Nik gimnasioan egiten dut lan, eta arratsaldean entrenatzera joaten naizen askotan oso nekatuta egoten naiz. Egun horietan, teknika lantzen saiatzen naiz.

Bi urte daramatzazu boxeoa. Nola sartu zinen boxeolari?

Kick-boxingarekin hasi nintzen. Behin Eibarren borrokaldia izan nuen, eta Josu ezagutu nuen bertan. Entrenatzeko proposamena egin zidaten, eta hor hasi nintzen saltsa honetan.

Zure ustetan, ze ezaugarri behar ditu boxeolari on batek?

Gogoak izatea. Zuk zer nahi duzun argi badaukazu, ez dago munduan geldituko zaituen inor. Entrenatzeko gogoak izan behar dituzu, eta gero laguntza egokia izatea ere beharrezkoa da. Boxeoa ospe txarra dauka, baina argi esan behar dut kirol oso polita dela. Neska-mutilak borrokatzen dabiltzanean ez daude taberan, eta hori oso positiboa da. Borrokaldi baterako prestatzen bazabiltza, asko zaindu behar duzu zure burua: ez alkoholik ezta tabakorik ere. Guraso asko oso pozik daude boxeorekin, beren seme alabei bide onetik joateko aukera ematen dielako.

Nola bizi duzu boxeoko gau bat?

Borrokaldia izan behar den lekura bi ordu lehenago iristen gara normalean. Epailerek pisua neurtzen digu, eta gero inguruetatik paseo bat ematen dugu. Haizea hartuta, ordu beteran faltan edo, aldageletan sartzen gara, eta borrokaldirako prestatuta hasten da. Speakerraren ahotsa entzutean urduri jartzen hasten zara, eta horrela jarraitzen duzu borrokaldia hasi arte.

Behin ringaren gainean, lehenengo rounda arerioa aztertzeke erabiltzen dut, eta bigarrenetik aurrera topera lehiatzen naiz, irabaztera. Arerioa akabatzea besterik ez dut izaten buruan! (Barre) Eta hori oso pertsona lasaia naizela, bestela...

Boxeoa dirudiena baino alderdi psikologiko handiagoa dauka...

Zalantza barik. Zer jaten duzun garrantzitsua izaten da gero borrokaldian kontzentrazioa mantentzeko. Madrilen esaterako gaizki janda joan nintzen eta lehenengo borrokaldian asko kostatu zitzaidan martxan jartzea.

Horrelakoetan, zer da entrenatzaileak korerretik esaten dizuna?

Lasaitzeko eta arnasa sakon hartzeko. Oso urduri jartzen naiz, eta berak lasai borrokatzeko aginduak ematen dizkit. Gero akatsak zuzentzen ere saiatzen da. Nik, gimnasioan lantzen dudana fisioa erabiltzen dut arerioak menperatzeko, eta teknika alde batera uzten dut askotan. Hori izan daiteke nire puntu ahula. **Ze helburu dituzu datozen hilabeteetarako?**

Apirilaren 26an Euskadiko txapelketan hartuko dut parte, eta uztailan berriz Santander alde-ra joango gara. Horiek izango dira nire hurrengo erronkak, eta guztietan emaitza positiboak jasotzea espero dut gainera.

Desobeditzailea eta desafiatzailea... Zer gertatzen zaio haurrari? Nola aurre egin?

Sara Tarres psikologoak ondorioak koherentziaz betearaztea gomendatzen du

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Haur desobeditzaile batekin egunero indarrak neurtu beharra izatea nekagarria da eta huts egitearen sentsazioa ematen du. Haurra, gainera, desafiatzailea bada, lana zinez korapilatzen da. Baina zer da desafiatzaile izatea? Bada, behin eta berriz gu proban ipintzea, erronka botatzea, guztia eztabaidatzea eta beti bere gustua egin beharra izatea.

Arrazoen bila

Sara Tarres psikologoaren esanetan, ez dago arrazoi konkreturik azaltzeko ume baten desobedientzia jarraitua eta sistematikoa edo jarrera desafiatzailea. Aditu batzuek aipatzen dituzte arau eta muga falta, gurasoen ahultasuna, baita gainbatesa edo arau eta muga zorrotzegiak.

Zenbait kasutan, desoreka psikologikoak egon daitezke horrelako jarreraren atzean, baina, Tarresen esanetan, gehienetan, galduta eta berdurtuta dauden umeen erreakzioak dira, gurasoen arre-



Aitak semeari gomendioak ematen. | BEKIAPADRES.ES

ta etengabea eskatzen duten jarrera horiekin. "Heldutasunik eza, aurretik gainditu beharreko etapak gainditu ez izana eta emozioen kudeaketa eskasa dago kasu askoren atzean. Baita jelskoratasuna ere", dio.

Nola aurre egin

Arauk modu argian eta motzean azaldu behar zaizkie, eta ez bete-

tzeari ondorio bat ezartzen badiogu, bete egin behar dugu egoerak horretara eramaten bagaitu. Probakazioek ez dute guregan erreakziorik sortuko, baina ez dugu beste alde batera begiratu esandakoa betetzen ez bada. Ezarritako ondorioa bakarrik aplikatu dugu. Ahal den neurrian, txiliorik egin gabe, eta aurretik abisu bat –bakarra– emanda.

Erritmoari eusteko, nerabeek gutxienez bederatzi ordu egin beharko lituzkete lo

Adin tarte horretan loaren zikloak aldatu egiten dira, eta hortik datoz goiz jaikitze zailtasunak

I.G. | ARRASATE

Zure semeak 12 edo 13 urte bete ditu, eta lehen zapatu goizak telebista aurrean edo kirola egiten igarotzen zituen horrek, orain, orduak eta orduak ematen ditu ohean sartuta. Hartza balitz bezala, lozorroan dago? Ez dago asaldatzeko arrazoirik, urte batzuen buruan guztia bere horretara bueltatuko da-eta.

Gezurra badirudi ere, barne prozesu arrunt bat besterik ez da. Guztiok gure zikloak kontrolpean mantentzen dituen 'barne erloju' bat dugu, eta nerabezaroan gorputzak bezala, aldaketa batzuk izaten ditu. Loaren zikloak aldatu egiten dira eta gazteak gaueko hamakak bitarte ez du lo egiteko premiarik nabaritzen; horren ondorioz, goizean kostatu egiten zaio jaikitzea.

Lo egitea beharrezkoa

Nerabe batek bizimodu osasuntsua eroan ahal izateko, gutxienez bederatzi ordu egin behar ditu lo. Horri esker, bere eguneroko bizitzak eskatzen dion energia kargatzeko astia izango du; zoritxarrez, baina, ordu kopurua ez da beti betetzen.

Duela gutxi argitaratu den ikerketa baten arabera, nerabeen %90ek ez dute behar adina lo egiten. Ehuneko handi horren atzean, gainera, gailu elektronikoa daude. Adituen ustez, gaztea ohera sartzean, lo egin beharrean, sakelako telefonoarekin entretenitzen da eta horrek lo orduak gutxitzen dizkio.

Hori ekiditeko jarraibideak errazak dira: zure semeak gailu horiekin igarotzen duen debora mugatuz, bere arreta areagotzen lagunduko diozu.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

JAKINGAI

Damutu aurretik hobe aurre egitea

Arantza Hernandez

Lanbide Heziketako irakaslea

Haur-loditasuna mende berriko epidemia edo pandemia da, eta osasun publikoaren arazo garrantzitsuenetariko bat. Duela urte batzuk ume lodikotea izatea osasun seinale zen. Gaur egun, ordea, hainbat arazoren iturri da, hala nola arazo fisikoak —kardiobaskularrak, gibeleskoak, loaren alterazioa, hipertentsioa, diabetesa, hezur eta giltzaduren alterazioak— zein arazo psikologikoak —autoestimua baxua, isolatze soziala, diskriminazioa...

Faktore kaltegarriak

Haurraren loditasuna genetikoki jasotako gaixotasun endokrinoa izan daitekeen arren, gehientsuenetan, ingurune faktoreen —dieta desegokia eta mugimendu gutxi ohiturak—, eta faktore psikologikoen —estresa, asperraldia edo arazo emoziona-

lei aurre egiteko janariaren erabilera— ondorio dira.

Europa mailako haur-loditasunaren sailkapenean lehena bihurtu da Espainia, %30,8-44,5 bitarteko portzentajearekin. Euskal Herri mailan, tarte hori %28-31 bitartekoa da.

Kopuru horien arrazoiak dira, alde batetik, elikagaien aukeraketa eta prestaketa modua, eta bestetik, aisialdian hurrek egiten dituzten jardueretan eman diren aldaketak.

Prebentzioa

Loditasuna sendatzea, haurtzarotik arrisku hori saihestea baino zati bat zailagoa da. Gero eta gehiago loditasunaren prebentzio-tratamendua osasun sisteman lehenetsia duen behar gisa justifikatzen da.

5-18 urte bitarteko haur eta gaztetxoendako, OME erakundeak —Osasunaren Mundu Erakundeak— 60 minutuko jarduera fisikoa gomendatzen du eguneroko. Aukera zabala da: ibiltzea, bizi-

kletan aritzea, futboleko jokatzeari, dantzetan... Bigarren gomendioa da ez egotea 60 minutu baino gehiago geldirik eta ezer egin gabe. Haur-loditasuna saihesteko dieta osasungarria jarraitzea berebiziko garrantzia du: denetarik jatea, eguneroko gosari egokia egitea, fruta, barazkiak eta zerealak eguneroko jatea eta gatza zein koipea murriztea.

Ohitura osasungarriak

Banakako esku-hartzeak ez dira oso eraginkorrik izaten kasu gehienetan. Horregatik da garrantzitsua haurraren eta bere inguruan bizimodu jokaera aldaketak topatzea; familiak, ikastetxeak, osasun zentroak eta udaletxeak, denok elkarlanean, haur-loditasuna murrizteko egin beharko genuke lan. Zentzu horretan, azken hilabeteotan haur-loditasunean eragiteko elkarlanean aritu dira hainbat erakunde. 10-12 urte bitarteko 1.080 haurri egin zaizkie neurketak eta galdetegiak.



Arizmendi Ikastolako heziketa zikloko ikasleak neurketak egiten. | ARIZMENDI

Haur-loditasunari aurre egiteko

Pensoi proiektuan jardun dute elkarrekin lanean Debagoieneko ospitaleak, ikastetxeak, udalek eta Arizmendi Ikastolako Erizaintzaren Laguntza Osagarriak heziketa zikloko ikasleek eta irakasleek zein kirol, dietetika eta nutrizio arloko profesionalak. Lehen fasean, 10-12 urte bitarteko 1.080 haurri egin zaizkie neurketak eta galdekizunak. Eta, datuak prozesatu ostean, prebentzio ekintzekin hasteko taldea osatu da, betiere haur-loditasuna gutxitzeko helburuarekin. Lehen fasea bukatutakoan, Lehen Hezkuntzako umei zabaltzeko nahi zaie.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

arizmendi
ikastola **PRO**

KULTURA

Bertigorik gabe dator aurtengo Huhezinema

- ▶ Martxoaren 26, 27 eta 28an ospatuko da Aretxabaletako Arkupen
- ▶ 'Gainditu bertigoa!' da leloa eta lehenengoz Bertigo Saria emango dute

IRATI GOITIA | ARRASATE

Berrikuntza ugariarekin eta bertigorik gabe dator aurtengo Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia. Izan ere, *Gainditu bertigoa!* da zazpigarren edizio honetarako aukeratutako leloa.

Aste honetan ospatuko da, hilaren 26tik 28ra, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean.

Ikasleek antolatua

Jaialdia antolatzen Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateko ikasleak aritzen dira. Zehazki, Ikus-entzunezko laugarren mailako ikasleak. "Lan asko eskatzen du eta denon arteko koordinazioa", adierazi du antolakuntzan diharduen Mairer Juaristi ikasleak. Guztira 11 dabilta, hiru taldetan banatuta: komunikazioa, finantzazioa eta programazioa. "Komunikazioaz arduratu garen ikasleok, adibidez, sare sozialak eguneratu ditugu; aurtengo irudia, kartela eta spota egin... Finantziokoek diru laguntzak edo babesleak aurkitu dituzte. Programaziokoek, berriz, jasotako film laburrak ikusi, epaimahaia aukeratu eta programa osatu", zehaztu du Juaristik.

Ikasleek antolakuntzan aritzeaz gain, euren lanak ere aurkezten dituzte jaialdira. Izan ere, bi sail bereizten dira: ikasleen lehiaketa eta sail ofiziala. [Ikus egitaraua informazio gehiagorako].

Berrikuntza ugari

Sail ofizialean lehenengo aldiz emango duten sari bat da aurtengo nobedadeetako bat: Bertigo Saria. Ekoizpenerako edo bana-



Bertigoa gainditu nahian dagoen neska, Arrasateko Izarra dorrean. | HUHEZINEMA

ketarako diru laguntza publikorik jaso ez duen lan onenari emango zaio. "Sail ofizialean jasotzen ditugun lanen artean, dezentek Eusko Jaurlaritzaren laguntza izaten dute. Horiek produkzio profesional bat egiteko aukera izaten dute, dirua dutelako. Beste batzuek, berriz, ez dute aukera hori izaten. Horregatik sortu dugu Bertigo Saria. Nolabait, ausardia izan dutenak saritzeko", dio Iban Del Campo antolakuntzan diharduen irakasleak. Hain zuzen, hortik dator aurtengo leloa ere.

Beste berrikuntza bat Basque Culinary Saria da; gastronomia eta zinema lotzen ditu sari horrek. "Gastronomia lantzen duten lanak dira, gehienez hiru minutukoak", azaldu du Del Campok. *Culinary* arratsaldea, *Mugaritz BSO* filmaren emanaldiaz eta lan horre-

tan zuzendari bezala aritu den Felipe Ugarteren aurkezpenaz osatuko dute.

Jaialdia "egonkortu" egin da

Guztira 134 film labur aurkeztu dira aurtengo ediziora (118 sail ofizialera eta 16 MUKo ikasleen lehiaketara). Horietatik 30 euskara hutsean ekoitzi dira. "Jaialdia Euskal Herrian erreferentzia bilakatu da. Beraz, oso pozik gaude. Horrek, baina, gauzak ondo egiteko erantzukizuna ere ematen digu aldi berean", esan du Del Campok.

Sail ofizialeko finalistak aukeratuta daude. Hamahiru laburmetraik pasa dute galbahea eta horiek proiektatuko dira martxoaren 28an. Jon Garaño, Maialen Beloki eta Anari Alberdi arituko dira epaile lanetan.

Del Campok azpimarratu nahi izan du Huhezinema topagune ere bilakatu dela. "Azken egunean euskal zinegile dezente etortzen dira eta giro polita sortzen da". Aurtun, lehenengoz, egunean beharrean egubakoitzean egingo dute sari-banaketa. Ostean, luntxa eta Behi Bi Blues taldearen kontzertua antolatu dituzte Orly tabernan. "Bailarako jendea erakarri nahi izan dugu".

Goiena saria

Jaialdiko sari nagusia Goiena Saria da, euskarazko lan onenari ematen zaiona. "Lehen edizioetik babestu du Goienak Huhezinema; jaialdia bera, baina, bereziki euskarazko zinema laguntzeko helburuz", adierazi du Goiena telebistako programazio arduradun Oihane Agirrek.

EGITARAUA

MARTXOAK 26

10:00-11:15: MUKo Ikasleen Lehiaketa

11:30-12:45: MUKo Ikasleen Lehiaketa

17:00-19:00: BCC Lehiaketa eta *Mugaritz BSO* filmaren emanaldia

MARTXOAK 27

19:00-21:00: *Neurge* IKO-ko ikasleen luzemetraia

MARTXOAK 28

17:00-18:30: Lehiaketa Ofiziala

18:45-20:15: Lehiaketa Ofiziala

20:30-21:00: Sari-banaketa

21:00-22:00: Luntxa (Orly Tabernan)

22:00: Behi Bi Blues taldearen kontzertua (Orly Tabernan)

- MUKo Ikasleen Lehiaketako zein Lehiaketa Ofizialeko proiektioetan, 15 minutuko atsedendaldia izango da tartean.
- Ekitaldi guztiak Aretxabaletako Arkupe kultura etxean izango dira.
- Sarrera doan da.

SARIAK

IKASLEEN LEHIAKETAN

▶ MU Saria Fikzio Onena: 200 €

▶ MU Saria Dokumental Onena: 200 €

▶ Ikusleen Saria: 100 €

▶ Basque Culinary Saria: 350 €

▶ Ikusleen Saria: 150 €

SAIL OFIZIALEAN

▶ Goiena Saria¹: 1.200 €

▶ Epaimahaiaren Sari Berezia²: 800 €

▶ Bertigo Saria³: 600 €

▶ Ikusleen Saria: 400 €

- 1 Euskarazko film onena.
- 2 Beste hizkuntza batean eginiko film onena, edo euskaraz egindako bigarren lan onena.
- 3 Ekoizpenerako edo banaketarako diru laguntza publikorik jaso ez duen lan onena.



'Bosgarren segmentua' laneko irudia. | HUHEZINEMA



'A political story' film laburreko irudia. | HUHEZINEMA



Asier Altunaren 'Zela Trovke'-ko irudia. | HUHEZINEMA

'8 apellidos vascos' filmak errekorra egin du Arrasateko Amaia Antzokian

- ▶ Zapatu eta domekako saioetarako sarrerek hegan egin dute, lehenago inoiz ez bezala
- ▶ Jendeari, orokorrean, gustatu egin zaio filma; emanaldi amaieran, txalotu egin du

GOIATZ ARANA | ARRASATE

"Inoiz ez dugu horrelakorik ikusi", zioten Arrasateko Amaia Udal Antzokiko langileek zapatu iluntzean. Egun horretako bi saioetarako sarrerek hegan egin zuten ordurako. Bosnaka eta hamarnaka eraman zituen jendeak, eta izan zen kolpe bakarrean hogeit hamar eraman zituenik ere; erritmo horretan, ordu eta erdi aski izan ziren 1.000 sarrera pasa saltzeko. Txundituta zeuden Udal langileak, filmak herrian sortu duen ikusminarekin.

Zoramena leihatilatik antzokiko atera tokialdatu zen geroxeago, sarrerak zenbakitu gabeak zirenez, jendea larri zegoelako tokia hartu arte. Eta halaxe, arrapaladan, sartu ziren; bai behintzat, zapatuko 19:30eko emanaldira.

Antzerako egoera errepikatu zen atzo, eta emanaldi bakarra



Neska koadrila harro, '8 apellidos vascos' filma ikusteko sarrerak erakusten. | JAGOBA DOMINGO

zegoen arren aurreikusita (19:30), bigarren bat egitea (22:00) erabaki zuten antzokiko langileek.

Amaieran, txaloak

8 apellidos vascos filma txalotua izan da; hala erantzun dute, gutxienez, Arrasateko ikus-entzuleek. "Badirudi jendearen aurreikuspenak bete egin dituela", zioen Amaiako langile batek. Eta inpresio hori bera izan genuen guk ere, irteeran jendeak zioena entzunda: nor edo nor entzun genuen esaten ez zitzaioela betere gustatu, baina orokorrean gustura ikusi zutela zioten, barre asko egin zutela eta herri bertako eta inguruko jendea eta tokiak ikusteak ilusio berezia egiten duela.

Gaur izango da beste aukera bat, 20:30ean; 18:30ean irekiko dute leihatila.



AITOR ETA MIKEL
ARRASATE

"Oso ondo joan da. Barre asko egin dugu, eta pertsonaia eta toki ezagunak ikusi ditugu: Aida telesailekoa, Wazemank-ekoak, Leitzako frontoia... ilusioa egiten du horrek. Dibertigarria izan da orokorrean; eta bereziki barregarria, adibidez, hasierako zatia, tabernakoa".



JOKIN ETA KEPA
ARRASATE

"Jende ezaguna azaltzen da, Arrasaten asko entzun dugu film honi buruz hizketan, eta bagenuen gogoia ikusteko. Ez gara zinemara askotan etortzen, egia esan, baina oraingoan etorri gara eta asko gustatu zaigu. Dibertigarria izan da, gomendatzeko modukoa".



MANUEL ETA MARI KARMEN
ARRASATE

"Sarrera barik geratu gara, baina ez da ezer gertatzen. Betiko moduan etorri gara gu sarrera erostera, aurrez salgai jartzen zituztela jakin barik, eta ez genuen espero honekin topo egitea. Arrakasta izaten ari da eta oso ondo dagoela esan digute, beraz, ikusiko dugu".



ELENA
ARRASATE

"Izugarri gustatu zait, oso dibertigarria. Ez dut uste ez Euskal Herria ez Andaluzia iraintzen dituenik; oso ondo diseinatuta dago. Esentzia hartu dute, baina oso modu komikoan".

Mundua zeharkatu ostean, Bergaran egin du geldiunea 'Faustina'k

- ▶ Eneko Etxebarrietak bizikletarekin egindako bidaia antzetzatu zuen zapatuan
- ▶ Umeek munduko askotariko bazterrak ezagutu zituzten lan horren bidez

MIRIAN BITERI | BERGARA

Faustina bizikleta ezagutzeko aukera izan zuten zapatu arrasaldean 4 eta 8 urte bitarteko ume bergararrek. Eneko Etxebarrieta irakasle eta abenturazale gasteiztarra Faustinarekin munduratuz izeneko antzezlanarekin izan zen Zabalotegi aretoan, eta horretan, Faustinarekin laguntzarekin, munduari egindako bira azaldu ziren han batu ziren ume-

txoei. Hain justu, lau urtez zeharkatutako 32 herrialde eta 46.000 kilometroen laburpen arina egin zuten Etxebarrietak, bidaian ateratako irudi ikusgarriak, Bingen Mendizabal musikariak sortutako musika eta efetu bereziak erabiliz.

Lehenik eta behin, elkarrekin, ezinbesteko gauzak alforja edo aneketan sartu zituzten, eta Gasteiz atzean utzita, Tibetera igo

eta bertako familia bat eta yak izena duten animaliak ezagutu zituzten; Txinako harresiaren ondoan kanpatu eta gaua ere pasatu zuten; eta Australiako basamartua zeharkatzera ere ausartu ziren, aborigenekin berba eginez. Munduko hainbat bazterretako haurrak ezagutu eta askotariko abenturak bizi ostean, etxera itzuli ziren guztiak, buruan ideia berriak zituztela.



Etxebarrieta, zapatuan. | IMANOL SORIANO

Etxean umeei kontatzen

Antzezlanaren amaitzean protagonistarekin berba egiteko aukera izan genuen, eta bidaia antzetzeko ideia nondik irten zen azaldu zigun: "Etxean sortu zen ideia. 3 eta 5 urteko bi ume ditugu, eta,

etxean ez dugu telebista jartzen, beti gabiltza munduan zehar egindako bidaiaz berba egiten. Txundituta entzuten dute guztiak, eta egun batean, zera pentsatu nuen: gure umeekin funtzionatzen badu, zergatik ez besteekin?".

Antzezlanaren gertatzea bururatu zitzaion, baina aktore lanetan ez zuten esperientziarik, eta hortaz, Teatro Paraisoko kideengana jo zuten. Ideia gustatu zitzaion, eta elkarlanean prestatu zuten munduari bira emanez egindako bidaiari buruzko antzezlanaren.

Lanak orain arte izan duen erantzunaz, bestalde, honakoa esan zigun gasteiztarrek: "Oso pozik nago, haurren artean oso harrera ona duelako. Niretako bidaia gogoraratzeko modua da antzezlanaren; eta neska-mutikoak, ostera, bidaian sartzea lortzen dut".

Asier Altuna | Zinegilea

"Hasiera hasieratik poztasunak eman dizkidan dokumentala izan da"

- ▶ 'Zela Trovke' egubakoitzean ikusgai izango da Huhezinean
- ▶ Udan, baserri giroan oinarritutako filma grabatzen hasi gura du

MAIDER ARREGI | BERGARA

Asier Altuna *Kixi*-k etxean aurkeztu du azken dokumentala: *Zela Trovke*. Atzo aurkeztu zuen, herritar eta lagunez lepo betetako Zabalotegi aretoan, Bergaran. Berarekin izan ginen, hasi aurretik.

Herritarren aurrean lana aurkezteak errespetua emango dizu. Urduri zaude?

Ez. Herrian badakizu herritarren fabore kutsua hartzen duela. Gainera, ziurtasuna daukat Maite Larbururen emanaldiarekin –filmeko protagonista eta kontzertua emango dutenetako bat–; Amsterdamen bizi da eta oso zaila da hemen harrapatzea. Formatu guztia oso polita da.

Zabalotegi aretoa bete egingo da herriko zinegilearen azken lana ikusteko.

Pixka bat kezkatuta nago Zabalotegiren eduki ahalmenarekin; beldur nahiz, jendea kanpoan geratuko ote den. Izan ere, pare bat bider, egin diren bi obra ikustera joan eta kanpoan geratu naiz haurrekin. Pena ematen dit kultura eskaini eta jendea gogotsu egon arren, sartzeko aukerarik ez izateak. Pena ematen du herriaren neurriko aretorik ez edukitzeak. Horrek nire dokumentalak baino gehiago kezkatzen nau.

Bost eguneko bidaian egin dituzue grabaketa lanak. Zer moduzko esperientzia izan da?

Grabazioa bera egitea prozesu oso polita izan da; talde txikian egin genuen, lau lagun artean. Bost eguneko bidaian egin genituen grabaketak, Amsterdam eta Utrecht hirietan. Maiterekin lan



Maite Larburu eta Asier Altuna 'Kixi', dokumentalaren gaineko solasaldian, Zabalotegin atzo. | JOSETXO ARANTZABAL

egitea ere polita izan da. Kamara aurrean oso ondo ematen du eta badaki kamerarekin nola jolas egin. Amsterdameko Holland Baroke Soziety taldea ezagutzea ere oso aberasgarria izan da. Errodajea esperientzia ederra izan zen.

Bost eguneko bidaian material dezenterekin etorriko zineten.

Bai. Muntaiia izan da prozesurik zailena, material asko geneukalako eta aukeraketa egitea oso zaila izan delako.

Donostiako Zinemaldian aurkeztu zenuten lehenengoz. Kritika onak

jaso dituzue. Motibagarria izango da, ezta?

Zela Trovke film laburrak hasieratik eman dizkigu poztasunak. Ez daukat triste egoteko arrazoirik film honekin. Belodromoan 3.000 lagun aurrean dokumentala eskaintzeak ere poztasuna

"Maite Larbururi gertatutako gertaera batean dago oinarrituta"

"Pena ematen dit jendea kultura gogoz egon eta kanpoan geratzeak"

"Bukatu berri dut Oteizaren poema baten inguruko film laburra"

eman dit. Orain mundu osoko jaialdietan barrena eskainiko dute: Huescan edota AEBetan, esaterako. Aipatu, baina, egubakoitz honetan Huhezinean jaialdian izango dela ikusgai. Momentuz, ez daukat jaialdi guztietara joateko asmorik; gertukoetan izango naiz soilik. Gainera, krisiaren ondorioz, ez dituzte gonbidapenak horren erraz egiten. Aurrekontu txikiarekin antolatzen dituzte jaialdiak.

Dokumental fikzionatua da. Ze istorio kontatzen duzu bertan?

Holland Baroke Soziety talde holandarrak Varsovian eskaintzen duen zuzenekoan gertatutako istorioa kontatzen du. Dokumental fikzionatua izeneko formatu arraroa da. Maite Larbururekin badu zer ikusia istorioak; izan ere, berari gertatutako gertakizun batean dago oinarrituta.

'Zela Trovke' –Belarra mozten– jarri diozu izenburua. Nolatan?

Holland Baroke Soziety taldearen abestia da *Zela Trovke*. XVI. mendeko abesti eslovakiarra da. Hain justu ere, bertan kontatzen da emakume batek aizkoraz senarra nola hiltzen duen. Abesti horren inguruan dago filmaren istorioa oinarrituta.

Orain zer duzu esku artean?

Oraintxe bukatu dut *Zoroa* izeneko film laburra. Denbora dezentez lanean aritu naiz lan honekin, efektu digital ugari ditu-eta. Oteizaren poema batean oinarritzen da; nahiko surrealista eta polita da. Bardeetan grabatu dugu. Oraindik ez dakigu noiz estreinatuko dugun. Efektu digitalen munduan sartu naiz eta imajinatzen duzun guztia egin dezakezun arren, denbora eta dirua behar dira.

Luzemetairik egiteko asmorik badaukazu?

Bai. Dena ondo bidean, udan hasiko gara grabatzen *Amama* izeneko film luzea. Baserri giroan kokatutako istorioa izango da. Aspaldidanik nabil proiektu honekin lanean; oso gogotsu nabil. Orain finantzazioa lotzen nabil, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren eta *EITB*ren babesak daukagun. Udarako espero dut grabaketekin hastea.

Euriari aurre eginez Aritzeta abesbatza kalera irten da

Bergarako Aritzeta gazteen harrobi gisa hasi zen, baina egun, kalitatezko kantuak abesten ditu maila onari eutsiz. Errepertorio zabala du, eta kontatu digute zuzendaria beti ahalegintzen dela betiko abestiekin kantu berriak uztartzen. Zapatuan, Bergarako herriko plazan, saio berezia eskaini zuen, 35. urteurrena ospatzeko.



Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak. Abantailak ikusteko: goienakluba.com

ALZU

ALZU, S.L. Ehiza eta arrantza
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati
Arropetan %10eko beherapena.

ARGIA

ARGIA Aldizkaria
www.argia.com
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).

ARRIKRUTZ

o ñ a t i k o o b a k

ARRIKRUTZ Kobak
Araotz Auzoa | Oñati
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).

caravanas Oñate

CARAVANAS OÑATE
Galdaragintza. Bizikletak
Otadui Zuhaiztia, 25 | Oñati
50€-ko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).

Esko Sport

ESKO SPORT Kirol denda
Intxaurtxueta 5 | Eskoriatza
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



ESTACION SERVICIO ARRASATE
Gasolindegia
San Andres 7 | Arrasate
%2ko gasolindegian erregaia erositako.
%2ko dendako produktuetan.



EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia
Mikeletegi 43-45 | Donostia
Sarrera bat erositako eta kupoia+ Goiena
Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.



GAES Entzumen zentroa
Otalora 18 | Arrasate
Zurradero 10 | Bergara
%10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



GAHIR Fisioterapia / Osteopatia
Aranburuzabala 6 behea | Eskoriatza
%50eko deskontua lehenengo kontsultan.



GUZTIZ EDER Estetika zentroa
Kalebarria 29 | Oñati
%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).
%10eko deskontua gorputz osoan txokolatearekin egindako estalduran eta masajeetan.



KUTTUNA Estetika
Aranburuzabala 19, behea | Eskoriatza
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).



LASTAI
Koltxoak eta umeentzako artikuluak
Arkatza 1, 49 Pab | Gasteiz
%5eko deskontu gehigarria helduentzako atsedean arloan.
%5eko deskontua haur kotxe eta automobilerako segurtasun - aukietan.
%5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobilerako segurtasun-aukietarako denboraldiko ehun-gaietan.
%10eko deskontua denboraldiko hau-arropan. (Beharpenetan eta eskaintza berezietan izan ezik).



LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Estetika zentroa
Bidekurutzeta 7 | Bergara
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izte-
rondoan (besapekoak opari).
%20eko deskontua elikagai intolerantzia proban.
%10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
%10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat



MAGDALENA Gasolindegia
Santxolopetegi auzoa | Oñati
%2ko deskontua gasolindegian erregaia erositako.



MULTIÓPTICAS Optika
Juan Carlos Guerra, 1 behea | Arrasate
Ibargarai, 16 | Bergara
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun baturakoetan).



NAREN
Fisioterapia eta osteopatia zentroa
Belorrieta 5 behea | Aretxabaleta
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).



NINIKA Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara
%10eko deskontua artikulu guztietan.



OÑATI GARAJEA
Autoen garaje. Konponketak.
Goribar Auzoa 9 | Oñati
Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.



TXURI URDIN Itzotz jauregia
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia
%20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubia edo oporraldia).
%10eko deskontua zubi eta oporraldietan.

GOIENA KLABEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelehenetan ere etxean. **Deskontuak:** Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05 | kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

GURE MUSIKA TALDEAK

CRIMINAL
REMAINS

Criminal Remains. | ENKO IGLESIAS

"Momentuan, gure kantuetan lanean gabiltza lokalean buru-belarri"

- ▶ Punk-rock musika defendatzen du Aretxabaletako boskoteak
- ▶ Urtebete eskas daramaten arren, kontzertu batzuk eskaini dituzte dagoeneko

JAGOBA DOMINGO | ARETXABALETA

Criminal Remains talde berria dugu; duela urtebete eskas hasi zen boskotea Aretxabaletako gaztetxe lokaletan entseatzen. Hala ere, taldekideak beste hainbat abenturatan ibili dira azken urteotan; besteak beste, Interprete Desconocido, Gazte Iraultza eta The Crackers taldeetan. Lagun artean sortu den taldea izan arren, argi daukate musika talde bat aurrera ateratzeko lana eta sufri-mendua bidelagun izango dituztela, eta momentuan lokalean buru-belarri dabiltza kantu pro-

pioei forma ematen, etorkizunean disko bat grabatzeko ilusioz. Criminal Remainseko bateriak jotzailearekin, Xabirekin, egon gara proiektuaren nondik norakoan inguruan gehiago jakiteko.

Lehenik eta behin, aurkeztu kriminal talde hori nola sortu zen?

Duela urtebete inguru sortu zen Criminal Remains, hasieran beste izen batekin; Danik talde bat sortzeko ideia komentatu zigun eta ordurako Ibai, Beñat eta hirurok lokalean jotzen genuen. Beraz, taldearen oinarria eginda zegoela esan genezake; ni bateria jotzen,

Ibai baxuarekin eta Beñat gitarra-rista. Egia esatearren, gure aurreko taldeak hiltzorian zeudela sortu genuen Criminal Remains. Ibaik eta biok Gazte Iraultzan jotzen genuen, eta talde honekin hasi ginenean oraindik Gazte Iraultza bizirik bazegoen ere, amaiera nahiko gertu ikusten genuen. Danik eta Josek Interprete Desconocidon jotzen zuten eta Ibai baxu-jotzailea, gure gitarra-ristaren anaia, Bartzelonara joan zen ikastera.

Urrats naturala izan zela uste dut; musikan jarraitzeko gogoz

geundenak elkartu ginen. Laukote hasi ginen arren, Jose segituan batu zitzaigun, Alemaniatic etorri eta berehala.

Aurrekariak ikusita, oi! eta street-punk musikatik punk-rock musikara salto egin duzuela esan daiteke.

Baietz uste dut, Interprete Desconocidok ere punk-rock kutsua zuen; beharbada, Josek gitarra jotzeko moduarekin zerikusia izan dezake, baina hasieratik musika azkarra egitea genuen buruan. Eta Gazte Iraultzarekin oi! musika egiten genuen, aldaketa egon daiteke; hala ere, gogoz eta lagun artean egindako musika izaten jarraitzen du.

Hasi, talde gehienak bezala, bertsioak egiten hasi ginen, musika estiloa eta taldekideen artean hobeto ezagutzen joateko. Bull Brigade italiarren *Dopo la Pioggia*, Whiskey Rebels-en *Crossroad* eta Black Halosen *Three sheets wind* kantuak jotzen genituen, besteak beste.

Orain, baina, zuen kantuetan lanean zabilzate.

Bai; aurretik beste talde batzuetan ibilitakoak gara, eta horietan ere bertsioak jotzen hasi ginen.

Criminal Remainsekin argi izan duguna da gure kantu propioak egingo ditugula. Zuzenekoetan dibertigarria da beste talde batzuen kantuak jotzea, baina orain gure kantuak egiteko irrikan gaude. Dagoeneko amaituta ditugu *Criminal Remains* eta *Corrupted Land* kantuak eta beste bi amaitzear ditugu, hitzak idaztea besterik ez zaigu falta.

Hurrengo urratsa estudioara sartzea izango da?

Hori espero dugu! Hala ere, oraindik lan handia dugu aurretik. Egia esan, asko gustatuko litzai-guke disko bat grabatzea, baina aurretik lokalean lan handia egin beharra daukagu. Gure asmoa da Karlotek hemen duen estudioan, Nekrosounds estudioan, diskoa grabatzea, baina pixkanaka joatea erabaki dugu.

Esan duzun moduan, Criminal Remains bezala bataiatu aurretik beste izen batzuk izan dituzue...

Esku artean izan genuen lehenengo izena Fuck Me Wild izan zen. Izena Gatzagako lokalean zegoen pelikula porno batetik hartu genuen; guk, oster, papatik hartzera bidaltzearekin lotzen genuen izena. Hala ere, ez genuen askorik irau Fuck Me Wild bezala; ondoren, Urbaltzen jo genuen kontzertuan Burning Flag bezala jo genuen. Eta amaitzeko, behin betiko izena: Criminal Remains. Euskal Herriaren historian egon diren bidegabekeriekin eta gerrako krimenekin lotura duen izena da Criminal Remains.

"Gure asmoa Nekrosounds estudioan grabatzea da"

ETXeko SUKALDERAINO

Maite Aristegi | Espainiako Kongresuan diputatua

- ▶ Jatun ona eta betiko sukaldaritzaren zalea da Maite Aristegi
- ▶ Bergarako baserriaren eta Madrilgo Kongresuaren artean bizi da egun

"Agintari batekin eseriko nintzateke mahaiaren bueltan; Rajoyrekin-edo"

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Baserritarra da Maite Aristegi, eta, azkenaldian, Bergara eta Madril artean bizi da, Espainiako Diputatuen Kongresuko kide bihurtu zenetik Amaiur koalizioarekin.

Zelakoa da Maite Aristegi?

Pertsona alaia, baikorra eta lan-gilea.

Ze harreman daukazu sukaldearekin?

Harreman handia. Jatea asko gustatzen zait eta prestatzea ere tokatzen zait. Baserrian, aspal-ditxoan neu naiz etxeko sukaldaria.

Zein da zure espezialitatea?

Etxeko, betiko sukaldaritza. Amarengandik ikasitako hori, betiko lapikoko eta landutako sukaldaritza mota hori, nahiko klasikoa. Etxeko ortuko gauzeekin egiten ditugu gauza asko, sasoiak sasoiak. Beste gauza berri eta modernoago batzuk ere sartzen goaz.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun onena, eta non?

Niretako ez dago jateko gauza txarrik, eta tokia baino garrantzitsuagoak pertsona, giroa eta ingurua dira. Erraz konformatzekoa naiz eta konpainia izaten da jaten denaren bestekoa; eta toki asko gustatzen zaizkit. Nahi-

ko gauza *senzilloa* izango litzateke.

Eta etsairik handiena, zertara?

Ez nuke gonbidatuko! Gustura ez bazaude, janaririk onena ere ez da ondo asentatzen.

Gustura zeinekin jesarriko zinateke mahaiaren bueltan?

Benetan agintzen duen batekin, egoerari buelta eman ahal liokeen batekin, berba egiteko. Gobernuak daukan atzera begirako postura

eta mendekuzaletasun horri buelta emango liokeena eta beste bide baten jarriko litzatekeen norbaitekin; ez dakit Rajoy edo besteren bat izango litzatekeen.

Zergatik animatu zara politikari izatera eta, gainera, Madrilen?

Norbera animatzea baino gehiago, "istripuak" izaten dira hauek. Herriari ahal dudana emateko dihardut, nahiz eta zaila izan eta askotan mundu hura oso urrutikoa iruditu, baina izugarritzko eragina du gure egoeran.

Politikarien artean ematen duen adinako giro txarra dago?

Pertsona batzuk ez dira batere hurbiltzen, baina, orokorrean, abegikortasuna dago, pertsonen arteko tratua. Elkarrekin hitz egin behar dugu.

Zein miresten duzu politikan?

Inongo errekonozimendu publikorik gabe, auzoan, eskolan, herrian, txindurri-lana egiten duten pertsona asko miresten ditut.

Politikari edo baserritar ez bazina, zer izango zinateke?

Pertsonen zaintzarako zer edo zer: erizaina-edo.

Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute...

Maite ditudan guztien zoriona eta osasuna, gure herriak behingoz



Lehen platera: entsalada edo frijitu elaboraturen bat.

Bigarrena: arraina—itsas zapoa, lupia...—edo haragia.

Postrea: etxean egindako tarta.

Edatekoa: ura.



Maite Aristegi, ekitaldi politiko baten. | GOIENA

"Errekonozimendurik gabe txindurri-lana egiten duen jende asko miresten dut"

edukitzea aukera izan nahi duena izateko eta bere iraupenerako; eta mundu osoan dagoen injustizia bukatzea eta denok hobeto egoteko aukerak zabaltzea.

Damu zara...

Ez daukat damu handirik. Bizitzaren zati dira egindako gauzak.

Zerk beldurtzen zaitu?

Osasuna galtzeak.

Lanetik irten, etxera iritsi, sofan eseri eta...

Sofan jesartzeko asti handirik ez dut izaten. Faltan igartzen dut pentsatzeko asti luzeagoa izatea. Inoiz pentsatzen dut adin batera iristen ari garela eta bagoazela aurrera.

Nora egingo zenuke ospa gustura?

Kanadara joan eta hilabete pasatuko nuke. Munduko toki asko eta bertako pertsonak gustura ezagutuko nituzke.

Ze aholku konpartituko zenuke?

Zoriontsu ez izateko mila arrazoi dauden arren, ahal den neurrian, bilatu zoriontsu izateko arrazoiak, eta laga besteei ere zoriontsu izaten.

PATRIZIAREN GUTIZIA




Patrizia Vitelli

ARROZ INTEGRALA BARAZKIEKIN ETA CURRYAREKIN

Osuntsu elikatzearen asmoarekin segituz, aurreko batean afaltzeko arroz integrala egin nuen, barazkiekin eta curryarekin. Normalean, errezeta hori kuskusarekin prestatzen dut, eta oilaskoa, perretxikoak eta pinaziak gehitzen dizkiot. Baina hozkailua eta despentsa "triste-triste" zeuden, eta gaur proposatzen dizuedan alternatiba prestatu nuen.

Asiako jatorria

Currya hainbat espeziaren arteko nahasketa da, Asia aldean erabiltzen dutena saltsadun erregosiendako eta gisatuendako. XVIII. mendean zabaldu zuten Europan, Erresuma Batuan eta Holandan, kolonietan hura erabiltzen ikasi ostean, hain zuzen ere.



Arroz integrala curryarekin eta barazkitxoekin osatuta. | THE COOK ROCKER

Fitxa

- ▶ Denbora: 90 minutu.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★

OSAGAIK

- ▶ Baso erdi bete arroz integral.
- ▶ Bi baso bete ur.
- ▶ Hiru azenario.
- ▶ Tipula bat.
- ▶ Piper gorri bat.
- ▶ Currya.
- ▶ Piperrauts pikanteak.
- ▶ Tomate saltsa.
- ▶ Avecrem-a.

Prestaketa

1. Arroza prestatu behar da lehenengo. Kasu honetan, integrala izanda, luzaroan izan behar da egosten (50 minutu). Denbora edo ur gehiago behar duela ikusiz gero, horiek gehitu. Bestalde, zapore handiagoa har dezan, Avecrem pastilla bat bota daiteke.
2. Barazkiak laukitxotan moztu, eta olio txorrota batekin su ezitan erdi egosi egingo ditugu. Gatza bota eta biguntzen utziko dugu. Behin barazkiak erdi egosita, koilarakadaxo bana curry eta piperrauts pikante botako ditugu. Egurrezko koilara batekin pare bat buelta eman, eta su oso txikian utziko dugu, arroza egin arte.
3. Arroza puntuan dagoenean, plater batean aterako dugu, gainetik frijitutako tomate apur bat eta barazkiak botata. Aurkez dezakegu, baita ere, osagai guztiak nahastuta.

Athletic eta euskara, ipuin elektronikoaren bilduma baten

'Lehoiak ametsetan' izeneko aplikazioa eskuragai dago Android eta IOS sistema eragileetan

JULEN APERRIBAI | ARRASATE

Mugikorrerako eta tabletarako eskuragarri dago jada *Lehoiak ametsetan* aplikazioa. Zazpi ipuin elektroniko biltzen dituen bilduma bat da, Android eta IOS sistema eragileetarako egina. *Maria Uriarte Bixenta* izeneko satorra izango da protagonista. San Mamesen bizi da hura eta bertan ikusitako guztia haurrei kontatzeko irrikan dago.

Euskaltzaleen Topaguneak eta Athletic Club Fundazioak jarri dute martxan ideia hori. Euskara ardatz izanda, Athleticen historia eta balioak euskaraz transmititzea da helburua. Gidoia eta ilustrazioak, berriz, Kirmen Uriberen eta Asisko Urmenetaren esku egon dira, hurrenez hurren. Azpigituluak jartzeko aukera ere izango da.

Bestalde, hartzaileek Athleticen lotutako istorioak bidaltzeko helbide bat jarri dute martxan. Istorio guztietatik bat aukeratu eta aplikazioa igoko da.



Aplikazioaren aurkezpena San Mamesen. | URIOLA.INFO

Ikerketek diote sare sozialekiko adikzioa areagotu egin dela

Erabiltzaileek azken mugimenduen berri izan nahi dute, zerbait garrantzitsua ez galtzeko

J.A. | ARRASATE

Sare sozialen erabiltzaile erdiek baino gehiagok jardura hori beraiantzat kaltegarria dela uste dute. Hala erakusten dute sare sozialen gainean egin diren hainbat ikerketak.

Boost Mobile konpainiak egindako inkesta baten arabera, esaterako, 16 eta 25 urte arteko erantzuleen erdiak menpekotasuna duela onartzen du, eta hamar pertsonatik zazpik egunean hamar aldiz, gutxienez, gisa horretako webguneak bisitatzen ditu. Sare sozialetako azken mugimenduei klasean irakasleari baino arreta handiago eskaintzen diete gazteen %37k, inkestaren emaitzek erakusten dutenez.

Manchesterko (Erresuma Batua) Salford unibertsitateak antzeko datuak kaleratu ditu. Erabiltzaileek azken mugimenduetan jakiteko duten beharra azpimarratu du horrek ere. Hori egin ezean, zerbait garrantzitsua galtzen ari diren sentazioa dute. Horregatik, aztertutako erabiltzaileen %38k lehenago jotzen dute Facebookera edo Twitterera posta elektronikora baino, lanean edo ikasketetan azken zerbitzu hori beharrezkoagoa duten arren.

Egunerokotasunean kalte
Ikerketa horrek erakusten duenez, erabiltzaileen ohituretan eta harreman pertsonaletan ere eragina izan dezake sare sozialetan pasatako denborak. Salford-eko ikertzaileek ondorioztatu dutenez, %66k zailtasunak dituzte webguneetan ibili ondoren lo egiteko. Ingurukoekin dituzten harreman pertsonalak eta enpresako eraginkortasuna ere kaltetuak izan daitezke.

XXI. mendeko menpekotasuna izan daiteke sare sozialeko. Buruan droga gogor batzuek martxan jartzen dituzten funtzioak pizten dituztela esatera iritsi dira ikertzaile batzuk.

Martxan da bateriarekin dabilen lehenengo autobus elektrikoa

Dagoeneko 135.000 pertsonak erabili dute zerbitzua Sao Paulo kanpoaldeko Diadema hirian

J.A. | ARRASATE

Ohiko zerbitzuak eskaintzen dabil Brasilgo Diadema herrian munduko lehen autobus elektrikoa. Martxoaren 5ean egin zuen lehen bidaia gainerakoak baino isilagoa eta arinagoa den autobus horrek eta egunero 170 kilometro inguru egiten ditu ordutik hona.

Ibilgailuaren motorra eta egitura gehiena Brasilen egin badute ere, Japoniako Mitsubishi konpainia egin da bateriaren eta hura kargatzeko sistemaren kargu. Egunean zehar ibilbidea behar bezala egin ahal izateko, litiozko ioiz osatutako hamalau bateria ditu, gauean zehar 3-4 orduan kargatzen direnak. Telefono mugikor baten antzerakoa da kargatzeko modua.

Kutsadura txikitu nahi da

Autobusak ingurumenarekiko konpromisoa izan nahi duela adierazi du Joaquim Lopesek, Sao Pauloko garraioaz arduratzen

den EMTU enpresako presidentek. Haren hitzetan, "gisa horretako teknologia hirian sartzeak aireko kable asko kenduko ditu, eta kutsadura eta zarata txikiagoko paisaia bat egongo da".

Autobusak bere ibilbidean egiten dituen 11 kilometroetan 124 bidaiari inguru hartzen ditu. Horien artean dago Evanir Souza. Dagoeneko hasi da hura zerbitzu honen abantaila batzuk nabaritzen. "Ibilgailuaren soinua igogailu baten antzekoa da", dio hark. "Autobus ekologiko" izena eman dio, gainera.

Sei hilabeteko proba

Sao Paulo eskualdeko gobernua- ren erronka da pixkanaka modu horretako autobus gehiago lanean jartzea. Oraingoan, sei hilabetez egingo dute proba ibilgailu horrekin. Denbora tarte hori pasata, teknikoki eta ekonomikoki eskala handiagora eramatea posible den edo ez baloratuko dute.

Europako Batasunak atzerrian mugikorra erabiltzeko 'roaming' zerbitzua debekatu nahi du

J.A. | ARRASATE

Joan den martitzenean onartu zuen Europako Batasuneko industria komisioak *roaming* izenez ezagutzen dugun jatorrizko herrialdeetatik kanpo ezartzen den tarifa gehigarria, aldeko 30 botorekin, aurkako 12rekin eta 14 abstentziorekin. Hitzartutakoaren arabera, neurria 2015eko abenduaren 15etik aurrera jarriko da indarrean.

Oraindik ezer zehaztu gabe

Lehen akordioa lortu duten arren, oraindik beste hainbat filtro pasa beharko ditu propo-

samenak. Indarrean jarri ahal izateko, Europako Parlamentuaren gehiengoak horren alde egin beharko du apirilaren 2an eta 3an egingo den bilkuran. Gainera, Parlamenturako hautakundeak izango dira datorren maiatzean eta legegaldi berrian beste gai batzuek izan lezakete lehentasuna.

Dena den, hitz egindakoa praktikara eramango den beldur dira telefono operadoreak. Hala izanez gero, gainontzeko tarifak igoko dituztela ohartarazi dute horietako batzuek, diru sarreak mantentzeko asmoz.



Atzerrian mugikorra erabiltzea merkatuko du neurriak. | TELEGRAPH.CO.UK

SIM txartel guztiak ez dira operadoreen esku egongo Herbehereetan

Telefono mugikorren operadoreei lotuta ez dauden txartelak eskuragarri egongo dira hemendik aurrera. Modu horretan, mugikor libreak eros daitezkeen moduan erosi ahal izango dira txartelak ere. Konpainia gutxi batzuek txartelen erabilera mugatzean sortzen den lehiakortasun txikiak eragiten dituen prezio altuak jaits litezke neurri horrekin. Oso albiste txarra da hori operadore handientzat, merkatuaren kontrola gal dezakete-eta.

Motorlak mugikorrera konektatzen den erlojua aurkeztu du

Enpresa estatubatuarrek Moto 360 aurkeztu du; Android sistema eragilerara konektatzen den erlojua salgai jarriko du laster, aurretik beste enpresa batzuek antzeko gailuekin berdina egin eta gero. Oraindik ez dute zehaztu prezioa, ezta noiztik aurrera egongo den eskuragarri ere, baina uztaileko gure artean izango dugula ziurtatu dute. Hain zuzen ere, "itxura borobila eta diskretua" izango duela esan du diseinuaz arduratzen den Jim Wicks-ek.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Kaixo, Ataulfo deitzen naiz

Aste bukaera kanpoan eman dut, eta bisitatu dudako museo horietako batean gidak Ataulfo izena zuen. Arraroa izateaz gain, ez zitzaidan oso izen erakargarria iruditu. Hor dago gurasoek duten ardura garrantzitsuenetako bat. Ni pertsona bera izango nintzake Imanol deitu beharrean Ranulfo edo Restituto deituko banintz?

Telebistan ere antzera gertatzen da. Gidoilariak pertsonaiak, elkarrizketa, tramak... sortzeaz gain, ganorazko izenburu bat ere asmatu behar dute. Gutxi gogoratu dugu *Paco y Veva* telesaila, baina TVEk hasieran *Somos Jóvenes* izenburuarekin erosi zuen musikal hori.

Logika kontua dela iruditu arren, *Hospital central* ez zen Telecinco 11 urtez eskaini duen telesailaren hasierako izena. Lehen ataletan *Linea Roja* zen bere izena, eta jende gehiagoren ikusmira pizteko asmoarekin aldatu zioten izena. Aldaketak bat-bateko eragina izan zuen, eta arrakastaren sinonimo bilakatu ziren Vilches eta gainontzeko medikuen abenturak eta desbenturak.

Pentsatzen hasita, atal hau Tele-begi beharrean Ima-begi deituko balitz jende gehiagok irakurriko luke?

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 24




'Berriak'

Asteburuko albisteak eta egunekoak ekarriko dizkigu *Berriak* saiora Monika Belastegi aurkezleak. | 14:30

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 13:00 Ikusmira: Suhiltzaileen eguna
- 13:20 Zorion agurrak
- 13:30 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Tertulia
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Kantari
- 17:30 Sagarrondotik
- 18:00 Ikusmira: Iparragirre rock elkarte
- 18:20 Zorion agurrak
- 18:30 Berriak
- 19:00 Amaia DJ
- 19:30 Harmailatik
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Harmailatik
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Gurean gaur
- 23:50 Debagoiena zuzenean
- 00:20 Harmailatik

MARTITZENA, 25



'Auzorik auzo'

Debagoiena Zuzenean saioan Elgetako Aixola auzoa erakutsiko digu Mireia Bikuña kazetariak. | 20:00

- 12:00 Ikusi irratia: Bertsomovieda
- 12:55 Tripa-zorri
- 13:25 Amaia DJ
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Harmailatik
- 15:30 Onein
- 15:55 Zorion agurrak
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Ikusmira: Iparragirre rock elkarte
- 17:20 Sagarrondotik
- 17:50 Ikusmira: Gernikako suhiltzaileak
- 18:20 Zorion agurrak
- 18:30 Berriak
- 19:00 Pedalka
- 19:30 Kantari
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 21:30 Berriak
- 22:00 Harira
- 23:00 Berriak
- 23:30 Gurean gaur
- 23:50 Debagoiena zuzenean
- 00:20 Harira

EGUAZTENA, 26



'Erakusleihu'

Aretxabaletako Kilima haur arropen denda ezagutuko digu eguazteneko erakusleihu tartean. | 20:00

- 12:00 Tripa-zorri
- 12:30 Klaketa
- 13:15 Ikusmira: Suhiltzaileen eguna
- 13:30 Kantari
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Harira
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Kantari
- 17:30 Klaketa
- 18:15 Ikusmira: Suhiltzaileen eguna
- 18:30 Berriak
- 19:00 Harira
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Pedalka
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Gurean gaur
- 23:50 Debagoiena zuzenean
- 00:20 Pedalka

EGUENA, 27



'Amaia DJ'

Gazteek eskatutako kantuen bideoklipak erakutsiko ditugu *Amaia DJ* musika saioan. | 19:30

- 12:00 Ikusmira: Iparragirre rock elkarte
- 12:20 Sagarrondotik
- 12:50 Ikusi irratia: Bertsomovieda
- 13:55 Zorion agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Pedalka
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Ur eta lur
- 17:30 Tertulia
- 18:30 Berriak
- 19:00 Pedalka
- 19:30 Amaia DJ
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Amaia DJ
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Gurean gaur
- 23:50 Debagoiena zuzenean
- 00:20 Amaia DJ

EGUBAKOITZA, 28



'Tertulia'

Egubakoitzer moduan, Larraitz Zeberio aurkeztutako tertulia izango digu solaskideekin. | 19:00

- 12:00 Ikusmira
- 12:20 Sagarrondotik
- 12:50 Ikusmira
- 13:15 Zorion Agurrak
- 13:30 Kantari
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 14:30 Berriak
- 15:00 Amaia DJ
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Klaketa
- 17:45 Ur eta lur
- 18:30 Berriak
- 19:00 Tertulia
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 21:30 Berriak
- 22:00 Harira
- 23:00 Berriak
- 23:30 Gurean gaur
- 23:50 Debagoiena zuzenean
- 00:20 Amaia DJ

TELEBISTA LAB.

Debagoieneko txirrindulari taldeen egoera aztergai, gaur

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Debagoieneko txirrindularitza taldeek gaur egun bizi duten egoera izango digu hizpide gaur, astelehena, *Harmailatik* kirol saioan 19:30ean. Xabier Urzelai aurkezlearekin platoon izango dira Dorletako Ama taldeko Junkal Perez, Lokatzako Unai Asurmendi eta Aloña Mendiko Kepa Umerez. Taldeen egoeren eta erronken berri emango digute.

Bestelako kontuak ere bai
Asteburuan futboleko Oherzko Erregional mailan jokatutako Antzuola eta Aretxabaletaren derbia ere ikusi ahal izango duzue saioan eta Bergaran asteburuan jokatutako Skate X Games txapelketak emandakoaren errepa-soa ere egingo digu.



Dorletako Ama taldekoa. | I.S.

TELE-ALBISTEAK

Bertatik bertara ibiliko dira aste honetan ere 'Debagoiena Zuzenean'-eko erreportariak

Eskulanak, boloak eta antzezlan bat gaurko saioan

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Astelehenetik egubakoitzera bitartean hainbat gai jorratuko ditugu *Debagoiena Zuzenean* saioan 20:00etan, 21:00etan, 22:30ean eta 23:50ean, Txomin Madinak aurkeztuta, Goiena telebistan.

Gaur, astelehena, Joxe Urzelai oñatiarrak egindako eskulanak ikusi ahal izango ditugu saioaren hasieran. Oñatiko ermita guztiak, parrokiak edota Arantzazuko Santutegia bezalako eraikinen koadroak egin ditu Urzelaiak, baita herriko dorreen eta udaletxearen maketak ere. Julen Iriondo erreportaria izango da Urzelaiarekin. Gero, asteburuan Bergaran jokatu den Gipuzkoako hiru txirilo txapelketak eman duena ere ikusi ahal izango duzue. Amaitzeko, berriz, asteburuan Berga-



Txomin Madina saioko aurkezlea. | GOIENA

ran egindako *Faustinarekin munduraturaz* izeneko antzezlan izango digu berba Imanol Gallego kazetariarekin batera.

Hainbat kontu
Elgetako Aixola auzoa ere ezagutuko digu astein eta sukaldaritza kontuak ere izango ditugu.

Beñat Herce Eskoriatzako alkatea izango da martitzenean 'Harira'-n

Herritarrek galderak bidaltzeko aukera izango dute eta horiei ere erantzungo die alkateak

E.A. / A.T. | ESKORIATZA
Beñat Herce Eskoriatzako alkatea izango da *Harira* saioko martitzeneko gonbidatua. Elizateak, aurrekontua, kiroldegia, Zaldibar antzokia, mugikortasuna, hiri hondakinak... izango ditu berba gai alkateak.

Horretaz gain, Eskoriatzako Udalean ordezkatuta dauden EAJ, PSE-EE eta Ezker Anitzeko zinegotzi bozeramaileen iritzia ere jasoko dute eta baita herritarren galderak ere. Mirian Biteri eta Imanol Gallego lankideek Eskoriatzako kaleetan jasotako herritarren berba ere ikusi eta entzun ahal izango dira Eneko Azkaratek aurkeztutako Goiena telebistako saioan. Martitzenean 22:00etan izango da hori.



Beñat Herce alkatea. | GOIENA

Egin galderak alkateari
Galderak bidaltzeko bide hauek daude: 688 69 00 17ra Whatsapp edo Telegram mezua edo erantzungailuan mezua utzita, *harira@goiena.com*-era idatzita edo Twitterren *#harira* idatzita.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Ariane Caballero
Martxoaren 30ean, 8 urte. Zorionak eta patxo handi bat, amamaren partetik.



URRETXU
Markel Zabaleta
Martxoaren 29an, 6 urte. Zorionak. Ondo pasa dezazula zure urtemuga eguna familia eta laguntxoekin. Muxu handi bat, Maier, Leire, Irati, tio, tia, Edure eta bereziki zure arreba Itziarren partetik.



ARRASATE
Iradi Azkarate Zubillaga
Martxoaren 29an, 2 urte. Zorionak, Iradi! Etxeko denon partetik, muxu handi bat.



OÑATI
Aimar Elorza San Miguel
Martxoaren 28an, 6 urte. Zorionak, Aimar! Ondo pasatu zure urtebetetzian. Besarkada eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Irati Hernandez Iturbe
Martxoaren 27an, 9 urte. Zorionak, laztana, eta urte askotarako. Oso ongi pasatu eguna. Muxu potolo handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
Auritz Esnaola Osinaga
Martxoaren 27an, 7 urte. Zorionak, artista! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Etxeko danon partetik, patxo handi-handi bat.



ARETXABALETA
Ager Lanzos
Martxoaren 26an, 10 urte. Zorionak, Ager! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi eta potolo bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
Uxue Iriondo Igarza
Martxoaren 22an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat etxeko danon partetik.



OÑATI
Amaia Alberdi eta Mari Karmen Amasorrain
Mari Karmenek martxoaren 21ean, urtebetetzea eta Amaiak 22an, urtetxo bat. Zorionak amamari eta etxeko txikiari! Jarraitu beti maitasunaren bidetik.



BERGARA
Unax Larrea Gantxegi
Martxoaren 21ean, 3 urte. Zorionak, Unax! Etxeko bihurritxoak dagoeneko hiru urte! Ondo-ondo pasatu urtebetetze eguna eta muxu pila bat etxeko eta, bereziki, Noraren eta Anerren partetik. Asko maite zaitugu, pottoko!



ARETXABALETA
Maddi Amozarrain Olabarria
Martxoaren 21ean, 2 urte. Zorionak, Maddi! Ilargiraino eta buelta maitte zaittugu!



OÑATI
Gorka Judez
Martxoaren 21ean, 38 urte. Zorionak, tio Gorka! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat. Ane.



BERGARA
Maddi Bengoa Arregi
Martxoaren 20an, 13 urte. Zorionak etxeko guztien partetik! Besarkada handi bat eta muxu pottoloak Arrasatetik!



BERGARA
June Arrondo Agirre
Martxoaren 20an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Egun polita pasatu eta musu handi bat etxeko partetik. Muak!



ESKORIATZA
Irati Armendariz
Martxoaren 20an, 18 urte. Zorionak, petarda! Edarto pasatu zure egunien eta topera disfrutatu. Patxo potolo bat kuadrillako danen partetik.




OÑATI
Ane Emparanza
Martxoaren 19an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Jada bi urte! Patxo handi bat etxeko danon partetik eta bereziki aitaok eta amatok! Pa, maittia!



BERGARA
Elene Goikoetxea Makazaga
Martxoaren 19an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko partetik.



BERGARA
Unai Irizar Frago
Martxoaren 18an, 12 urte. Zorionak, txapeldun! Familiaren partetik.



ARETXABALETA
Arantazu Blazquez Iñurritegui
Martxoaren 17an, 9 urte. Zorionak, potxola! Gaurko eguna oso-oso ondo pasatu! Gu ospatzeko prest! Muxu asko etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Naro Ezpeleta Larrañaga
Martxoaren 15ean, 8 urte. Zorionak, printzesa. Zure zortzigarren urtebetetze eguna ondo pasatu. Besarkada handi bat eta aupa Erreal!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

ESKER ONA



Eloisa Egaña Jaureguialzo

Pablo Ayastuy-ren alarguna



Martxoaren 15ean hil zen, 82 urte zituela.

*Zeruan jalgiz zara orain, gu guztion gainean;
Desio dugularik izango zure irribarra,
zure poztasuna eta maitasuna...
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.
Zure familiak*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Ondra meza zapatuan izango da, martxoaren 29an, 19:30ean,
Oñatiko Agustindarren elizan.

Oñatin, 2014ko martxoaren 24an.

URTEURRENA

Elisabet Basauri Azula



Lehenengo urteurreneko meza
Domekan izango da, martxoak 30, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina Elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Bergaran, 2014ko martxoaren 24an.

JAIOTAKOAK



June Azkarate Olabe

Bergara. 3,500 kilo. Martxoaren 18a.
Gurasoak: Eli eta Josu. Argazkian, June amaren besoetan.



Julen Ortiz Tejada

Bergara. 2,970 kilo. Martxoaren 16a.
Gurasoak: Cristina eta Manuel. Argazkian, Julen jaioberria aitaren besoetan.



Paule Martin Vitores

Eibar. 3,250 kilo. Martxoaren 18a. Gurasoak: Patricia eta Aaron. Argazkian, Paule sehaskan lasai-lasai.



Paul Garitano Legorburu

Antzuola. 4,130 kilo. Martxoaren 18a.
Gurasoak: Nora eta Mikel. Argazkian, Paul jaioberria sehaskan lo.




Xabi Zabala

Muxika. 2,990 kilo. Martxoaren 18a.
Gurasoak: Amaia eta Dani. Argazkian, Xabi jaioberria amarekin.



Helene Sanchez Roman

Bergara. 3,550 kilo. Martxoaren 15a.
Gurasoak: Aida eta Mikel. Argazkian, Helene amaren besoetan.



Haizea Rodriguez Prieto

Arrasate. Martxoaren 19a. Gurasoak: Eneritz eta Maikel. Argazkian, Haizea jaioberria gurasoekin.



June Hernanz Telleria

Arrasate. 3,100 kilo. Martxoaren 19a.
Gurasoak: Leire eta Ruben. Argazkian, June jaioberria amaren besoetan.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,

zorionak!

Eroskik zuen lehen beharretarako,
OPARIA*
egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Olaria	Uso ar	Pl. gozoki mota
* Bergarako auzoa	Oratuz	Ametza	
Oso-oso garbi			
Ipar EH-n, izu			
Bizkaiko udalerria	Iragana		
Baina	Isil zaitetz!		
			Alderdi espainiarra
			Errusiako enperadore
Pixontzia			
Arrazoi			
		Bokal biribila	Santu
		Urbe Kosta	Erbioa
Potasioa	Momentua		Bokala
Eskasak	Sufrea		Lehen-goia

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

K	V	R	V	K	S	V	K
V	A	E	N	U	K		Z
N	V	S		O	O	I	Z
V	I	T	Z	I	X	T	
P	P		K	I	Z	I	B
V	O	R	V	G	I	G	
Z	V	T	V	A	V		
V	N	S	O	T	E		
M	U		O				

BILA-BILA 7



Spidermanen pare sentitzeko aproposa

35. solairuan zaudela sutea sortu eta ihesbiderik ez dagoela? Bertigorik ez baduzu, hauxe izan daiteke konponbidea.
www.nopuedocreer.com




1.987

EURO

Bere buruari soldata jaitxi diola iragarri du Madrilgo alkate Ana Botellak, eta goiko kopurua da jaitsieraren zenbatekoa: 101.987,64

euro beharrean, 100.000 jasoko ditu aurrean. Ez dirudi gerriko gehiegi estutu beharko duenik...
www.20minutos.es



Max. 12°

Min. 1°

Goizean berehala lainotuko du eta arratsaldean euri konatuak itzuliko dira.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2014-03-24

HAMARREKOA

Silvia Intxaurre Oraindik ez ditu 35 urte, baina Filologia Arabiarrean ere lizentziatua den 'ETB Hoy' saioko debatearen aurkezlea, besteak beste, SER irradian ibili da, baita CNN+ eta Cuatron ere | TXOMIN MADINA

"Egun, autozentsura da kazetaritzaren gaitz handienetakoa"

1. Bi hilabete pasatxo daroazu ETB Hoy-n. Zein nota jarriko zenioke zeure buruari?

Ezin izan dut inoiz neure burua epaitu; egin dezatela ikusleek. Baina lantaldeari hamar jartzen diot; posible balitz, gehiago ere bai.

2. Telebistan hainbeste debaterekin, ez dago iritziak informazioa estaltzeko arriskurik?

Debatearekin gura dena da jendeak iritzia ematea, norbere iritziek eta aurkakoek isla izatea. Informazioa dena da; debatean, derri gorrez, iritziak sartzen dira.

3. Moderatzaile moduan, zer ez duzu onartzen debate baten?

Oilategia bihurtzea: nik ezin badut diotena jarraitu, nola jarraituko du ikusleak? Lerro gorria errespetu falta pertsonaletan dago; haserretu egiten naute.

4. Aurkezteak, moderatzeak, idazteak, elkarrizketatzeak... Zerk motibatzen zaitu gehiago?

Elkarrizketa genero zirraragarria da, bestearengandik informazioa lortzeko erronka jartzen dizu: zuzenean, elkarrizketatuarekin aurrez aurre, kazetari moduan dituzun ezaugarriak erakusten ditu. Edozeini galdetuko nioke edozer.

5. Kamerak ala mikrofonoak, zeintzuk dira konpainia hobea?

Ezin diot horri erantzun; aita edo ama, gehiago nor maite duzun galdetzea bezala da. Deigarriena da ni prentsarako nindoala, gusatzatzen zitzaidana idaztea zen.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Egunak 48 ordu izatea probatuko nuke, baina susmoa dut ez litzatekeela 24koa bezain zirraragarria izango"

AGM

6. Iñaki Gabilondorekin orpoz orpo lan egiteak asko eragiten du?

Bai: irakasle asko izan ditut, baina bera nire maisu handia da. Egutero erabiltzen ditudan gauzak irakatsi dizkit, tartean, ez autozentsuratzea; hori da, egun, kazetaritzaren gaitz handienetakoa.

7. Zertan nabaritu duzu hedabide publiko batera pasatu zarela?

Ezertan ere ez. Gura izan dudana kazetaritza egin dut beti, eta badaikit pribilegio bat dela. Hedabideetatik joan izan naiz ez nuelako bat egiten egin nahi zutenarekin.

8. Kazetariak krisiaz hitz egiten dute, baina nahikoa hitz egiten da kazetaritzan dagoen krisiaz?

Ez, eta ez dut uste gure eskubi-deekiko nahikoa zorrotzak garenik. Kazetariak soldata duina jasoko behar du, bere lanak dakarrelako erabiltzailea, duen informazioarekin, askoz libreagoa izatea.

9. Zerk erakarri zintuen mundu arabiarretik?

Nazioarteko informazioa beti gustatu zaidanez, mundu arabiarrean espezializatu eta hizkuntza ere ikasi nuen. Horrek hango jendearen atek zabaldu zizkidan. Historiak, milaka urtetako gatazken oinarri konplexuek txunditu ninduten.

10. Noiz egon zara, azken aldiz, 24 orduz guztiz deskonektatuta?

Ez dut oroitzen. Ez nator bat kazetaritza 24 orduko lana dela diotenekin, baina kazetariaren jakin-mina beti dago erne.

BIHARAMUNA

AINHOA LARRAÑAGA



Erlatibismoa

Posizio erlatiboa da, auzi edo gertakari baten aurrean, posizio puru edo erradikal bat hartu beharrean esatea, "bai, baina...", "hori bai, baina beste hori ere", "alde batek eta bestetik"... Erlatibismoa ongi ikusia dago gure gizartean eta badirudi posizio politiko zuzena dela. Ez bati eta ez besteari, ez batean eta ez beste... Ez bustitzea da politikoki zuzena gure gizartean (enpresetan, politikan, auzi sozialetan...). Ekidistantzia. Zenbat aldiz entzun izan ote dugun: "gauzak ez dira beltzak edo zuria", "lasai hartu". Nik aldiz nahiago ditut erlatibismoa ihes egiten duten pertsonak; posizio argia adierazten dutenak. Niri iritzia argi ematen dutenek segurtasuna ematen didate; nire iritzikoak izan edo ez. Bustitzen ez dena, sarritan, ari da babesten, ihes egiten; eta zalantzarik ez, hori eroso da oso. Badira posizio argia eta jokabide eta asaldura maila oso tinkoa eskatzen duten gertakari larriak. Horrelakoetan ez du balio erlatibismoa eta egoerok eskatzen dute iritzia eta jokabide tinkoa. Erlatibismoa, zinismoa eta fribolitate, askotan eskutik doaz eta epe motzean egoera erosoan kokatzen gaituzten arren, antzuak izan ohi dira gehienetan. Dena likidoa den sasoiaren, solidoa da behar duguna.

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI
zurekin



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



Martxoaren 27tik aurrera

2014 AN
ZERBITZURIK
2014 AN

COLHOGAR
komuneko paper kilometrikoa
12 erroilu

1 erosita:
4,90 €
Erroilua:
0,41 €

Ale bakoitza:
3,27 €

Erroilua: 0,27 €

3 eraman
eta 2 ordaindu



COOSUR
Hojiblanca oliba-olio
birjina estra
Picual edo Arbequina.
Litro bat

Litroa
erosita:
4,19 €

Ale bakoitza:
2,79 €

Erroilua: 0,27 €

Nahi duzun
bezala konbinatu

3 eraman
eta 2 ordaindu

Eskaintza baliagarriak: 2014/03/27tik 2014/04/09ra